



"PROIEKTU HONEK ETORKIZUNA DAUKA"

Susmo txarrak eta zuzendaritzaren erabaki okerrak salatu, eta informazio beharra eta inplikazioa aldarrikatu dituzte Edesako eta Geyserreko langileen ordezkariak / 2

Aitor Goenaga
(ELA), Jesus Lasa
(Geyserreko
Langile Batzordea)
eta Rikardo Perez
(Edesako Langile
Batzordea), atzo,
prentsaurrekoan.

XABI URZELAI



Datorren astean itxi egingo dute Eskoriatzako Santa Ana auzoko aparkalekua / 21

Agorrosin igerilekuaren auziak aurrez aurre jarri ditu Bergarako EAJ eta EH Bildu alderdiak / 27

Valentin Elgoro: Bergarako etxea utzi eta Ameriketara, bizitza hobe baten bila / 24

Elgetako artxiboan beste bi aurkikuntza egin dituzte: papiro itxurako dokumentua eta mapa bat / 33

Zirkuitu berria estreinatuko dute domekan Aramaioko Openean, Ibarrik irtenda / 37

Euskal kultura ekoizpenei saria, Andoaingo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan / 40

Asier Garitano (Leganes taldea): "Norbera zein den jakitea da hemen garrantzitsuena" / 38

puntua
+
'Kulturizketak' elkarriketa saioaren gaineko monografikoa

SINADURAK

 AITOR BIAL BIDARTE / 8	 AINHIZE BARRAINKUA / 19
 JOSU ZUGASTI / 11	 ALAZNE GURDI / 34
 MARIA IZAGA / 17	 AINTZANE OIARBIDE / 48

"Itxieraren atarian" dauden beldur

FagorCNAko langileek uste dute oraingo egoeraren arrazoiak "zuzendaritzaren erabaki okerrak, salmenta estrategia antzuak eta etengabeko inprobisazioak" izan direla. Eta behin eta berriro exijitu dute informazioa, datorren asterako mobilizazioak iragartzeaz batera

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Susmoa dugu eta seguru gaude partida beste eremu batean ari direla jokatzeko eta guk ez daukagula inongo informaziorik"; horrela salatu zuten euren susmo txarra Edesa Industrialeko (FagorCNA) eta Geyser Gastech-eko langileen ordezkariak; alegia, CNA Taldeak esku artean bestelako negozio planen bat duela susmatzen dute.

Hain justu, "enpresaren egoeragatik zeharo kezkatuta" daudela berretsi zuten, itxiera bera ere aipatuta: "Itxieraren atarian egon gintezke, nahiz eta zuzendaritzak ez onartu begi-bistakoa dena".

Uste dute oraingo egoerara aitatzeko arrazoiak "zuzendaritzaren erabaki okerrak, salmenta estrategia antzuak eta etengabeko inprobisazioak" izan direla.

Horregatik guztiagatik, orain arte ere etengabekoa izan duten eskaera berretsi zuten atzo, egue-na, Garagartzako plantaren aurrean batu ziren komunikabide ugarien aurrean: informazioa, eta noski, bideragarritasun plana.

Enpresari, Fagorri... eta gizarteari ELA eta LAB sindikatuetakordezkariak, Edesako eta Geyser Gastecheko langile batzordeen babesarekin, eta atzean Garagartzako (Edesako eta Geyserreko langileak), Eskoriatzako zein Basauriko langileak zituztela partekatu zuten bizi duten egoerarengatik eta enpresaren etorkizunarengatik duten kezka eta larritasuna atzoko agerraldian: "Guretzat une ankerra da, jada denbora gehiegi daramagu egoera jasangaitz batean. Nekatuta gaude informaziorik ezarekin, etengabeko kaleratzeekin. Behingoz egia jakin nahi dugu", aldarrikatu zuen ELAko ordezkari Aitor Goenagak guztien izenean.

Hori horrela, "enpresako zuzendaritzari, bai Fagor markari, instituzioei eta gizarte osoari" zuzendutako bost eskaera edo aldarrikapen egin zituzten.

Lehenik eta behin, informazioa: "Enpresaren benetako egoeraren eta esku artean darabilten asmo berrien informazio guztia".

Bigarrenik, aldarrikatu zuten "enpresaren bideragarritasunean sinesten" dutela: "Proiektu honek etorkizuna dauka neurri batzuk hartuz gero", esan zuten.

Bideragarritasun plana

Hirugarrenik, orain arteko eta iragarritako kaleratze berrien aurrean, berretsi zuten plantilla ez dela "arazoa". Eta ildo beretik eskatu zuten "Edesa eta Geyserren bideragarritasunak enpleguan ez dezala eragin txarrik izan. Kaleratze espedienteak bertan behera uztea eskatzen dugu, ze ezinbestekoa da langileok bideragarritasun plana eta 2017ko gestio plana ezagutzea beste ezer eztabaidatu aurretik".

Era berean, iragarri zuten hiru baldintza horiek bete ezean ez dutela "inongo negoziaketarik izango enpresarekin".

Jaurilaritzari, inplikazio eskea

Azkenik, "Jaurilaritzaren erabateko inplikazioa" eskatu zuten: "Sinesgaitza egiten zaigu enpresaren bilakaerari buruz eman dituzten mezu itxaropentsuak, behin eta berriz beraiekin egoerari buruz partekatu dugun diagnosien ondoren". Hori horrela, bai Jaurilaritzari zein Fagor S. Coop. kooperatibari es-

TAPIAK IRAGARRI DU BADABILTZALA INBERTSORE INDUSTRIALAK BILATZEN

kaera zuzena egin diete: "Ez dezatela irteera antzurik babestu, eta eska dezatela inbertitzaila industrial bat barnean duen proiektu berri bat, eta etorkizuneko jarduera Euskal Herrian bermatuko duena".

Aldarrikapenon ondotik, mobilizazioak iragarri zituzten datorren asterako: astelehenean, 09:00etan elkarretaratzea Garagartzan. Eta eguaztenean, 18:30ean, Arrasateko Herriko Plazan.

"Plan sinesgarria"

Langileen aldarrikapen nagusi horiekin bat egiten dute, hala-ber, erakundeek ere. Arrasateko Udalak zein Gipuzkoako Diputazioak bideragarritasun plan beharra azpimarratu zuten martitzenean.

Hala egin zuen adierazpen instituzional bitartez lehenak, alderdi politiko guztien babesarekin. "Elkartasuna" eta "elkar-lana" eskaini ondoren, eta "enpresa aurrera ateratzen laguntzeko langileen prestutasuna ikusirik", Arrasateko Udalak eskatu zuen "eszisioko EREA atzera botatzea eta aukera guztien analisia egitea. Enpresari eskatzen diogu bideragarritasun plan sinesgarri bat aurkeztea". CNA Taldeko zuzendaritzarekin Arrasateko Udalak eskatu eta oraingoz egiteke duten batzarrari dagokionez, berriz, joan den astean birritan eman zioten planto Maria Ubarretxe-na alkateari-, hau jakinarazi dute oraingo astean: "Saiatu garen arren, oraindik ez dugu hitzordurik lortu".

"Etorkizuna bermatzeko"

Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, Edesari laguntzeko prestutasuna azaldu zuen, baldin eta enpresaren bideragarritasun planak etorkizuna bermatzen



Edesa Industrial, Geyser Gastech eta Basauriko plantako langileak atzo, egue-na, Edesa Industrialeko Gargartzako plantaren kanpoko aldean egindako prentsaurrekoan. XABI URZELAI

badu: "Diputazioak baditu dirulaguntza lerroak. Ikusi behar dena da etorkizunera begira enpresa horiek bideragarriak badiren", adierazi zuen martitzenean Imanol Lasak, Gipuzkoako Foru Aldundiko bozera-maileak. "Fagorren kasuan, etorkizunera begira hartu behar dugu Eusko Jaurlaritzarekin batera. Eskatzen dena da etorkizuna bermatzeko eta lanpostuak mantendu ahal izateko planteamenduak eta estrategiak", gaineratu zuen Lasak. (...) "Kontua ez da administrazioak dirua inbertitzea edo laguntzak eskaintzea, atzetik ez badago proiektu estrategiko bat bermatuko duena hartzen diren erabakiek jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortu, edo gutxienez, mantenduko dituztela. Beraz, etorkizunera begira egi-

ten diren planteamendu serioak behar dira".

Inbertsore potentzialen interesa

Eskaerak eskaera, CNA Taldeko zuzendaritzak ez du, oraingoz, informaziorik plazaratu, hila-bete honen erdi-amaiera ingururako agindu zioten bideragarritasun plana Arantza Tapiari, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiarren Garapen eta Azpiegitura sailburuari.

Hain zuzen, atzo arratsaldean Tapiak berak berretsi egin zuen etengabeko harremanean jarraitzen dutela arazoak dituzten enpresetako batzordeekin, bereziki arazo larrienak dituzten enpresetakoekin: "Langileekin eta beraien ordezkari diren komiteekin; adierazteko gure ekimenak nondik nora doazen, eta noski, beraien ekarpenak, ardurak... entzuteko".

Eta Tapiak iragarri zuen, ize-nik zehazteke, badihardutela inbertsore potentzialen bila: "Bereziki lehiaketan sartu diren enpresa horietarako inbertsore industrialak bilatzen, enpresa horiek ahalik eta etorkizun ego-kienak izan dezaten".

135 BAZKIDEK ESKUBIDEA DUTE MONDRAGON TALDEAN BIRKOKATZEKO

205 langile langabeziara

Bien bitartean, baina, une honetan lanean "normal" diharduen Edesa Industrialeko planta bakarra Eskoriatzako da –20 bat langilek dihardute bertan, mini-domestikoak egiten–.

Datuak bestela ikusita, gaur egun Edesa Industrialek dituen 350 langileetatik 205 langabeziara bidali dituzte. Are gehiago, hori egin dute oraingo astelehenean, eta langileendako ezustean, Edesak indarrean duen Enplegu Erregulazio Espediente baliatuta. Irailera arte bidali dituzte etxera: 144 langile Garagartzako plantatik, egosketa lerroko guztiak –eten egin dute lerroa– eta Geyserreko 21 langile, eta Basauriko langile guztiak, terminoen produkzioa ere eten egin duelako zuzendaritzak. "Gure langabezia kontsumitu beharko dugu", dio Rikardo Perezek, Edesako Langile Batzordeko presidentea, jakinaraziz honen guztiaren berri emateko batzurrean eurekin bakarrik egon zela pertsonal burua, CNA Taldeko zuzendaritzako inor ez zela bertaratu.

"Ez dira egon inbertsio errealak, inbertsio produktiboak"

ADRIAN ZELAIA EKAI CENTERREKO PRESIDENTEA

Ekonomian aditua da Adrian Zelaia, Ekai Centerreko presidentea. Bazkide industrial berri baten beharra azpimarratu du, enpresak aurrera egiteko. "Langileak segituan konturatu dira bazkide industrial bat egon ezean oso zaila dela hori aurrera ateratzea". **2014an erosi zituen CNAk Fagor Etxetresnak. Aurreikuspen batzuk zituzten, baina ez dira behar bezala bete. Iragarri dute, besteak beste, 20 milioi euro gehiago inbertitu dituztela. Ez ziren errealistak orduko aurreikuspen horiek?**

Agian, komeni da argitzea 20 milioi euro horiek zer diren. Hau da, ez dira egon inbertsio errealak, inbertsio produktiboak. CNA Catarentzat Fagor filial bat da; hortaz, filial horretan egiten den edozein ekarpen, nahiz eta inbertsio finantzarioa izan, haientzat inbertsioa da. Kontua izan da oso zaila dela merkatutik kanpo horrenbeste denboraz egon den kontsumo produktu bat berriro martxan jartzea eta arrakastatsua izatea merkatuan. Ondasun ekipoen sektorean errazagoa da



"AURREIKUSPENAK EZ DIRA BETE ETA HORREGATIK ARI GARA ESATEN KOSTUA USTE BAINO HANDIAGOA DELA"

merkatua kontrolatzea, baina horrelako kasu batean, urtebetez baino gehiagoz merkatutik kanpo egon eta berriro ere martxan jartzea, gainera, nolabait kaltetuta zegoen marka bat izanik... loteria moduko bat zen. Hortaz, oso zaila zen aurreikuspenak egitea. Mahai gainean jarri ziren aurreikuspenak ez dira bete, eta horregatik ari gara esaten kostua uste baino handiagoa izan dela.

Konkurtsu aurrekora jota denbora irabazteko, badago aukerarik inbertitzaila bat topatzeko? Hipotesi desberdinak entzuten ari gara. Txarrenetik hasita,

esango nuke hipotesi pesimistena dela ELA sindikatuak plazaratu duena. Gertatu daiteke honen hasieran, erosketaren momentuan ja ez egon izana benetako espektatibarik honek aurrera egiteko, baina, arazo sozial handia zenez, nolabait amortigutzeko jarri zela martxan operazio hori. Hipotesirik optimistena, berriz, bazkide industrial bat topatzearena izango litzateke. Hori sindikatuak aipatu dute, enpresa batzordeak ere bai... Noski, teoriarik CNA izan behar zen bazkide industrial bat. Kasu honetan, garrantzitsua da bazkide industrial bat izatea; azkenean, hori aurrera ateratzeko jakin behar da nor den gai aktiboak errentabilizatzeko, eta hori, bazkide industrial bat ez bada, oso zaila da oraingo hartzekodunek, bankuek, onartzea luzapen hori. Bestela ere, bankuek badute aukera haien kabuz aktiboak saltzeko, eta hori ez badute egiten, izan behar da norbaitek aktibo horiek modu hobean errentabilizatzeko aukera duelako. Teoriarik, horixe izan beharko litzateke bazkide industrial bat: sektorea ezagutzen duen norbait gai dena aktibo horiek errentabilizatzeko, Fagorren markarekin edo bere marka propioarekin.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



Zehaztasunezko FORJAn espezializazioa

Espezializatu zaitez lan egiten duzun bitartean
Lan baldintza ezin hobek



Informazioa: 943 76 70 49 edo lanpoltsa@imaltuna.com

Hamaika hilabeterako ura du Urkulu urtegiak

Aurreko urteetako sasoi bereko ur mailarekin konparatuta, alerta egoeran dago Urkulu, larrialdi egoera markatzen duen indizera iristeko puntuan; are gehiago, larrialdi egoeran ere egon da duela astebete; hala ere, 11 hilabeterako ura badu oraindik

Ubane Madera DEBAGOIENA
Azken lau urteotako ur mailarik baxuena markatu du Urkulu urtegiak, atzoko, eguna, betetze mailari dagokion datua esku artean: %71,75 –behean, taula konparatiboa–.

Gipuzkoak dituen zazpi urte-gietatik hirugarren baxuena da Urkulu une honetan.

Indize edo adierazle horren arabera, alerta egoeran dago Debagoieneko urtegia une honetan, larrialdi egoerara sartze-ko puntuan. "Noiz gauden maila normalean, noiz alertan, noiz larrialdian... adierazle hori kalkulatzeko data horietan historikoki eduki izan duen ur mailaren arabera (...) Aurten, zehazki, historikoki izan dugun batez beste horreki-ko baxu gaude, eta une honetan alerta mailan gaude, eta indize hori 0,16an dago; 0,15ean sartu-ko litzateke larrialdi mailan egotera", esplikatu du Imanol Zabaletak, Gipuzkoako Ur Kontsorzioko Debagoieneko antola-ke taburuak.



Urkuluko urtegia, eguaztenean; ur asko erakusten du, oraingoz. IMANOL BELOKI

"MAIATZETIK EURI GUTXI EGIN DU OROKORREAN, ETA URTEGIA OHI BAINO BEHERAGO DAGO"

"EZ DAGO AURREIKUSITA MOMENTU HONETAN INONGO ERABAKI DRASTIKORIK"

Maiatz sikua
"Urte sasoi honetarako, norma-lean, gorago egoten da. Urte lehorra daramagu, maiatzetik euri gutxi egin du, orokorrean, eta horrek ekartzen duena da

urtegiak ere behera egitea", gehi-tu du Zabaletak.

Irakurketa hori zenbaki-ekin begiratuta, eta, hain zuzen ere, prezipitazioei dagozkien Eus-kalmeten maiatzeko datuetan oinarrituta –argitaratutako az-kenak–, bederatzi urteotako lehorrena izan da hilabete hori –behean prezipitazio kopuruari dagozkion maiatzeko datuen lau urteotako taula konparatiboa–.

la urtebeterako ura
"Baina urtegian hamaika hila-beterako ura badago", zehaztu du Ur Kontsorzioko ordezkar-iak, lasaitasunerako mezu erreali-sta helarazita.

Are gehiago, haren esanetan, "duela astebete larrialdi mailan geunden; urtegiaren ur maila oraingoaren nahiko antzekoa zen, baina azken euriteek pixka bat igoarazi dute eta larrialdi

1,5 milioi euro inguru Debagoieneko azpiegiturarako

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.404.720,53 euroko diru laguntzak onartu ditu eskualdeko zortzi udalerritarako

U.M. DEBAGOIENA
2017-2020 aldirako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planaren barruan, Gipuzkoako Diputa-zioak bere esparruari dagokion udal-erri guztietara bideratuko du diru laguntzaren bat –Ara-maio esparru horretatik kanpo geratzen da–.

Hain zuzen, laguntza guztiak batuta, 1.404.720,53 euro bidera-tuko ditu Debagoienera. Eta udal-erri bakoitzari dagokion kopurua zertara bideratu, berri-z, herri bakoitzeko udalaren es-kaeraren arabera egingo da. Ildo horretan, laguntza batzuk onar-tu dituen moduan, beste batzuk ezetsi egin ditu Diputazioko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak, lau arra-zoi tarteko: baliabiderik ez ego-tearren edo beste proiektu batzuk lehenetsi dituelako; eskaera baldintzak ez direlako bete, beha-rrezko dokumentazioa ez due-lako aurkeztu edo aurreko al-dian "diru laguntza nabarmenen onu-radun" izatearren udal-erri hori.

Handiena, Labegariaietara
Edozein modutan, onartutakoen artean hiru dira laguntza na-barmenenak: Bergarara, Oñati-ra eta Aretxabaletara bideratu-ko dituenak.

Handienetik txikienera begi-ratuta, Bergarako Labegariaiet

Bergarako Lazpiur enpresan ekoizten diren piezak homologatu egin ditu Peugeot-ek

Lazpiurrek ekoizten duen tres-neriak prestatze lan handia du teknikoki, eta enpresa espe-rientzia hartzen joan da per-tsonetan eta makinerian egin-dako inbertsioagatik. Azken hauek 4.0 industriarekin erla-zionatutakoak izan dira eta akabera zein tolerantzia alde-tik ezaugarri bereziak dituen tresneria egitea ahalbidetu dute. Hori dela eta, Bergarako fabri-kan ekoizten diren piezak ho-mologatu ditu Peugeot-ek eta bere autoetan jar ditzake. Pie-zak hauek, batez ere, direkzioa-

kiroldegia eraberritzeko 589.720 euroko laguntza emango du Di-putazioak: 189.720 euro 2019an eta gainontzeko 400.000 euroak, 2020an.

Haizetearen kalteak konpontzeko
Oñati dator ondoren: 453.920 euro onartu ditu Diputazioak Zubikoa kiroldegiko handitze eta erreformen aurreproiektu-rako: 100.000 euro 2019an eta 353.920 euro 2020an.

Eta Aretxabaletari dagokionez, berri-z, 199.710,38 euroko lagun-tza emango du otsaileko haizeteak Ibarra kiroldegian eragindako kalteak konpontzeko; 2017an eskuratu du kopuru hori berta-ko Udalak.

Gainontzeko bostak
Gainontzean, eta hurrenkera berean, Arrasatek eskuratuko ditu 67.500 euro, igerilekuko klimatizazio proiekturako. Es-koriatzara bideratuko dira, be-rriz, 61.320,18 euro kiroldegia-ren birmoldaketarako. Antzualari dagokionez, 16.000 euro bidera-tuko dira, eskolako patioa ixte-ko. Elgetako Udalak 13.003,97 euro eskuratuko ditu, kirolde-giko aldagelak berritzeko eta Leintz Gatzagak 3.546 euro es-kuratuko ditu Udal Pilotaleku-ra sartzeko eskailerak eta alda-gelak egokitzeke.



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
• Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa • Nazioarteko Merkataritza	• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrial • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula

Uztailaren 13tik 19ra





Imanol Agote, Estefania Beltran de Heredia eta Elena Lete gutun historikoen berreskuratzearen berri emateko agerraldian. GOIENA

"Balio handiko" ondarea berreskuratzeke aukera

Bergarako Udal Artxiboko arduradunek lapurretaz konturatu eta 2011n jarritako salaketa bati esker 2.000 dokumentu historiko erreku-peratzea lortu du Ertzaintzak 'Gutunak' izeneko operazioan; Bergaran, 238 dokumentutik 36 berreskuratu dira

Jokin Bereziartua BERGARA
EAEko artxibo publikoetan eta pribatu- etan lapurtutako 2.000 dokumentu historiko berreskuratu ditu Ertzaintzak, Bergarako Udalak 2011n salaketa bat jarri ostean abiatutako ikerketa bati esker. Bergarako Udal artxiboan, berriz, 238 gutun historiko ostu zituzten eta horietatik 36 berreskuratu dira. Bergarako

artxiboan bertan konturatu ziren hainbat dokumentu falta zirela. "Ikerlari batek kopiak eskatu zituen- ean eta kopiak egitera joan ginenean konturatu ginen dokumentu batzuk falta zirela. Nire lankide Pili Azkaratek begiratu zuen eta gure zerrendatik dokumentu batzuk falta zirenean hasi ginen hausnarketa egiten", adierazi du artxoko arduradun Aran-

tzazu Oregik. Hori horrela, Ertzaintzan salaketa bat jartzea erabaki zuten. "Egindako egiaz- tapen guztiak egin ondoren, orduko alkate Jesus Elortzarekin hitz egin nuen eta dokumentu horiek falta zirela esanaz, sala- keta bat jartzea komenigarria zela iruditu zitzaigun. Horrega- tik joan ginen Elortza eta biok Ertzaintzara salaketa jartzera".

Mikel Alvarez da Mondragon Unibertsitateko presidente berria

Kontseilu errektoreak aho batez onartu du izendapena; 2019ra arte egongo da karguan, Iñigo Ucin ordezkaturat

J.B. ARRASATE
Mondragon Korporazioaren Sustapen Zentroko Negozioaren Garapen eta Harreman Institutuzio- aletarako gaur egungo zuzendari Mikel Alvarezek Iñigo Ucin ordezkatu du, eta 2019.

urtera arte egongo da presiden- te karguan. MUKo kontseilu errektoreak aho batez babestu du Mikel Alvarezen izendapena. Haren ibilbide akademikoa eta profesionala medikuntzarekin erlazio- natua egon da, Basurtu-

ko ospitalean urte askoan lanean aritu zen- eta zuzendari kudea- tzaile izatera iritsi arte. Basur- tu eta Gurutzetako Ospitalean aritu zen lan horretan, 2009an enpresa pribatura jauzia eman zuen arte. Mondragon Health- ko zuzendari nagusi izan zen 2015ra arte eta urte horretan Bilboko Udaleko Garapen Eko- nomiko eta Gobernu Onaren zinegotzi izendatu zuten. 2017ko apirilean Mondragon Korpora- ziora itzuli zen, Sustapen Zen- troko Negozioaren Garapen eta



Bergarako artxiboko arduradun Arantzazu Oregi dokumentu bat erakusten. GOIENA

1604 eta 1895 urte artekoak

Esandako moduan, Ertzaintzak 2011n jarri zuen abian ikerketa, Bergarako Udalak salaketa aurkeztu ondoren, filateli- azale bat atxilotu zutenean Euskadiko hainbat artxibotatik dokumen- tu historikoak ateratzea lepo- ratuta. 2011tik 2015era bitartean egin zuten ikerketa Ertzaintza- ko Ikerketa Kriminal- eko eta Polizia Judizial- eko Sekzio Zen- traleko Ondarearen Taldeko agente espezialistek, eta EAEko eta Espainiako hainbat artxi- botatik, 2007az geroztik, lege- z kontra ateratako dokumentu historiko ugari- ren arrastoa jarraitu zuten. Kultura- ondasun hitz egin nuen eta dokumentu horiek falta zirela esanaz, sala- keta bat jartzea komenigarria zela iruditu zitzaigun. Horrega- tik joan ginen Elortza eta biok Ertzaintzara salaketa jartzera".



Mikel Alvarez. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IV.a erregeen hainbat gutun berreskuratu dituzte, ondare- balio handikoak. "Kasu horre- tan, gutun horiek prefilateli- a- koak ziren, zigilua martxan jarri baino lehen erabiltzen ziren gutunak leku batetik bes- tera bidaltzeko. Kasu honetan pertsona honek prefilateli- a iker- tzen zuten", adierazi du Oregik. Bergarako Udal artxiboaren arabera, bertan 238 dokumentu lapurtu zituen filateli- azaleak, eta horietatik 36 berreskuratu ditu Ertzaintzak. Bergarako Kul- tura eta Ondare zinegotzi Maite Agirrek espero du dokumentu guztiak berreskuratzea: "Proze- su hau gogorra eta luzea izan da. Bergaran hasi zen eta hasie- ra horrekin lortu duguna izan da berreskuratzea Bergarako ondarearen zati bat. Bergarako historiaren oso garrantzi- tsua da ondare hori zaintzea".

Harreman Institutuzio- aletarako zuzendari gisa jarduteko.

Unibertsitate esparruan aritua
Alvarezen ibilbide profesionala estuki lotua egon da unibertsita- teari. Irakasle elkartua izan da EHUko Farmazia Fakultatean, Medikuntza Fakultateko Immu- nologia sailean, eta Medikuntza Fakultateko Prebentzio Medikun- tzako eta Osasun Publikoko sai- lean. Horrez gain, irakasle kola- boratzailea izan da Kataluniako Oberta Unibertsitatean (UOC).

Erraustegiaren aurkako gose grebaren digestioa

IRANTZU JAUREGI, IÑAKI ARMENDARIZ, TERESA LOPEZ DE MUNAIN, KEPA OLAIZ, ARAN GARMENDIA ETA MILA ZABALO
ERRAUSTEGIAREN AURKAKO EASO
PLAZAKO GOSE GREBALARIAK
DONOSTIA

Jada pasa dira egun batzuk sei herritar gipuzkoarrok Donostiako Easo plazan erraustegiaren gezur handiaren aurkako gose greba bukatu genuenetik. Gure lanak, familiak eta etxeak utzi, eta astebetez aire garbia eta osasunerako eskubidea aldarrikatu dugu. Izan ere, nazioarteko ikerketa zientifikoek diotenez, hainbat osasun arazo eta minbizi motak nabarmen egiten du gora bereziki erraustegitik 10 kilometroren bueltan. Esaterako, garuneko minbiziak bikoiztu egiten dira, hezurretakoak eta malformazio kongenitoak hirukoiztu.

Heriotzak %13 inguru gehitzen dira minbizia dutenen artean gertuko eremu- etan. Kaltea handiagoa da haurrengan. Lurra eta gure ondorengoak kaltetzeaz gain, 35 urterako zorrera kondenatu nahi gaituzte.

Hau bereziki larria da, egitasmo hau ekiditeko alternatiba badagoelako. Askoz lanpostu gehiago sortzeaz gain, nabarmen merkeagoa eta osasuntsuagoa da eta Europatik datozen irizpideekin ere bat dator. Gipuzkoan, gainera, urrats garrantzitsuak eman dira bide horretan.

Datu hauek guztiak eta gehiago esku artean izanda, nola liteke erraustegiaren egitasmoarekin jarraitzea? Erraustegia eginez gero diru publiko izugarri jasoko duten gutxi horientzat gobernatzen duten politikariak ote ditugu Foru Aldundian? Ez al lukete guztion onurarako aritu behar? Pozgarria izan da hainbeste jenderen babesa jasotzea.

Herritar askorekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta berriro ere ikusi dugu informatua dagoen herritarrek ez duela erraustegirik nahi, gutxiago etxe ondoan. Baina hau Foru Aldundiko agintariek ere badakite, horregatik ari dira etenik gabe, informazioa ezkutatzen eta aurkako protestak isiltzen.

Agintari hauek herritarrek etsitzea nahi eta espero dute. Oker daude, gu guztion eskubideen alde ari gara eta ez dugu hain erraz etsiko. Besarkada eta animo handiak guztientzat. Zubietako erraustegia gelditu!

Oñatiko PNVren Udal Taldeari

JOSE ANTONIO AMUNDARAIN ETA ALBERTO ETXEBERRIA
OÑATI
Kontzejupetik herriko al- dizkarian argitaratutakoari erantzunez.

Benetan harritzekoa da EAJ-PNVren Udal Taldeak *Kontzejupetik* udal al- dizkarian idatzi duena. Horrela dio: "Guk ez dugu Oñatiko EH Bilduren mundu- ikuskera, ez bakean, ez bizikidetzan, ez giza eskubideetan, ez gizarte- bizitzan, ez ekonomian eta industrian, ez hezkuntzan.... Baina geu ere oñatiarrak gara, eta geure lekua daukagu herrian; EAJ-PNV eredu- aldarrikatzen dugu eta babesten dugu; EAJ beti aurrera! Ez da, ez, lan makala Oñatin! Oraindik, batzuek gorroto larregi daukate, gure iritzian, gauza onerako".

Hau irakurrita, beste alderdi politiko batekin gogoratu gara, baina ez genuen pentsatzen EAJ izan zitekeenik. Oñatiko EH Bilduk mundu- ikuskera desberdina edukitzea gorrotoaren sinonimoa ote da, ba, eta ondorioz Oñatiko herrian daukan babesa gorrotoan

oinarrituta ote dago? Hori, hain arinki esatea serioa al da?

Ikuskera eta praktika diferenteak eduki ditzakegu, baina guk emandako iritziak eta kritikak gorrotoarekin lotzen badituzue, gauzak nahita oker adieraztea, desitxuraztea, da zuekin dagoen arazoa.

Azken urteetan, EH Bilduk egindako lan guztia, nahita oker adieraziz, desitxuraztea izan da PNVk etengabe egin duena Gipuzkoa osoan eta Oñatin arrazoi gehiagorekin. Bi udal hauteskundetan aginte makila galtzea ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula, eta, gainera, oraintxe egin berri den inkesta, Udalaren jarduerari buruz, eta, atera den balarazioa ikusita, ezinegon galanta sortu zaizue eta hemendik aurrera ez da giro izango zuekin. Beraz, iritzia ematea ez da gorrotoa edukitzea. Ala bai! Ondo izan. Agur.

ANTZUOLAKO JAIK 2017

GOIENA TELEBISTA | ANTZUOLAKO JAIK 2017
UZTAILAK 19, EGUAZTENA, 21:30



goiena“
ZU HEMEN ZAUDE



ZABALIK

AITOR BIAIN BIDARTE

Irakurtzearen onurak

Batzuentzat irakurketa denbora librea betetzeko aktibitate bat den bitartean, beste batzuentzat irakurtzea bizitzaren denbora galtze huts bat besterik ez da. Egia esan, batzuentzat denbora-pasa zoragarria da irakurtzea; beste batzuentzat, aldiz, behartutako akzio bat. Baina irakurketa burua garatzeko aktibitate ona dela esan dezakegu.

Testu hau irakurtzen zabiltzan bitartean, zure garuneko ezker hemisferioa aktibitate indartsu batean dago sarturik, hainbat area aktibatzen. Zure begiak testu honetako letra bakoitza identifikatzen dabilta, eta horrek burmuineko hainbat kapa jartzen ditu martxan, letra horiek guztiek osatzen dituzten hitzei zentzua emanez. Irakurtzen zabiltzan bitartean, behin eta berriz gertatuko da ekintza hori.

Orduan, ona al da irakurtzea? Erantzuna erraza da: bai. Hainbat arrazoi daude baiezeko hori emateko:

ZURE GARUNEO EZKER HEMISFERIOA AKTIBITATE INDARTSU BATEAN DAGO SARTURIK

- Irakurtzeak burua garatzen du –pentsamendua–, eta kontzentrazioan ere laguntzen du.
- Testuetan barrena ibiltzeak garapen intelektualean eragina du. Irakurtzeak garunean eragina du, hitz bakoitzak bizia

hartzen baitu gure barruan, eta imaginazioa martxan ipintzen du buruko hainbat area martxan jarritz.

3.- Enpatian ere badu eragina irakurketak, irakurle batek edozein pertsonaiaren barruan sartzeko kapazitatea garatzen baitu, berau ulertu eta sentitzen baitu.

4.- Hitz egiteko kapazitatea garatzen du. Ciceronek esaten zuen moduan: "Hitz egiten ez da hitz egiten ikasten, irakurtzen baiziki". Irakurketak hiztegia, sintaxia eta gramatika hobetzen laguntzen du, eta horrek era egokiagoan hitz egiten lagundu.

5.- Irakurtzeak etorkizunean gaixotasun neurodegeneratiboak saihesteko aukera ematen du. Irakurtzeak garuna aktibo izatera eramango gaitu. Egoera horrek alzheimerra, parkinsona, eta abar izateko probabilitatea txikitzen du.

Gainera, irakurtzen dugun gizarte bat bagara, pentsatzen duen gizarte bat izango garela, eta honekin gizarte hobea sortuko dugula denon artean. Beraz, uda honetan, denok ere denbora gehiago dugula eta, animatuko al zara irakurtzera?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Idiotak

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/OSZIS

Gidabaimenaren atal teorikoa lehenengoan eta praktikoa hirugarrenean gainditu zuen txofer klasea naiz: biribilguneetan eta aldapa goretan kotxea kalatzen zaionetakoa (bakarrik nabilenean askotan, kopilotuarekin beti); autopistan erdiko karriletik joaten dena, badaezpada, bidebanatzeetan ez erratzeko; aparkatzean (literalki) izerditzen denetakoa.

Lehen, atzekoek presionatzen nindutenetan,

alde egiten nuen ilaratik harik eta azkenean, militantziagatik, maniobrak egiteko behar beste denbora hartzea erabaki nuen arte.

Gorroto dut aparkatzen ari denari bozina-joka hasten den, zareten, jende klasea; autopistan ordainlekutik 500 metrora besteak aurreratzen dituen; istripuetan madarikatu ohi dena; norberak baino azkarxeago gidatu eta ozenxeago hitz egin dezakeela uste duen jendea.

Baina axolagabe samarra ere banaiz: ohean edo dутxan galdutako minutuak, bidean

berreskuratu izan ditut sarri (kamioilari, autobus, ziklista eta Land Rover zaharrengatik biraoka); aldatu izan ditut CD-ak gidatzen ari naizela; mugikorra, ai, mugikorra...

Utzi izan diet joaten, baldintzarik onenetan egon ez arren, kotxea hartu duten lagunei eta barre txikia egin gidabaimena kendu dietela azañatzat kontatzen dutenei.

Inozoak gu, segundo batean bizitza hankaz gora jar diezagukeela jakinik ere, arreta, abiadura, errepidea desafiatzen ausartzen garenak. Inozoak gu. Ez, inozoak ez, idiotak.

EGUBAKOITZA 2017-07-14 GOIENA ALDIZKARIA

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-14 EGUBAKOITZA

PLAZA

PROTAGONISTA

"Robota inportantea izango da 4.0 industria kontzeptuan"

LORETO SUSPERREGI IK4-TEKNIKER-EKO ROBOTIKAKO IKERKETA ARDURADUNA

Mireia Bikuña ARRASATE

EHUK, Ulmak eta IK4-Teknikerrek elkarlanean sari inportantea lortu dute *European Robotics Challenges*-en. Loreto Susperregik eman ditu proiektuaren ezaugarriak. **Zein izan da aurkeztutako lana?** Banaketa zentroetan eskariak prestatzeko elkarlaneko robot baten prototipoa garatu behar izan dugu. EHUn, Ulman eta IK4-Teknikerren aspalditik dihardugu proiektu honetan. Hainbat fase gainditu ditugu, proposaturiko prototipoa, elkarlaneko robota, alegia, fisikoki garatu arte. Lehenengo fasean hogeai lan zeuden, bigarrenean hamabost eta azkenekoan bost. **Zer saritzen da lehiaketan?** Partzuergoak lankidetzarako espazio bat sortu du 4.0 industriaren testuinguru berrian, lan inguruneetako oztupoak kenduz. EHUK robotikaren eta sistema autonomoen alorreko *RSAIT* ikertaldearen bidez parte



IK4-Teknikerreko robotikako arduradun Loreto Susperregi IK4-TEKNIKER

hartu du; IK4-Teknikerrek, bestalde, bere ezagutza guztia baliatu du automatizazioko eta robotikako bere soluzioan oinarri hartuta. Alde batetik, orain arte landutako esperientzia, eta, beste alde

batetik, bisioarekin, segurtasunarekin eta manipulazio mugikorrarekin lotutako teknologien arloko ikerketak. **Nola baloratzen duzue sari hau lortu izana?**

Guztiz positiboa da. Egindako ikerkuntzari (I+G+B) saria da, baita elkarlanari eta aplikazio zehatz batean funtzionatzen duen soluzio bati emandako saria ere.

Zertarako erabiliko da robot hori?

Aplikazio honetan, *picking*-eko soluzio flexible bat aurkezten da, banaketa zentroetan eskariak prestatzeko. Orain arte eskuz egiten zuten prestakuntza, eta, aurrerantzean, robotak lagunduko dio teknikariari prestakuntza prozesuan. **Lankidetzan landutako lana da. Lau erakundeen ekarpenak ezinbestekoak izan dira?** Ikerketa munduan elkarlana ezinbestekoa da. Erakunde bakoitzak bere espezializazioarekin lotutako eduki eta lanak gehitu ditu. Azken batean, denon artean lortutako emaitza garrantzitsua da. Gutariko bakoitzak alor horretan dugun ezagutza eman dugu, eta, azkenean, emaitza oso ona lortu dugu, aurrerabide handia ekarriko baitu 4.0 industria kontzeptuaren garapenean eta elkarlaneko robotaren proiektuan.

Zenbat denbora behar izan duzue proiektu hori garatzeko? 2015ean hasi ginen proiektua garatzen, lehen zirriborroak egiten.

HAU BE BADOGU!

Miguel Angel Blanco gogoan izan dute



ETak Ermuko zinegotzia bahitu eta hil zuela 20 urte bete dira asteen, eta gaia *trending topic* izan da aste osoan zehar. Ermuan batu ziren, Miguel Angel Blanco omentzeko, Eusko Legebiltzarreko alderdi politiko guztietako ordezkariak, argazkian ikus daitekeen moduan, eta, Madrilen, polemikaz betetako omenaldia egin diote.

Larrabetzuko gurutze frankista, hizpide



Astelehenean, Larrabetzuko Gaztelumendi mendian frankistek guda irabazi ostean eraikitako gurutzea bota zuen Udalak, baina monumentua erortzean harriak beste norabide baterantz irten ziren eta lau pertsona zauritu zituen. Hori dela eta, Bizkaiko herria *trending topic* izan da asteen Espainia mailan. "Hilda ere min egiten jarraitzen du Francok" izan da gehien erabilitako esaldia.

Sanferminak, euskaraz, sare sozialetan

Euskal hiztunen eta txiolarien artean *#SFK17* eta *#SFK2017* traolak izan dira erabilienak asteen, Iruñeko San Fermin jaiak direla eta. Gainera, jaiei lotuta, entzierroak eta, zoritxarrez, sexu-erasoak izan dira, beste behin, hizpide: *@ezkiaga*: "Lehen gaua, lehen sexu erasoa... Jende inzibilizatua. *#ezdaz* *#noesno* *#SFK17* *#SFK2017* *#sfk* *#SanFermin*".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Urbane Madera.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabal (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amiaia Mundiniano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza, Jokin

Urbeebereberria.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaitzarain.

Disainu arduraduna

Iriaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna Marta Leturia.

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kuboa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Legi Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala




Aretxabaletako Udala




Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala



Aramaiako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



MIKEL ARANTZABAL

Komunikazio bideak eskatuz Fagor CNAr

Uztaileko osoko bilkuran, Garagartzako lantegiari buruzko kezka azaldu zuten alderdi guztiek adierazpen instituzional bidez, eta bideragarritasun plan serio bat exijitu zioten zuzendaritzari. Galde-eskeen txandan, elkartasun keinu adierazgarriak izan ziren

Xabi Gorostidi ARRASATE

Adierazpen instituzionala irakurrita, Makatzenako Hondarribia kaleko Hirri Antolamendua-ren Plan Bereziaren onarpenak eztabaida sortu zuen. 40 urtez ezer egin gabe egon ostean, kale horretako urbanizazioa egiteko prozesua martxan jarri da. Bertako bizilagunek alegazioak egiteko epea izan dute, eta, Maria Ubarretxenak adierazi duenez, alegazio gehienak kontuan izan dituzte Plan Berezian.

Maialen Zabaleta EH Bilduko kideak esan du prozesu hori beharrezkoa zela, baina faltan igarri du alegazio fasea bi hila-betez ez luzatu izana. "Azken orduko presak ez dira aitzakia, eta, hori eginez gero, denbora gehiago izango genuke bertako bizilagunen aparkaleku arazoei zehatzago erantzuteko". Balei-keko Igor Urizarrek, EH Bildu-rekin sintonian, alegazio epea ez luzatu izana "auzotarrekiko arreta eta errespetu falta" dela esan zuen. Bailekek aurka botzatu zuen, Irabazi eta EH Bildu abstenitu egin ziren, eta planak aurrera egin zuen EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin.

Mozioen txanda

Jarraian, oposizioeko taldeek diru sarrerak bermatzeko errenta prestazioaren inguruko mozioa jarri zuten mahai gainean. Ekainaren 1ean Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politike-tako sailburuak egindako adierazpenak salatu zituzten hiru alderdietako ordezkariak, eta laguntza hau "berregokitzeko eta blindatzeko" eskaera egin zioten Eusko Jaurilaritzari.

Ondoren, Oscar Garciak bat egin zuen Artolazabalek aipatutako 650 euroak nahikoak ez direla esanez, baina hiru alderdiei gogorarazi zien Gasteizko Legebiltzarrean batzorde tekniko bat eratuta dagoela momentu honetan, non Arrasateko



Udalbatzako kideak eguneko puntuetako bat botatzeko unean. XABI GOROSTIDI

HIRU MOZIOEK EZ ZUTEN AUERRERA EGIN, UDAL GOBERNUAK AURKA BOTATU ZUELAKO

Udaleko alderdi guztiak ordezkatuta dauden. Alderdikeriak alde batera utzi eta akordioetara heltzeko beharrean jarri zuen fokua Garciak. Gai horrekin Anuska Ezkurak esan zuen Arrasateko EAJren ustez 650 euro "ez direla nahikoa", baina Artolazabalen hitzak "estu-gururitik atera" direla gehitu zuen. Mozioak ez zuen aurrera egin, Udala Gobernuak aurka botatu zuelako.

Etxez etxeko laguntza

Hamargarren puntuan, EH Bilduk etxeko etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko aurkeztutako mozioari buruz hitz egin zuten. Itxaro Artolak herrialde mailako akordioaren beharra aipatu zuen, eta Gipuzkoako Foru Al-dundiari eskatu zion murrizketak gehiagorik ez egiteko. Anuska Ezkurak erantzun zion Al-

Hamaika posturekin osatuko da uztaileko baserritarren azoka

Bihar goizean egingo da, Seber Altuben, baserritarren azokaren uztaileko edizioa.

Oraingoan, aipagarria da ez dela ekintza osagarriak egingo. "Beti saiatzen gara tailer edo bestelakoekin azoka erakargarriagoa bihurtzen, baina oraingo honetan ez da posible izan", adierazi Nerea Lazpiurrek, Garapen Iraunkorreko teknikariak.

Seber Altubera hurbiltzen direnek hamaika postu izango dituzte, non sasoiko produktuak, kontserbak, okela ekologikoak, egurrezko tresnak eta orturako makineria egongo diren salgai. Sasoiko produktuen artean hauek nabarmendu ditu Lazpiurrek: kalabazinak, lekak, Gernikako piperrak, berenjenak, zerbak, pepinoak eta erremolaxa.

Azkenik, esan behar da irailera arte ez dela azokarik izango, abuztuan ez baitute egingo.

Bandera igoerarekin hasiko dira Santa Marinako jaiak

Gaur, egubakoitza, 18:30ean egingo duten bandera igoerarekin eta suziri jaurtiketarekin egingo du eztanda jaiak. 19:00etan alkatetzako leihotik boloa egingo dute eta 19:30ean txokolategia izango da, Santamania elkarteak antolatuta.

Lehen eguna dantzan bukatzeko, Amaia DJk dantzaldia egingo du, 22:30ean.

Zapatuan ekintza ugari izango dira: Arizmendi Ikastolako patioan puzgarriak eta giza mahai-futbola, mahai-futbol txapelketa Monserrat tabernan, poteo herrikoia eguerdian, *Cojonudos* dastaketa, eta, eguna amaitzeko, Sol de Bate talde andaluziarrekin dantzaldia.

Domekan, aldiz, meza nagusiaren ostean bazkaria egingo dute erretiratuentzat, eta 19:30ean *El Club de la Comedia*-ko bazarriketak izango dira Agerre plazan.

Aratz Gomez presoak Frantzian amaituko du kondena

Preso arrasatearrak 2005ean egin zuen eskakizuna, etxetik gertuago egote aldera. Arrasateko Sortuk plazaratutako ohararren arabera, bigarren aldiz egin behar izan du eskakizuna, eta espetxealdia amaitzeaz duela eman diote baiezkua.

Unai Parot presoak eskakizun bera egin zuen, baina ezezko erantzuna jaso zuen.

'Busti zaitez' eguneko diru bilketa handiena Arrasaten

Toki Argi Jubilatuen Egoitzako boluntarioek oharra helarazi dute pasa den domekako esklerosi anizkoitzaren aldeko egun arrakastatsua posible egin duten guztiei eskerrak emateko.

Esker oneko izan hitzak izan dituzte herritarrentzako, kiroldegiko langileentzako, baita horren berri eman duten komunikabideentzako.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-14 EGUBAKOITZA

'Singular dendak' programa aurkeztu dute

Denden lehiakortasuna hobetzea, euren balorazioa eta kokapena bultzatzea eta sektorea dinamizatzea helburu dituen egitasmoa aurkeztu zuten martitzenean Kulturaten. Berebiziko merkataritzaren aldeko apustua egiten du programak

Ane Vitoria ARRASATE

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak aurkeztu zuen martitzenean *Singular dendak* programa. Egitasmo horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa jaso du, eta, horrez gainera, Arrasateko Udalarekin lankidetzak hitzarmena sinatu du. Izan ere, Debagoienean hamalau bat saltokiz osatuko den sare bat sortu nahi dute, euren artean lankidetzan arituko direnak.

Saltoki bakoitzaren helburu nagusia da bezeroa erakarri eta bertan erosten jarraituko duela ziurtatzea. Eta horretarako balio du programa horrek, saltoki bakoitza berebizikoa izateko. Era berean, bezeroa zaindu beharko du, esperientzia bat eskaini beharko dio saltokira doan bakoitzean.

Bi urteko lana

Programa aurtan abiatu bada ere, duela urte bi jarri zuten martxan proiektu pilotu baten bitartez, non alderdi ezberdinak sustatzen dituen: pertsonak, saltokiak, produktuak eta komunikazioa. Lau faktore horiek ondo kudeatzen badira, salto-

kiari balioa gehi dakiokela diote bultzatzaileek.

Metodologiaren gainean

Programa horren metodologia-ren barruan, hainbat pauso jarraitu behar dira: lehendabizi, saltokiak programan parte hartuko duela onartu behar du, eta, ondoren, saltokiaren beraren diagnosiari ekingo zaio. Horretarako, "ikusezin bezeroa" erabiliko da; hau da, bezero batek saltokian produktu bat erosi edota itzuli egingo du. Salmentan horretan jaso duen arreta, dendaren txukuntasuna, dendaren eta dendariaren arteko koherentzia, eta abar baloratuko ditu bezero horrek. Balorazio horretatik, saltokiaren alde positiboak eta hobetu beharrekoak azalduko dira, eta, ondoren, hobetzeko akzio planari ekingo zaio.

Plana bi zatitan

Plan horrek bi zati ditu: alde batetik, beste saltokien ardura-dunekin elkartzeko dira aholku zein gomendioak jasotzeko –24-26 orduz hainbat astetan zehar–; eta, bestetik, saltoki bakoitzak bost orduko aholkularitza izango du. Behin fase guztiak pasa-

ta, saltokiek *Singular dendak* izendapena hartuko dute. Horretaz guztiaz Gipuzkoako Merkataritza Federazioa arduratuko da.

Programan parte hartu nahi dutenak astebeteko epea izango dute erabakitzeko sarean sartuko diren edo ez. Datorren astean, Oñatin aurkeztuko dute.

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Eskolako liburuak eta espanyolizazioa

Nire lanagatik ondo ezagutzen ditut gaztetxoek erabiltzen dituzten eskolako testuliburuak, eta behin baino gehiagotan amaitu dut haserre bertan irakurri ditudanengatik eta irakurri ez ditudanengatik. Ikastolen Elkartekoak ez diren testuliburuak –hauek ere Espainiako marko instituzionala azpimarratzen duten arren–, egundoko espanyolizazio tresnak dira.

Euskal Herriaren historia, kultura, mapa edo erreferentziarik ez da agertzen, Euskara ikasgaitik kanpo. Historiari dagokionez, Euskal Herriko gertakari esanguratsu bakar bat ere ez da agertzen. Espainiako –eta EAEko?– Historia, Geografia eta Gizarte Zientziak bakarrik irakasten dituzten testuliburuak aukeratzen dira eskola publikoan. Nola da posible *Euskal* Eskola Publikoa dela dioen sarean aukeratutako argitaletxeak Anaya edo Santillana madrildarrak izatea, inolako ardurarik erakusten ez dutenak Euskal Herriaren errealitatearekiko? Nolatan gabilta euren herria ezagutzen ez duten ikasleak hezten? Norena da EAEko Eskola Publikoko curriculumaren eta materialen erantzukizun politikoa? Baietz igarri!

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Uztailak 15 | 2017 |



Antolatzailea:	ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN	Laguntzailea:	ibai-arte
	■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila		Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.




Arrasateko Udaleko eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioko ordezkariak. ANE VITORIA

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



1920. urte inguruan, langileak Union Cerrajeratik irteten. Kaleratutako langileetako asko irudi horretan egongo dira. 'AMA CERRAJERA' LIBURUA

Xabi Gorostidi ARRASATE

1936ko kolpe militarrek eragin nabaria izan zuen Arrasaten, orokorrean, baina lan alorrean ere ondorio latzak izan zituen herritar askorentzat.

Union Cerrajera zen orduan herriko motor enpresariala, eta gizon eta emakume askok egiten zuten bertan lan.

Garbiketa ideologikoa

Lantegiko zuzendariak erregimen frankistaren aldekoak ziren, eta gerra zibila "aitzakia-tzat" hartu zuten enpresan "garbiketa ideologikoa" egin ahal izateko.

"Aipatu beharra dago bi urte lehenago 1934ko greba iraultzailea izan zela Arrasaten. Hogeita lau ordu iraun zuen altxamendu hartan, langileek herriaren agintea hartu zuten indarrez; injustizia borrokatzeko eta errepublika soziala aldarrikatzeko. Dirua abolitu egin zuten eta lantegiko agintari ziren Marcelino Oreja eta Dagoberto Restas hila egin zituzten. Altxamendu hartan Union Cerrajerako hainbat langilek hartu zuten parte eta horietako 100 kaleratu zituzten".

Langileen %60 kalera

Gerra hasi zenean 1.146 langile zeuden Union Cerrajeran. Horietatik 139k euren burua aurkeztu zuten uztaileko kolpe militarari erresistentzia egiteko. Beste askok, aldiz, Bizkai alde-ara egin zuten ihes.

Gerraren erruz lanpostua galdu

Union Cerrajera enpresak langileen erdia baino gehiago kaleratu zituen gerra zibilaren eraginez. 1936ko urriaren 1ean enpresan aurkeztu ez ziren horiei borondatezko baja eman zieten, gerran borrokatzen edo bertatik ihesi zeudela

"Enpresako zuzendaritzak tes-tuinguru nahasi hura baliatu zuen ezkerrekoak edo abertzaleak ziren langileak enpresatik kanpo uzteko", azaldu du Garaik.

Hala, urriaren 1ean, tropa faxistak Arrasaten sartu eta as-tebete eskasera, lanera agertu ez ziren langile guztiei boron-datezko baja eman zieten. Horren eraginez, 696 langile kaleratuak izan ziren, tartean 94 emakume, eta horietatik 73 berriz onartu zituzten, 1937tik 1957ra bitartean.

Bidalitakoen artean, 40 eta 60 urteko aniztasuna zuten langileak zeuden, baita sendi bereko

hiru eta lau kide zituzten hainbat familia; kaleratuen izenak *www.intxorta.org* webgunean daude ikusgai.

Ostean, Cerrajeran lan egiteko baldintzak zorrotz egin ziren. Lan erregistroaren oniritzia beharrezkoa zen langile bat kontratatzeko eta *Oficina de colocación* izeneko organoak langileen profil ideologikoa aztertzen zuen. Ideia nazionalistak edo errepublikanoak zituztenak kanpo geratzen ziren, *Arrasate 1936, Belaunaldi etena* liburua jasotzen duenez.

Kaleratuek hiru aukera

Gose garaiak ziren, eta egoera larri hartan hiru irtenbide aurkitu zituzten kaleratuak izan zirenek. "Batzuek Eibarrera, Zumarragara edo Lakuntzara joan behar izan zuten lana bilatzera, eta beste batzuk herriko

enpresa batzuetan onartu zituzten". Kaleratuak hartu zituzten enpresetariko batzuk hauek izan ziren: ASAM, Industrias Mondragonesas *La Cucharera*, ELMA eta Carmetal inprenta.

Hirugarren aukera, aldiz, gaur egun hainbeste entzuten den ekintzailetasuna aintzat hartu, eta euren enpresa propioa sortzea izan zen. Kaleratze horien eraginez sortu ziren, besteak beste, Magdalena Osla, Feliciano Aranzabal –gaur egungo IFAM]– Industrias Gabai, Balanzas Mondragonesas, Pablo

LANGILEEN %60 KALERATUTA, APRENDIZEN ESKOLA SORTU ZUTEN HUTSUNEA BETETZEKO

XIX. mendetik lanean, baina kaleratuak

50 eta 60 urte artean

- Tiburcio Echaurre Garay (60 urte)
- Cayetano Unamuno Unamuno (55 urte)

40 eta 50 urte artean

- Pedro Eraña Urien (46 urte)
- Eulogio Uribesalgo Marcaide (46 urte)
- Francisco Jauregui Legaristi (45 urte)
- Ignacio Fuldain Abarrategui (43 urte)
- Casimiro Mondragon Elorza (40 urte)
- Francisco Azcarraga Berecibar (urte)

30 eta 40 urte artean

- Pedro Arabaolaza Arregui (39 urte)
- Rufina Garay Zubizarreta (38 urte)
- Eugenio Mondragon Aranzabal (38 urte)
- Jose Antonio Berecibar Altuna (37 urte)
- Domingo Ceciaga Olalde (37 urte)
- Vicente Ceciaga Olalde (36 urte)

Kerejeta eta Industrias Ansoategi, besteak beste.

"Aipatu beharra dago adinudnak ziren langileetako askok lan fisikoak eta gogorrak hartu behar izan zituztela, bizitzako azken urteak egoera latzean pasatuz".

Hutsunea estaltzeko, eskola

Kaleratuetao asko langile kualifikatuak ziren, eta, haien hutsunea estaltzeko, zuzendari-ek Aprendizen Eskola sortu zuten. "Langile ezkertiarren aspaldiko eskakizun bat zen eskola. Baina orduko lantegiko arduradunek zioten moduan, 'familia oneko' semeentzat egin zuten. Era horretan, lantegitik kaleratutakoen semeek ere zigorra jaso zuten".

Eskolan sartzeko beharrezko baldintza zen langileen seme izatea, eta ez zen emakumerik onartzen.



Pilotariak, eskuz binakako partiduan. LARRABETZUTIK.ORG

Emakumezkoei pilotan hasteko gonbidapena

Arrasate Pilota Taldeko zuzendaritzak emakumezkoei pilota zabaltzea du helburu: "Irailean taldea sortu gurako genuke, kirol hau gertutik ezagutu dezaten, euren erritmora. Geroago eta emakumezko gehiago dabilta pilotan", adierazi du klubak

Xabier Urzelai ARRASATE

"Azken urteotan emakumezkoen eskuzko pilota gorakada izugarria bizitzen ari da. Esku pilotan aritzen den nesken kopurua asko ari da handitzen eta geroago eta txapelketa gehiago antolatzen dituzte euredako", adierazi du Arrasate Pilota Taldeak. Eta joera positibo horren aurrean euren ere aurrerapausoa ematea erabaki dute: "Uste dugu esku-pilota ez dela gizonezkoen kirola soilik, eta kirol honetan emakumeek ere zeresan handia dutela. Hori horrela, irailean hasiko den denboraldira begira Arrasate Pilota Taldean eskuz aritzeko prest dauden nesken talde bat sortzea gustatuko litzai- guke".

Taldea sortzea, lehen pausoa

Pilota taldeko lagun- asmoe da, lehenengo, taldea sortzea: "Eta poliki-poliki joan daitezela kirol hau ezagutzen. Adin-ak ez du garrantzirik, edozein adine- tako neskek edo emakumeek

eman dezakete izena eta astean ordubeteko saio bat edo bi egin- go lituzke. Betiere, pilota bigunarekin. Ez dugu gutxiene- ko pilota mailarik eskatzen, etor- daitezela guregana, beste barik".

Entrenamenduak irailean hasi- ko lituzkete, baina, posible den neurrian, komeni zaie in- teresatu- en zerranda uztail- ean bertan egitea, iraileko ordutegi- ak zehazten joateko. Hala, pilota gertutik probatu gura duenak idatz dezala posta elektroniko bat *arrasate.pilota@gmail.com* helbidera, eta, ondoren, kluba jarriko da harekin harreman- e- tan: "Dagoeneko guraso batzuen mezuak jaso ditugu; ea talde- txoa sortzeko kapaz garen".

IRAILEAN HASIKO LITUZKETE ENTRENAMENDUAK, ASTEAN BEHIN EDO BIRRITAN

Emakumeak pilotan

Aste gutxi pasa dira Euskal Herri mailan antolatutako Emakume Master Cup txapelketa jokatu dutenetik. Txapelketak sekulako arrakasta izan du –nazioartetik etorri dira pilotariak– eta Zornotzan jokaturako final- etan jendetza batu zen harmail- etan.

Emakumezkoen pilotaren gaineko gorakada horri jarraipena emateko hasi ziren jokatz- en Añorga- n, maiatzean, Binakako Emakumezkoen Pilota Txapelketa, eta domekan izango dira finalak. Emakumezkoen pilota poliki-poliki gorakada doala erakusteko bi adibide dira.



Eneko Carrascal, podiumean. GOIENA

Eneko Carrascal motorrak berotzen dabil Italiara begira

Espainiako Txapelketa irabazi du junior mailan, 15,33ko saltoa eginda; Ibai Fernandez laugarren 100 metrokoan

X.U. ARRASATE

Carrascalek urrezko domina lortu du jauzi hirukoitzean 15,33 metroko jauzia eginda –bigarrene- baino 2 zentimetro gehiago salto eginda–. Lehia estua izan zuten lehenengo hirurek, sei zentimetroko diferentzia baino ez zuten izan eta. Hala, datorren astean Italian egingo duten Euro- pako Txapelketarako motorrak berotzen dabil Carrascal, gor- putzaldi onean iritsiko da hi- tzordura.

Ibai Fernandezek, berriz, lau- garren postua eskuratu zuen 100 metroko lasterketan, eta

gainera, ehunen gutxi batzuk ondu zuen bere marka pertso- nala (10.81).

Poloniako finalak, zapatuan

Erredakioa itxi orduko –eguen eguerdia–, Polonian Europako Txapelketan dauden Istar Da- penak eta Malen Ruiz de Azuak ez dute txapelketa hasi. Final- e- rako sailkatzen badira, zapatuan 17:20an hasiko da emakumezkoen pertika saltoko saioa, eta gizo- nezkoena ordu batzuk geroago, 20:50ean. Gipuzkoako Txapelke- tan, azkenik, Maialen Axpe 4,20ko markaren bila joango da.

Eguaztenean, uztailak 19, Eibar eta Barakaldo Atxabalpen

Mondrak eta Arrasateko Udalak lagunarteko futbol partidua antolatu dute; sarrerak dagoeneko salgai daude

X.U. ARETXABALETA

Eibarrek Atxabalpeko kirol in- stalazioak erabili ahal izateko hitzartuta du urtean lagunarte- ko partidua jokatu behar du- la, eta, hain zuzen ere, uztailaren 19a (19:00) aukeratu dute horre- tarako. Hala, talde gonbidatua Bigarren B mailako Barakaldo izango da, eta dagoeneko salgai daude partidua horretarako sa- rrerak –Ziorla eta Monte taber- netan–.

Prezioei dagokienez, sarrerak aurrez erosita 8 euro balioko du –gazteek, 6-16 urte bitartekoek,

3 euro–, eta partidua- ren egunean Atxabalpeko leihatilan 10 euro ordaindu behar- ko dira –gazte- n- dako sarrera hor ere 3 eurokoa izango da–.

Denboraldi-aurrean murgilduta

Eibarrek ez du erronka makala, aurt- en Europarako sailkatze- ko borrokan ibili da- eta, nahiz eta sailkapenaren erdialdean ama- tu duen –aste barruan hasi di- tuzte entrenamendu saioak–. Armaginen lehenengo helburu nagusia, baina, kategoriari eus- tea izango da.



Margolan baten argazkia. WWW.PEXELS.COM

Artesturak Feministak erakusketa ibiltaria

2016an sortutako Emakumeen Etxeen Sareak Artesturak Feministak lehiaketa antolatu du. Horren helburua emakumeen sormena eta produkzio artistiko feminista bultzatzea da; baita ikusgarri egitea eta aintzat hartzea emakume horien lanak

Ane Vitoria ARRASATE
Artea sustatzen duen lehiaketa horren helburua artea sortzen ari diren emakumeak ezagutzera ematea da, artea lanbidea izan edo ez izan. Horretarako, erakusketa ibiltaria egingo dute, zeina emakumeen etxeen sare guztietatik pasako den. Izan ere, emakume etxeak espazio feministak

dira, parte hartzea bultzatzeko sortu dituztenak. Horiek topalekuak dira; hain zuzen, leku erreferenteak udalerrian, ahalduntze prozesuak eta programak dinamizatu eta bideratzeko balio dutenak, banakakoa zein kolektiboa izan. Bada, Arrasateko Emakume Txokoa da Emakumeen Etxeen Sareen kide.

Sarearen jatorria
Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeen Sarea 2016an sortu zen, eta horren helburu nagusia emakumeen etxeen proiektua indartzea da. Horrekin batera, proiektua ikusgarri egitea zein bultzatzea bilatzen du. Horretarako, printzipio komun batzuetatik abiatzen da sarea, hala nola emakumei berezko espazio

bat eskaintzea, haien parte-hartze sozial eta politikoa sustatzea politika publikoetan parte har dezaten eta laguntza zein elkartasun sareak sortzea. Baita haien ahalduntzea sustatzea ere, banakakoa nahiz kolektiboa izan. Joan den urtean, sare horrek proiektu bateratu bat jarri zuen martxan: Testura izeneko bertso saio bat, hain zuzen ere. Eta hura udalerrri guztietan programatu zen. Aurren, aldiz, Artesturak Feministak lehiaketari ekin dio sareak.

Aurten lehiaketa
Lehiaketa horretara aurkezten diren lan guztien artean, kalitate artistiko handienak dituzten lanak aukeratu dira. Eta aintzat hartuko dira Emakumeen Etxeen Sarearen filosofia eta helburuak ondoen agertzen dituzten artelanak. Hori izango da azken lanak aukeratzeko irizpidea, eta, horren arabera, sariak banatu dira. Lehiaketa horretan, 400 euroko zortzi sari banatu dira; baita 200 euroko zortzi aipamen berezi. Esan behar da irailaren 29a izango dela lehiaketa horretan parte hartzeko azken eguna. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 18 urtetik gorako edozein emakumek har dezake parte Artesturak Feministak lehiaketan. Emakumei bideratutakoa da honako hau, estrategikotzat jotzen baita emakumeek egindako sormen eta produkzio artistikoa sustatzea.

Lehiaketaren baldintzak
Esan bezala, 18 urtetik gorako edozein emakumek har dezake parte lehiaketan, eta aurkeztuko duen lana banakakoa zein taldean aurkeztutakoa izan daiteke. Artesturak Feministan, ikus-entzunezkoak izan ezik, edozein adierazpen artistiko onartuko dira,

hala nola marrazkiak, diseinu grafikoko lanak, margolanak, eskulturak, zeramikak, komikiak, eta abar. Kasuan-kasuan, lan guztiek jatorrizkoak izan behar dute, aurrez argitaratu gabeak, eta ezingo dira beste lan batzuen kopia izan. Gainera, proposamenek lehiaketaren helburuarekin bat egin beharko dute, eta, bereziki, emakumeen etxeen filosofia eta balioak islatu beharko dituzte.

Lehiaketan parte hartuko duten arrasatearrek Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte euren lanak.

Kontuan hartuko direnak
Lanen balorazioari dagokionez, irizpide hauek hartuko ditu kontuan epaimahaia: lan proposamenek emakumeen etxeen nortasuna eta balio horiek adieraziko dituztela, feminismoaren aldarrikapenarekin bat egingo dutela eta lanaren beraren originaltasuna eta berrikuntza. Epaimahaia hiru berdintasun teknikariz, bi arte adituz eta emakumeen mugimenduko eta mugimendu feministako bi ordekariz osatuko da. Eta lanak aurkeztu eta 30 eguneko epean adieraziko du erabakia. Udalerrri bakoitzak sari eta aipamen berezi lana kudeatuko du. Emakumeen Etxeen Sareak erakusketa ibiltaria antolatuko du, lehiaketa horretan aukeratuak izango diren lan guztiak erakusteko asmoz.

EMAKUMEEK SORTUTAKO LANAK IKUSGARRI EGITEA ETA AINTZAT HARTZEA DA HELBURU NAGUSIA

Antzerki iraultzailea izango da Hortzmuga Teatroaren eskutik

Mugimendu iraultzailea gaitzat duen 'Femmes' izeneko ikuskizuna eskainiko du domeka arratsaldean

A.V. ARRASATE
Lau atso sumindu, lau amona iraultzaile; horiek dira *Femmes* antzeztelaren protagonista nagusiak. Emakume aldarrikatzaileak dira horiek, gizartearen desilusio, atsekabe eta nahiga-

bearekin ohartuta daudenak. Egoera horren aurrean, euren aldarrikapena egingo dute iraultzaren bitartez. Hedabideetan zein kalean ikusten dutena oinarri izango da euren iraultza egiteko. Bada,

zigor bidea euren esku hartuko dute, eta, horretarako, mugimendu berri bat sortuko dute; oldarkortasunezko metodo zentzugabeen eta protesta erabat desagokien bitartez sortua dena. Lau amona horientzat, eurek sortutako mugimendua mundua iratzarriko duen mugimendua izango da. Gai iraultzailea lantzen duen eta Hortzmuga Teatroaren eskutik datorren antzeztelan hori ikusteko aukera domeka, arratsaldeko zortzietan izango da Seber Altube plazan.



Femmes ikuskizuna. TOPSY.ONE

Helduentzako ipuinak entzungai izango dira Irati tabernan

Oso ohikoa ez bada ere, gaur, helduek ipuinak entzuteko aukera izango dute. Horiek Dorleta Kortazarrek eskainiko ditu, 22:00etan, Irati tabernan. Izan ere, tabernaren itxura aldatzea dela eta, ateak itxi aurretik, uztailaren 26an, hain zuzen ere, hainbat ekintza antolatu ditu; eta, hain zuzen ere, horietako bat da gaurkoa.

Zatoz zinemarik onenak ezagutzera

10 areto | 2.000 besaulki

CINES GORBEIA ZINEMAK

DOLBY ATMOS™ ESPERIENTZIA BERRIA

ESTREINALDIAK

IKUSGAI

BABY DRIVER

EL HOMBRE DEL CORAZÓN DE HIERRO

GRU 3

LLEGA DE NOCHE

SEÑOR, DAME PACIENCIA

UN DON EXCEPCIONAL

WONDER WOMAN



Juane Madinabeitia, 2001ean.



Hainbat kanpai-jole Otala Zelain, 2008an. ARGAZKIAK: JUANE ARIENTZAKO KANPAI-JOLE ESKOLA



Eskolako egungo kideak Mendiolan, aurtengo sanjuanetan.



Madinabeitia, aurtlen Olaztin.

Kanpaien doinuen inguruan hamar urte

Juane Arientzako kanpai-jole eskolak hamar urte bete ditu. Horren bueltan elkartutakoek asko ikasi dute urteotan, eta lagun asko egin ere bai. Urteurrena irailaren 2an ospatuko dute, Areantza auzoan, ekitaldi berezia eginda

Mirari Altube ARETXABALETA

Hamar urte baino gehiago pasatu dira Areantza auzoko hainbat lagunek kanpaien gaineko interesa agertu eta zerbait egitea erabaki zutenetik: "Juane Madinabeitia kanpai-jole handia zen eta haren joaldi guztiak gra-

batzea erabaki genuen", azaldu du Julen Abasolok, eskolako kideak. Grabazio hori, baina, nahikoa irudituz ez, eta Gorka Madinabeitiarekin batera, eskola sortzea erabaki zuen: "Artemanen laguntzarekin karaoke antzeko sistema bat asmatu ge-

nuen jotzen ikasteko. Eta material hori izan zen geu ere ikasten hasteko abiapuntua". Inguruko auzoetako bizilagunak gonbidatu eta hamabi bat lagun elkartu ziren orduan: Larrinon entzutea guztiak ondo eta koordinatuta... Arrasateko irra-

gabiltza, eta aurtlen, gazte bat ere arrimatu zaigu", dio Abasolok. Eskola hori da Juane Arientzako kanpai-jole eskola, hain zuzen ere lehenengo irakasle izan zuten haren omenez.

Bizipen esanguratsuak

Bizipen asko izan dituzte eta lagun asko ezagutu hamar urteotan. "Guk egindako DVD hori erabat berritzailea izan zen. Interes handia sortu zuen eta ate asko zabaldu zizkigun. Lehenengo irteera Saguntora egin genuen; hain zuzen, horren berri emateko. Izan ere, Valentzian afizio handia dago", dio Madinabeitiak.

Abasolok, lehen urteko entsegu egunak ditu gogoan, hamabi lagun haiek kanpaiaren bueltan bat egiten zutenekoa: "Astelehen iluntzetan elkartzen ginen Areantzako kanpandorrean, giro oso polita izaten genuen. Eta luza-roan egin genuen lan". Jendaurreko lehen agerraldia 2008ko Otalai Zelai egunean egin zuten. Kanpai mugikor bat eraman zuten hara, eta hainbat lekutako lagunak elkartu ziren: "Ara-barrak, nafarrak, Oiartzungoak... Publiko aurrean egindako lehenengo izateko benetan dotorea izan zen", diote biek.

Handik hiru urtera, 2011n, hilabete osoko jardunaldiak antolatu zituzten: erakusketa, hitzaldiak... "Baina garrantzitsuen bost auzotan batera egin genuen joaldia izan zen, Larrinotik guztiak entzuteko. 200 bat lagun elkartu ziren han, asko kanpaien munduarekin inolako zerikusirik ez zutenak", dio Abasolok, eta gaineratu du Madinabeitiak: "Horren atzean egon zen lana inork ez daki, bost auzotako kanpandorrean jo eta Larri-

non entzutea guztiak ondo eta koordinatuta... Arrasateko irra-

ti zaleen laguntza izan genuen horretarako". Iaz, ostera, argazki lehiaketa antolatu zuten, eta horrekin ere pozik daude 123 argazki jaso zituztelako: "Zaila dena da mundu horrekin zerikusirik ez duena erakartzea. Horregatik beti saiatu gara ekin-tza originalak eta bereziak egiten", adierazi du Madinabeitiak.

Irteera asko

Egubakoitz guztietan elkartzen dira, orain ere Areantzán. "Geure doinuak jotzen ditugu lehenengo eta gero, berriak, kanpoan entzundakoak eta ikasitakoak", diote. Eta ikasitako hori erakusten jarraitzen dute. Dagoeneko hainbat irteera egin dituzte aurtlen ere: Ezkaraira; Olaztira (Nafarroako kanpai-joleen bilkura); Añuara (Araba); Espinosa de los Monteros (Burgos)... Eta inguruko auzo eta herriakotako jaietan ere jotzen dituzte, besteak beste, Mendiolan sanjuanetan, Eskoriatzan sanpedrotan eta Andramaietan ere izango dira. "Iaz Donostiako Tabakaleran ere jo genituen bi egunetan, *Ezordua* izeneko jardunaldi batzuen barruan". Eta joandako leku guztietan saiatzeko dira kanpandorreak ezagutzen, kanpai-joleekin egoten, haien istorioak jasotzen...

Madinabeitiak argi dauka afizioa ez galtzeko zer egin beharko litzatekeen: "Kanpaiak jotzen utzi egin behar zaio jendeari, orduz kanpo, gura denean... Utzi gustua hartzen eta afizioa sortzen".


Ospakizuna irailaren 2an

Irailaren 2a jarri dute urteurrena ospatzeko data: "Areantzán izango da. Oraindik ez dugu guztia zehaztuta, baina kanpai-joaldi musikatua edo antzetzua izango dela bai, eta jole asko gonbidatuko ditugu".

Andramaietako kartela gertu

Lexuri Doyague arrasatearraren kartelak iragarriko ditu Andramaiak. Sei lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara eta epaimahaiak erabaki du saria Doyaguere ematea; 300 euro jasoko ditu horrek. Hain zuzen, iazkoa ere berak egin zuen.

Herriko jai nagusiaren egitarauaren berri datorren astean emango du Kultura Sailak.



LEXURI DOYAGUE



Gu Haziak Gara elkarteko eta Basotxoko kideak Errekabarren kalean murla margotzen. MIRARI ALTUBE

Afektua eta harremanak herritarren begi-bistara

Gu Haziak Gara elkarteko kideak Basotxoko erretiratuekin batera murla margotzen dabilta Errekabarren kalean. Hainbat artista eta herritar elkartu dira, nagusiak, gazteak eta umeak, eta ilusio handiarekin dihardute lanean azken asteotan

Mirari Altube ARETXABALETA

Gu Haziak Gara elkartekoen ekimena da Errekabarren kaleko murla. Herrian egin duten bigarren lana da eta Basotxo-koengana jo dute oraingoan elkarlanean jarduteko: "Iaz Ilargi plazan egindakoarekin oso gustura geratu ginen. Giro ona izan genuen eta herritarren gustuko izan zen. Horregatik animatu gara bigarrena egitera", jakinarazi du Paloma Martinez kideak. Orduan, baina, batez ere umeekin jardun zuten lanean, eta nagusi batzuk margotzeko gogoz geratu ziren. Horregatik erabaki dute erretiratuekin egitea orain: "Batetik, gogo handia dutelako, bestetik, denbora, eta gainera, herriari esateko asko dutelako", dio Martinezek.

Eskuak eta begirada

Basotxora jo eta gaia erabakitzeko galdeketa egin zuten erretiratuen artean. Hainbat kontu atera ziren batzarretan eta guztien artean bi hautatu zituzten:

"Afektua eta harremanak. Eta horiek zelan irudikatu pentsatu genuen ondoren". Marrazteko orduan hainbat artistek hartu dute parte Izaro Sanchez aretxabalearrak eta Joana Mantzisoro grafitigile arrasatearrak besteak beste; hormako zirriborroa hain zuzen Sanchezek egin du. "Lehen irudian bi esku irudikatu ditugu, bata nagusi batena eta bestea umearena; bigarrenean, amama baten eta ume baten arteko maitasun keinua; hirugarrenean bi nagusiren arteko begirada; eta azkenekoan, aitaita bat eta iloba bat jolasean".

Ilargi plazan, iaz, marraztutako irudi batzuk oraingoan ere errepikatuko dituzte: "Txoriak eta zirkuluak berriro margotuko ditugu, lotura mantentze aldera", jakinarazi du Sanchez marrazkilariak.

BI ESKU, BEGIRADA BAT, MAITASUN KEINUA ETA JOLAS MOMETUA IRUDIKATUKO DITUZTE

Basotxokoak pozik daude eta Gu Haziak elkarteak ere bai: "Oraindik ez badugu bukatu ere, oso pozik gaude; herriko leku estrategikoan dago eta jende asko gerturatzen dabil interesa agertuz", adierazi du Martinezek.

Margolana uztailarekin batera bukatzea zuten pentsatuta, baina martxa onean doa eta aurretik izango dute gertu.

NIRE USTEZ
AINHIZE BARRAINKUA

Tabu

Ezein esparrutako hizketaldi baten hilerokoa hizpide dugunetan, maiz egoten da bere aulkian keinu deserosoz mugitzen denik, mintzo duguna nazkagarria dela dioenik, isiltzeko eskatzen digunik.

Izan ere, emakumea emakume denetik, tabu bat izan da –eta da, tamalez, oraindik–. Ezkutukoa, iluna, zikina. Haatik, tabu hitzaren etimologiari dagokionez, "debekua" adierazten duen hitza izanagatik, hainbat tribu polinesiarrek hilerokoa izendatzeko erabili ohi zuten.

Emalegea, orde, biztanleriaren erdia baino gehiagoren errealitatea da, izan da, edota izanen da etorkizunean. Naturaltasunez jardun behar dugu gai honetaz, esperientzia eta aburuak partekatzeko. Hori egin ezean, nekez lortuko dugu zalantzei erantzuna ematea, gure gorputzak (gu geu, bederen) hobeto ezagutzea, gure errealitatea askatasunez bizitzea...

Menstruazioak ezinegona sortzen dien horiei: gure baginen hileroko odol jarioak baino indarkeria matxistak zauritu eta eraildako emakumeek isuritakoak asaldatuko bazintuzte...

Ia 200.000 euroko diru laguntza kiroldegiko konponketendako

Foru Aldundiak eman dio laguntza hori Udalari eta otsailean haizeteak eragindako kalteak ordaintzeko da

M.A. ARETXABALETA

Otsailean izandako haizetearen eraginez, Ibarra kiroldegia izandako kalteak ordaintzeko 199.710 euro emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2017-2020 aldiko Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planaren barruan urtarrean egindako diru laguntza deialdira aurkeztu zuen eskaera Udalak eta orain oniritzia jaso du.

Kiroldegia konponketa lanak dagoeneko eginda daude eta 450.000 euroren bueltako kostua izan dute: "Lanen faktu-

ra guztiak oraindik ez ditugu ordainduta", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

Aldundiaren laguntza horri esker, kiroldegira bideratutako ia 200.000 euro beste kontu batzuetarako erabili ahal izango ditu Udalak: "Oraingoz ez dugu erabaki zertarako erabiliko dugun diru hori. Seguru asko, aurtlen, behintzat, ez da izango kirol azpiegiturendako. Herrian dauden beste behar batzuetarako erabiliko dugu; irisgarritasun arazoak hobetzeko, esaterako", jakinarazi du alkateak.

Herritik pasatuko dira Basagoitira lurra daramaten kamioiak

Deskargako lanak direla-eta handik ateratako lurra Basagoitira ekartzen dute berriro kamioiek, autobidea erabilita. Uda sasoiko irteera operazioa dela-eta aste honetan hasi eta abuztuaren 8a arte herritik pasatuko direla jakinarazi du Udalak. Otolara kaletik sartu eta Untzina martxa onean doa eta aurretik izango dute gertu.

Udalekuen azken astea izango da datorrena

Herrian egiten dabilztan bi udalekuak, irekiak eta kirolari eskaintakoak, azken astean sartuko dira astelehenean. Orain arte egindakoarekin ezin guturago daude neska-mutikoak –ia 350– eta antolatzaileak, eta azken egunok ere ondo aprobe-txatu gura dituzte. Jaialdi bana eginda emango diete bukaera batzuek eta besteak.

Drogen gaia landuko dute UDAko kirolari guztiek

Aretxabaleta kirol elkarteak eta Arrasateko San Juan de Dios ospitaleak hiru urtetako hitzarmena sinatu dute "jokalarien bizitza osasuntsuaren alde" lan egiteko. Elkarteko kirolari guztiek, hezitzaileek, gurasoek eta zuzendaritzako kideek hartuko dute parte

Mirari Altube ARETXABALETA

Atzo sinatu zuten UDAk eta San Juan de Dios ospitaleko kideek elkarrekin jarduteko hitzarmena, eta irail-urria bitartean buru-belarri helduko diote egitasmoari: "2015-2020 plan estrategikoa" lau balio erantsiko dizkiogu: pertsonak, euskara, kirola eta osasuna. Hau horren barruan dago", jakinarazi du Agurtzane Elkorok, UDAko presidentek.

Arrasaten dagoen ospitalean drogen gaia lantzen dihardute-la gaztetxoekin jakin zuen UDAk, eta kontu horrekin kezkatuta haiengana jo zuten: "Herriko agente garrantzitsuenetakoa gara; izan ere, 500 kirolaritik gora ditugu, 1.000 guraso, 900 bazkide inguru... Eta argi geneukan gai honi heldu beharra geneukala".

U@DA jarri diote izena proiektuari: Nerabezaroan Drogen Aurka Elkarturik (United Against Drugs Adolescence). Hiru urterako da eta jokalarri, guraso, hezitzaile eta zuzendaritzako kideek hartuko dute parte.

Kasu errealak talde-lanerako gai

"Datu ofizialek diote 25 adingabetik lauk buruko gaitzen ospitale batera joko dutela bizitzan zehar, eta lau horietatik bat drogen kontsumoagatik izango dela", jakinarazi du Emilio Martinek, San Juan de Dios ospitaleko psikologo klinikoak, eta gaineratu du: "Zenbat eta gaztetxo gehiagorengana iritsi, hainbat eta gutxiagok izango du arazo bat drogekin. Horregatik txalotzekoa da UDAk egingo duen ahalegina". Martinekin batera Olaia Arrese, Raul Blazquez eta Silvia Saiz daude ospitaleko lantalde horretan.

Talde-lana izango da egitasmoaren ardatza, eta talde horietan elkartuko dira kirolariak, gurasoak, hezitzaileak, zuzendaritzako kideak eta ospitaleko



UDAKo eta San Juan Dios ospitaleko ordezkariak Ibarra futbol zelaian. MIRARI ALTUBE

pazienteak. Kasu errealak aztertuko dituzte horietan. 15 eta 16 urte artekoak, gainera, begirale izateko hezikiko dituzte. "Gaztetxoagoekin, 12 eta 14 urte artekoekin, lan egingo dute begirale lez. 9 eta 11 urte artekoekin, ostera, era ludikoagoan landuko dugu gaia. Gure helburua da arrisku adinetara iristen direnerako kontzientzia lana egingako gero eta gazte gehiago izatea. ldo horretatik, erabakiak hartzen ikasi behar dute", dio Martinek. Helduekin ere egingo dituzte saioak.

Beste hiru proiektu

"Datorren denboraldian 530 bat neska-mutiko izango ditu UDAk eta lau balio horiekin hezi gura ditugu. Horretarako, lau proiektu jarri diot izena. Protagonista gizon ezkondua da, kooperatiban sartuko da... Baina irakurri egin

Futbola nagusi izan arren kirol elkartean, ezin ahaztu gainerako sailak, eta zuzendaritzako kideek horiek ere baliolan jarri gura dituzte bakoitzaren-dako helburuak zehaztuta.

Sailen helburuak

Futbola ez den beste kirol sailen helburuak.

Areto futbol

- Liga Nazionalera igo berri, mailari eustea.

Gimnasia erritmikoa

- 48 kirolari dituen taldea sendotzea eta bultzatzea.

Karatea

- Orain arte lege, emaitza onekin jarraitzea.

Pilota

- Gero eta pilotari gehiago dituen taldea sendotzea.

Emakumeen futbola

- Leintz Arizmendi talde berria finkatzea eta emakumeen futbola bultzatzea.

Txirrindularitza

- Irailean bigarrenez egingo den mendi bizikleta marxa indartzea.
- Emakumeen Bira antolatzea 2018an.

"Honi esker kuadrillako batek lehen liburua irakurri du"

LUIS JOSE ERRASTI IDAZLEA

Lehenengo eleberria argitaratu du oraintsu, 'Altruista'

M.A. ARETXABALETA

Erretiratur dago Luis Jose Errasti (Aretxabaleta, 1945) eta orain idazle lanetan dihardu. Aurtun argitaratu duen *Altruista* da haren lehen eleberria.

Zelan sortu da *Altruista*?

Erretiratu ostean Humanitate ikasketak hasi nituen unibertsitatean, Gasteizen, beste lagun batzuekin batera. Lau lagun joan izan gara hara, baina horietako batek huts asko egiten zituen, eta behin, esan nion: "Hi haiz hi parrandazalea". Eta haren erantzuna: "Parrandazalea, jokalaria eta emakumezalea!". Hortik abiatuta idatzi dut liburua.

Zeresan handia ematen dabiltzan gaiak landu dituzu: ustelkeria, kooperatibak...

Bai, gai horiek eta gehiago nahastu ditut. Samur idatzi dut eta oso gustura, gainera. Bi hilabetean bukatuta nuen.

Gertuko tokiak eta kontuak (Antxustegi, UDA...) aipatzen dituzu.

Bai, bai, Aretxabaletako eta Gipuzkoako parajeak, batez ere, eta gertuko kontuak.

Fikzioa da guztia edo benetan gertatutakoak ere jaso dituzu?

Guztia da fikzioa, ez dago ezer erreala.

Jokin da eleberriko protagonista; kontatu, zein da Jokin?

Lehen aipatu dut lagun parrandazalea dudala, Joaquín da bera, eta haren omenez nik Jokin jarri diot izena. Protagonista gizon ezkondua da, kooperatiban sartuko da... Baina irakurri egin



Luis Jose Errasti. M.A.

behar da! Izenburuarekin esan nahi izan dut borondate onarekin sartu politikan, gero kontu zikinetan nahastu, eta, hala ere, altruismoz jokatzen dabiltzala uste dutela askok.

Irakurri dutenen aldetik zer jaso duzu?

Oso samur eta gustura irakurri dutela esan didate. Pentsa, kuadrillako batek sekula ere irakurri barik zuen liburu bat eta hau, behintzat, irakurri du.

Hortaz, ni pozik nago.

Beste libururik baduzu buruan?

Bai, beste hiru! Bata da honen bigarren zatia, eta beste biak, beste gai batzuen gainekoak.

Baina orain zuri geratu zait burua, eta atsedean hartuko dut, behintzat, abuztu artean.

Eta non eros daiteke *Altruista*?

Herriko estankotetan eta Kioskoan, baita Eskoriatzako liburu-dendan ere.

Andoni Egaña eta Aitor Mendiluze San Kristobal jaietan

San Kristobal jaiak ospatzen dabilta Larrino auzoan eta bihar, zapatua, bertso afaria egingo dute izen bereko gastronomia elkartean. Punta-puntako bertsolariek egingo diete lagun elkartzen direnei, Andoni Egañak eta Aitor Mendiluzek, hain zuzen ere; hortaz, giro ona ziurtatuta dagoela adierazi dute antolatzaileek.

'Go!azen' ikuskizuna dute gaztetxoek bihar Herriko Plazan

ETBko *Go!azen* telesail arrakastatsuko protagonistek musika eta dantza ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, 19:30ean, Herriko Plazan.

Basakabi udalekuko kideek abestiak irakatsiko dizkiete bertaraten diren neska-mutikoei, baita dantatzeko pausoak ere, eta gero, oholtza gainean elkarrekin jardungo dute.



Eskoriatzako Santa Ana auzoko aparkalekua autoz beteta. IMANOL BELOKI

Adostasun barik, datorren asterako itxita

Martitzenean edo eguaztenean itxiko da Santa Ana auzoko aparkalekua, bertako lurren jabego pribatuaren eta Udalaren artean ez delako adostasunik izan. Bestalde, Huhezín 40 autorentako gunea egiteko proiektua gauzatu nahi du Udalak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Santa Anako aparkalekuaren etorkizunaz asko hitz egin da herrian azken asteetan. Udalak eta bertako lurren jabeek ez dute akordiorik adostu, eta, beraz, itxi egingo da. Herrigunearen erdian dagoen aparkalekua erabilpen handikoa da, 80 apartaleku dituen, eta Udalak alternatiba bilatu du.

Honela azaldu du Udal Gobernu kide Josu Ezkurdiak, Hiritza eta Mugikortasun batzordeburuak: "Lur eremu pribatuko jabeekin akordio batera ez garenez iritsi, datorren astean itxiko dugu. Bi-hiru eguneko epea utzi dugu, bertan dauden autoak ateratzeko, baina martitzenerako edo eguaztenerako itxita izango da".

Proiektu berrian aurrerapausoa Alternatiba gisa, herrian zehar 40 apartaleku egin dituzte, eta Huhezi unibertsitateko Dorleta eraikinaren ondoko belardian beste 40 egin nahi ditu Udalak. "Huheziko jarrera oso ona izan da, eta hainbat eskaera tekniko betetzen baditugu, doan utziko digute lur eremua", azaldu du Ezkurdiak.

Dorletako belardian apartaleku berria

Huheziko belardia unibertsitatearena da, eta adostasun batera iritsi da Udala bertan apartalekua egiteko. Asmoa irailean hitzarmena sinatzea eta obrak urrirako amaituta izatea da, hainbat baldintza betez: oinezkoentzako pasoa uztea, argiztapena jartzea... Lanen kostua, berri, 20.000 eurokoa izango dela aurreikusten dute.



Huheziko unibertsitateko Dorleta eraikinaren ondoko belardia. I.B



Eskoriatzako udalekuetan, uraren egunean. MAIALEN LETE

Bigarren astea amaituta, bikain ari dira pasatzen udalekuetan

Ingeleseko ipuin kontaketa, autobus digitala... Berrikuntzez gain, dantzak berreskuratu dituzte

I.B ESKORIATZA

Laugarren urtez antolatutako udaleku irekietan bikain ari dira pasatzen herriko gaztetxoak. Uztailaren 4an hasitako udalekuak uztailaren 21era arte izango dira, eta aurtun hainbat berrikuntza txertatu dituzte egitarauan.

246 haur ari dira Txirikilla elkarteko 27 begiralerekin, Ainhoa San Miguel eta Maialen Lete koordinatzaileen gidaritzapean, eta Haur Hezkuntzako hiru mailetak eta Lehen Hezkuntzako sei mailetako haurrei, joko eta ekintza ugari prestatu dizkiete. Urtero lez, urarekin

jokoak, hainbat irteera... egiten ari dira; honela azaldu du Maialen Lete koordinatzaileak: "Iaz baino eguraldi hobea egiten ari da, eta haurrak gustura ari dira pasatzen. Aurtun ez dugu San Fermin eguna ospatu, baina berrikuntza ugari ditugu".

Berrikuntzak

Altxorraren Bila erraldoia azken eguneko goizean egingo dute, tonbolaren ordeez, ingelesezko ipuin kontaketa ere izan da Mondragon Linguakoen eskutik, eta, Foru Aldundiak antolatuta, autobus digitalera joango dira hainbat kurtsotako haurrak. Bitxikeria moduan, Haur Hezkuntzako lehen mailan orain arteko talde txikiak izan dute, zortzi ume bakarrik, eta Leixar-garatera joango dira uztailaren 18an bosgarren eta seigarren mailetako gaztetxoak, bertan gaua pasatzera.

Dantzak berreskuratuz

Azken eguneko arratsaldean, azken urteotan dantzak egin izan dituzte haurrek zein begiraleek. Iaz ez zituzten egin begiraleek, baina, aurreko urteetako arrakasta ikusita, horiek berreskuratzea erabaki dute.



Kulunka haurreskolak hamar urte bete ditu

2007tik gaur egunera arte Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako 75 haur pasa dira Kulunka haurreskolatik. Hala, guztiei gonbidapena egin diete gaur 17:00etatik aurrera egingo duten jaialdi handira gertura daitezen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Kulunka haurreskola ireki zeneko 10. urteurrena da, eta gaur ospakizun eguna izango dute bertan; izan ere, jaialdia egingo dute 17:00etatik aurrera. Bertan, gaztelu puzgarria, aurpegia margotzeko tailerra eta luntxa izango dira. Gainera, haurreskolatik pasatu diren haurrek beraien aztarna uzteko aukera izango dute patioko paretan, beraien esku-markak egingo baitituzte murelean.

Naroa Pozueta eta Nerea Elortza hezitzaileek Eskoriatzako haur eskolan sei ume dituzte gaur egun, baina hamar urtetan 75 pasa dira handik; Eskoriatzako 50, Aretxabaletako 21 eta Leintz Gatzagako 4. Hala, jaialdian, denak batzeko asmoa dute, eta, bide batez, datorren urtera begira, Kulunkan eskaintzen duten zerbitzua herritarren artean zabaltzea.

Kulunkan hamar urtetan esperientzia ederra izan dutela azaldu dute hezitzaileek, nahiz eta gogorra izan den: "Esperientzia ederra izan dugu hamar urte hauetan, baina, aldi berean, gogorra izan da. Izan ere, beti egon gara ireki edo ez ireki, umeen kopuruak gorabehera asko izan dituelako", azaldu du Nerea Elortza hezitzaileak.



Kulunkako haurrak Nerea Elortza eta Naroa Pozueta hezitzaileekin. IMANOL BELOKI

Etorkizuna kolokan

Datorren ikasturtera begira, hiru haur izatea beharrezkoa dute, bestela itxi egin liteke Kulunka haurreskola. Honela azaldu du Nerea Elortza hezitzaileak: "Datorren urtera begira, bi ume ditugu, eta zain gaude, beste baten beharra dugulako. Hala, irailera begira, ikusiko dugu Partzuergoak zer erabakitzen duen... Gure asmoa gunea zabalik mantentzea da; horregatik, dei egin nahi diegu herritarrei bertara etortzeko, eta informazioa eskatzeko".

Gurasoen balorazio positiboa

Imanol Andetxaga Kulunkako lehen edizioko gurasoak azaldu duenez: "Seme-alabek 0-1 urte bitarte dituztenean zaila da toki edo du Nerea Elortza hezitzaileak: "Datorren urtera begira, bi ume ditugu, eta zain gaude, beste baten beharra dugulako. Hala, irailera begira, ikusiko dugu Partzuergoak zer erabakitzen duen... Gure asmoa gunea zabalik mantentzea da; horregatik, dei egin nahi diegu herritarrei bertara etortzeko, eta informazioa eskatzeko".

Igor Etxabek, berriz, gaur egun du bere semea Kulunkan, eta bertako baliabideak eta lokala bera ere oso ondo daudela azaldu du: "Iaz sartu zen gure haur txikiena eta bera oso gustura daude, pozik etortzen da etxera".



Kulunka haurreskolako eraikina. I.B



Naroa Pozueta umeekin jolasean. I.B



Gaztekonkis-en laugarren edizioa hasi berri Atxorrotzen egindako proban. IRATXE ARRESE

'Gaztekonkis' aste osoko abentura Leixargaraten

Hainbat proba egin behar izan dituzte Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeek eta ederto pasa dute astea

I.B ESKORIATZA

Laugarren urtez, *Gaztekonkis* abentura egin dute Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztekuetako nerabeek. Martitzenetik gaur arte, Leixargaraten egon dira talde lana eta estrategia sustatu dituzten erronkei erantzuten. Gaur itzuliko dira herriera, 16:30 aldera.

Uztailaren 3tik 7ra bitartean Udaero egitasmoa izan zuten nerabeek; Galarretan paintball saioa, Mutrikuko igerileku naturala arrain arten snorkell egiten... disfrutatuta ostean, abentura gogorra izan dute aste honetan nerabeek *Gaztekonkis* abenturan.

Lau taldetan banatuta

41 nerabek zazpi hezitzailearen gidaritzapean hartu dute parte aste honetako jokoetan, eta proba ezberdinak egiten Leixargarate eta inguruetan aritu dira. Martitzenean abiatu ziren men-

dira, eta lehenengo proba kapa taina bilatzea izan zuten. Lau taldetan banatuta *Saixak, Orkatzak, Basurdiak* eta *Katami-xarrak*-, lan horri ekin zioten, eta, horrekin batera, Leixargaratera bi orduen barruan ailegatu behar izan zuten parte-hartzaileek lehen proba irabazteko.

Laugarrena, proba berriein

Horrela hasita, beste hainbat joko ere izan dituzte bertan. Honela azaldu du Iratxe Arresek, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak: "*Orienting*-a, dastamen proba... bezalakoak egin ditugu, estrategia eta matematika erabili beharrekoak, besteak beste. Probak irabazi arren, euren portaerak ere kontutan hartu ditugu puntuatzeko garaian. Laugarren edizio honetan joko berriak ere jarri dizkiegu, eta gustura aritu direla uste dugu. Hala, abenturaren balorazio positiboa egiten dugu."

Ingelesezkot ipuinak

Astehenean, ingelesezko ipuin kontaketa gozatu ahal izan zuten, Zaldibarren, Lehen Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako haurrek. *Story telling: around the world* saioa izan zuten, Mondragon Linguako Adriana Sanchezek gidatuta, eta hizkuntza irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren alderdi ludikoa sustatzeko egitasmoa izan zen.



I.B

Erritmo gogor eta indartsuz beteta

Errekan Gorako hamargarren edizioaren lehen bi emanaldien arrakastaren ostean, Niña Coyote eta Chico Tornado taldearen kontzertua izango da gaur, 22:30ean, Gernika plazan. Hurrengo astean, uztailaren 21ean, berriz, Depedro izango da, Huhezin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ursula Strong –bateria– eta Kol-do Soret –gitarra–jolea eta aho-tsa– musikariek osatutako taldea da Niña Coyote eta Chico Tornado. Bikoteak riff gogor eta indartsuak eskainiko ditu gaur Gernika plazan 22:30ean eskainiko duten emanaldian.

Estatu mailan eta nazioarte mailan hainbat emanaldi egin dituzte 2013ko irailean, lehen aldiz, Niña Coyote eta Chico Tornado bezala oholtzara batera igo zirenetik, eta, ordutik, gitarra eta bateria nahikoa ditu bikoteak kontzertu ederrak egiteko. Azkena Rock, BBK Live... festibal handietan jo izan dituzte kontzertuak, eta, oraingoan, Eskoriatzako Errekan Gora jaialdian entzun eta ikusteko aukera izango da.

Orain arte balorazio positiboa

Aukeran dantza taldearen eta El Trio de Medianoche taldearen emanaldiak arrakastatsuak izan dira. Atxorrotx Kultur Elkarte-ko Iñaki Kortazarrek azaldu duenez: "Bi hitzorduetara jende asko hurbildu zen, eta, eguraldiak lagunduta, ez genuen leku aldaketarik egin behar izan. Hirugarren emanaldian musika gogorragoaz disfrutatze-ko aukera izango dute herritarrek,



Niña Coyote eta Chico Tornado kontzertuan. BIDEAN PRODUKZIOAK

eta, aurrekoetan bezala, jendetsua izatea espero dugu".

Depedro, talde nagusia

Hurrengo emanaldia, Depedro taldea izango da, eta *El Pasaje*-ro lan berriarekin izango da Eskoriatzan, uztailaren 21ean. Egitarauko guztien artean ordaindu behar den bakarra. Hala, dagoeneko salgai daude sarrerak bost eurotan eta kontzertua Huheziko klaustroan izango da, 22:30ean. Sarrerak Eskoriatzan –Inkernun eta kiroldegian–, Are-

txabaletan –Haizea tabernan–, Arrasaten –Taupan eta Iluntzen–, Bergaran –Pol Pol tabernan– eta Oñatin –Arrano tabernan– daude salgai. Eskariak egiteko, berriz, info@atxorrotx.eus helbidean egin daitezke.

Guztira, 500 sarrera jarri dituzte salgai, eta antolatzaileek aurreikuspen handiak dituzte emanaldi horretarako. "500 sarrerara ateratzea erabaki dugu. Agian, askotxo dira, eta ez ditugu denak salduko, baina Huheziko klaustroa betetzea da gure helburua".



AITOR AGIRIANO

"Astean behin irteera bat izatea aberasgarria dela uste dut"

ASIER URIZAR BEGIRALEA

Udalekuetako bigarren aste honetan zortzi haur ditugu

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako udaleku irekiak uztailaren 3an hasi zituzten, eta uztailaren 21era arte hainbat ekintza egingo dituzte herrian. Asier Urizar gatzagarria ari da begirale, goiz eta arratsalde hurrekin jolasean, eta, begirale moduan lehen aldia izanik, esperientzia aberatsa izaten ari dela azaldu du.

Zer moduz ari zarete pasatzen?

Oso ondo ari gara pasatzen. Hainbat joko, jolas eta irteera egiten ari gara, ez dugu aspertzeko tarterik. Gainera, herrian denok elkar ezagutzen dugunez, oso ondo gaudela esango nuke.

Ume gutxi, baina lan gogorra, ezta?

Bigarren aste honetan zortzi haur izango ditugu udalekuetan; lehenengo astean, aldiz, hamar. Hala ere, asteka izena emateko aukera eman dugu, eta 3 urtetik 10 urtera arteko haurrak daude soilik. Adin horretatik gorakoak Eskoriatzako edo Aretxabaletako udalekuetara joaten dira, adin diferentzia handia dutelako Gatzagan...

Astean behin irteera bat egiten duzue; nora egingo dituzue?

Lehenengo astean, Landara joan ginen oinez Gatzagatik. Aste



Asier Urizar, Goienako platoan. GOIENA

honetan, Araiako igerilekuetan izan gara, eta hirugarren astean, Dorleta Santutegiko belardira joango gara, kanpin dendak muntatu eta bertan gaua pasatzera.

Hiru asteko udalekuak amaituta, ekintza berezia ere izango da, ezta?

Bizikletan Lizarrara joango dira haurrak uztailaren 25ean, Estibaliztik irteera hiru edo lau etapaz. Kasu honetan, bi begirale joango dira, eta 10 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago. Hala ere, izen-ematea itxita dago dagoeneko.



Udalekuetako talde argazkia

Bigarren asteko udalekuetan zortzi haur izan dira, goiz eta arratsalde, Asier Urizar begiralearen gidaritzapean, ondo pasatzen. Eguaztenean gatz museora joan ziren bisitan eta ondoren *Altxorren bila* egin zuten. Argazkia, egun hura aurretik zutela.



Valentin Elkoro eta haren emazte Maria Berho seme-alabetako batzuekin. ARGAZIAK: VALENTIN ELKORO E HIJOS. UNA HISTORIA EMPRESARIAL. LIBURUA

'Ameriketara joan nintzan...'

Etxea utzi eta bizitza hobe baten bila joan zen Mexikora XIX. mende erdialdean Valentin Elkoro (Angiozar, 1839-Mexiko Hiria, 1917). Ekintzaile eta aitzindaria, enpresaburu garrantzitsu bilakatu zen; baita Mexiko Hiriko bizimodu sozialean ere

Monika Belastegi BERGARA

Beste askok bezala, Ameriketara bizitza hobe baten bila emigratzeko erabakia hartu zuenean imajinatu ere ez zuen egingo, seguruenik, Valentin Elkoro de Aldekoak Mexikon emango zituen urteez eta sortuko zuenaz. Gazte ausart, azkar, langile eta ekintzailea, arrakasta ekonomikoa eta aitortza soziala lortu zituen; baita gaurdaino iritsi den hiru belaunaldiko familia eratu ere.

Angiozartik Mexikora

Valentin Elkoro de Aldekoa 1839. urteko azaroaren 2an jaio zen, goizaldeko lauretan, Angiozarko San Migel baserrian. Gurasoak Juan Bautista de Elkoro eta Agustina de Aldekoa izan ziren.

Valentinen lehenengo urteak iskanbila politiko handikoak izan ziren: I. Karlistaldia (1833-

1840) galtzeak eragindako gora-beherak eta derrigorrezko soldadutza ezartzea faktore erabagigarriak izan ziren Hego Amerikara migrazio masiboa gertatzeko. Bestetik, Karlistaldiaren ondoren etorritako urteak ere ez ziren lasaia izan: progresisten eta moderatuen arteko liskarrak, karlisten bigarren saiakera, Marokoren inbasioa 1859an...

Hura zen egoera Valentin 20 urte betetzear zela, eta etorkizuna ez zen batere argia. Are gehiago, aipatutako egoera politiko nahasiari, aita hil berri,

1857AN ABIATU ZEN, IA ONDASUN BAKAR GISA ALKATEAK ETA APAIZAK IDATZITAKO GUTUNA ZERAMALA

ondasunik ez zuela ere gehitu behar zaio. Bada, testuinguru hartan, Ameriketara joatea erabaki zuen, bere garaiko beste gazte askok egin zuten moduan. Gainera, bizitza hobe baterako itxaropenaz gain, 1853an hara joandako anaia Esteban zuen han zain.

Hori horrela, 1859ko urriaren 5ean abiatu zen Mexikorantz, ia ondasun bakar gisa Elgetako alkate Juan Angel Otsoa de Angiozarrek –sasoi hartan Angiozar Elgetaren jurisdikzio barruan zuten. Aldaketa hura erabakigarria izan zen Valentinen bizi-

Lehen urratsak Mexikon

Veracruzko portura iritsi zen Valentin Elkoro, non ezarri berri zen Benito Juarezen gobernu liberal berria, Veracruz Mexikoko hiriburu bihurtuz. Handik San Juan de Potosira joan zen, anaia Estebanek errementaritza tailerra zeukan-eta han.

Poliki-poliki Elkoro anaiak izena egiten joan ziren, eta errementaritza negozioa handitzen. Hori horrela, San Luis Potosi laga eta Mexiko Hirian burdina depositua eta gurdi fabrika jarri zuten. Aldaketa hura erabakigarria izan zen Valentinen bizi-

SAN JUAN DE POTOSIRA JOAN ZEN; HAN ESTEBAN ANAIK ERRENTARITZA TAILERRA ZUEN-ETA

tzan, eta, Mexikon denbora laburra eroan arren, etorkizun sendoa ereiten hasita zegoen enpresaburu moduan. Kontuan izan behar da sasoi hartan hirien artekoak ere, trenbideak eraikitzen hasi berriak zirelako. Karrozeria oso ideia ona zen; izan ere, gurdiak, karrozak eta animaliaz lagundutako ibilgailuak egitea garraibide nagusi ziren mundu osoan.

Gazte azkarra eta ekintzailea izanik, berehala hartu zuen negozioaren ardura eta berau zuzentzen hasi zen Elcoro y Compañía izenarekin.

Negozioa ondo zihoan eta 1874rako, Mexikon Sebastian Lerdo de Tejadak agintzen zuenerako, Zocalo ingurura aldatu zuten. Hirian baziren halako negozio gehiago, baina Carroce-




Pulque-barriketarako guayina.



Banaketarako gurdia.

Gurdi katalogo oso zabala

Elkorok abiatutako negozio guztien artean, famatu bilakatu zuena eta beste negozio batzuetan inbertitu ahal izateko bultzada eman ziona karrozeriarena izan zen. Modelo ezberdin asko egiteaz eta bezeroen eskari espezifikoek erantzuteaz gain, berrikuntza teknologikoetan inbertitzeko sena izan zuen eta horrek inguruan ziren gainerako karrozerietatik ezberdindu zuen.



Talleres Elcoro-n egindako autobus modeloetako bat.

ria Elcoro gailendu egin zen guztien artean gurdi eta karroza modelo ezberdin asko egiten zituelako, partikularren eta gobernuaren eskari espezifikoek erantzunez ere bai, gainera.

Karrozeriarik aurreratuena

Ordena eta aurrerapena. Horiek izan ziren Porfirio Diazen helburu nagusiak 30 urtez gobernatzen egon zen bitartean –lehenengoz 1876an–: ordena, aurrerapena lortzeko; eta aurrerapena, hazkunde ekonomikoa eta modernitatea lortzeko. Bide horretan, azpiegiturak, industriari... bultzada handia eman zien gobernuak. Sasoi hartan, enpresa-klaseak oinarriak finakatu zituen, eta, testuinguru hartan, Valentin Elkorok bereak. Sistema enpresarial bikoitza garatu zuen: alde batetik, bere negozioak zituen; bestetik, beste negoziotan inbertsioak egin zituen, hala nola meategietan eta hegazti, paper, garagardo... enpresetan.

Hala ere, abiatu zituen negozio guztien artean enblematikoen, bere garaian famatu bilakatu zuena eta beste negozio batzuetan inbertitu ahal izateko bultzada eman ziona, karrozeriarena izan zen. Izan ere, lehen esandako moduan, modelo ezberdin asko egin eta eskari espezifikoek erantzuteaz gain, bere garaiko berrikuntza teknologikoetan inbertitzeko sena izan zuen eta horrek inguruan ziren gainerako karrozerietatik ezber-

dindu zuen; gurdi eta karroza katalogo oso zabala zuen, jendea eta askotariko lehengaiak erroteko balio zutenak. Baina horrez gain, nekazaritzarako zenbait tresna eta makina egiteko gaitasuna ere bazuen Carroceria Elcorok. Halako gaitasunik zeukan beste karrozeriarik ez zegoen.

Industriarako jauzia


Porfiritoaren urteetan gora egin zuen nabarmen burdinazko eta altzairuzko artikuluen kontsumoak. Hiria handitzeak eta urbanizazioak zerbitzu berriak eskaini beharra ekarri zuen –ura, drainatze-sistema...– eta horiek egiteko metalezko hodiak behar diren. Eraikuntzan, metalezko xafiak, iltzeak, hagak... behar ziren, eta komunikabideen garapenak ere –trenbidea, telefonoa, telegrafoa– behar berberak zituen.

Horrek guztiak fabrika urtzailen beharra ekarri zuen eta hor ere aitzindaria izan zen Valentin Elkoro y Compañiaren urtzaila, 1879an, beste batzuekin batera –litekeena da Mexiko Hiriko lehen fabrika urtzaila izatea...–. Urteekin batera, instalazioak handitzen joan ziren eta egiten zuten produktu sorta ere bai. Erabakigarria izan zen,

ABIATUTAKO NEGOTIO GUZTIEN ARTEAN FAMATU BILAKATU ZUENA KARROZERIA IZAN ZEN



San Luis Potosiko Valentin Elcoro y Compañía sukurtsalaren irudi korporatiboa.



Irudian, Valentin Elcoro y Compañiaren karrozeria eta galdategiaren tailerra.

bestalde, negozioen garapenerako hiriaren erdialdetik kanpo zabaldu izana. Eta aipatzekoa da hedapen hori Valentinen emazte Maria Berhori esker egin zutela, berak jarri zuen-eta urtzaila ezartzeko lursaila erosteko dirua.

Urrats hura emanda, industriaren munduan murgildu zen; urrats oso ausarta, hemendik hara joandako gutxi ausartzen ziren-eta horretan.

Angiozartik emigratutako gaztearen negozioak primeran zihoaz: karrozeria Mexikoko garrantzitsuenak zen; burdindegia eta mertzeria hirian lan gehien zuena; urtzailak lan asko egiten zuen tranbia konpainiendako, Ferrocarriles Nacionales de Mexicorako eta burdindegietarako eta euren karrozeriarako. Esandakoez gain, baina, beste zenbait arlotan ere inbertitu zuen Elkorok garaiko inbertitzaile garrantzitsuenetako batzuekin batera: papertegietan, nekazaritza-produktuetan, zementu-fabrikean, banketxeetan eta garagardo ekoizpenean, besteak beste.

Bizitza soziala eta familiarra

1865. urtean ezkondu zen, euskal jatorriko Maria Berhorekin –

EUSKAL JATORRIKO MARIA BERHOREKIN EZKONDU ZEN ETA ZAZPI SEME-ALABA IZAN ZITUZTEN

Iparraldekoa zen– eta zazpi seme-alaba izan zituzten. Haiek izan ziren, hain zuzen, ondasun guztiak heredatu zituztenak; batzuk, gainera, familiaren negozioetan sartu zituen, Hijos de Valentin Elcoro erakunde berria sortuz.

Seme-alabak aitaren negozioetan murgilduta zirela emandako egokitzapen aipagarriena ibilgailuen produkzioarena izan zen. Urteek aurrera egin ahala, karroza eta gurdiak alboratzen joan ziren barne-errekuntzako motorra asko garatu zelako. Hori horrela, Elkorok familiak garai berrietara egokitzeko beharra ikusi zuen eta karrozak egiten jarraitu bazuten ere, Constructora de Carrocerias SA eratu zuten 1929. urtean beste bazkide batekin batera.


Aipatzekoa da, bestalde, Mexiko Hiriko bizitza sozialean ere pertsona aipagarria izan zela Valentin Elkoro. Adibide bat ematearren, Casino Español delakoaren presidentea izan zen eta ekintza filantropiko ugari hartu zuen parte.

Mexikon bizitza oparoa izan arren, Elkorok ez zuen sekula jaioterria, Angiozar, ahaztu eta hainbatetan joan zen bisitan. Zenbait hobekuntza lanetan ere kolaboratu zuen bertan; edateko ura sartzan, esaterako, 1912. urte inguruan. Herritarren esker onaren erakusle, amaren gorpua auzoko elizako nitxo baten ehortzi ahal izan zuen.

13.

UDAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA

egin klik!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



MARTXAN DA!

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin** ateratako udako argazkiak!

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.
* Eraman Goiena edo Puntua oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoenak, graziosoenak saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-bxartela.
(Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak bost argazki aurkez ditzake, gehienez. Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 14tik irailaren 17ra arte –biak bame–.
- Poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin eta tabletarekin ateratako argazkiek balio dute.
- Bidali argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan behar dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoienean jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake.
- 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Argazkiek beste inon argitaratu gabeak izan behar dute.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkez daitezke.
- Argazkiek originalak izan behar dute.
- Udako argazkiak izango dira: aurtengo udan ateratakoak edo beste uda batekoak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 6an jakingo dugu, Goiena aldizkarian.
- Lehen saria eta Goiena saria Goienako kidez osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 25etik urriaren 1era izango da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.
- Argazkiak Goienaren euskarrietan argitaratuko dira: blogean, Goiena aldizkarian eta Puntua-n.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.



EH Bildu udal taldeko Arantzabal, Barruso, Artola, Intza, Luarizaristi eta Moñux. ANE VITORIA

Bergarako EAJko Arrieta, Gallastegi, Barrena eta Amasorrain. MIREN ARREGI

EAJ eta EH Bildu, aurrez aurre igerilekuen auzian

EH Bilduk jeltzaleei leporatzen die kiroldegi berria egin zenean kanpoko igerilekuak "gutziz hipotekatu" zirela; EAJk, berriz, adierazi du kanpoko putzuaren proiektua 2008an aurkeztu eta esleitu zela Hirigintza Batzordean, Agurne Barruso alkate zela

Jokin Bereziartua BERGARA
Agorrosingo igerilekuetan sor-tu diren arazoan eta herritarren haserrearen aurrean azalpenak emateko prentsa agerraldia egin zuen EH Bilduk astelehenean: "Eguno igerilekuek bergararren beharrak asetzen ez dituztenez, Udalak erantzun bat eman behar duela argi dago, baina hori ezin da azpiegitura erraldoi berrien eskutik etorri; ez, behintzat, epe motz edo ertainean".

Prozesu parte-hartzaile eske
Egoera horren aurrean, EH Bilduk uste du udarako aukera berriak sortu behar direla; horiek lantzeko eta bideragarritasuna aztertzeko prozesu parte hartzailea eskatu dute, eta, "lanketa handia" beharko luke-tela aitortu arren, lehen ideia batzuk ere proposatu dizkio Udal Gobernuari: "Bergarako egitearekin batera kanpoko igerilekuak guztiz hipotekatu ziren; 2006ko udan, eta kritika handien artean, kiroldegia inauguratu zuen Victoriano Gallastegiren gobernuak. Baina azken fasea, kanpoko igerilekuak egitearena, definituta baina eraiki gabe utzi zuen EAJko Gobernuak [orduan EAJk eta EAK osatzen zuten Gobernuak]". 2009an, gaur egun

da, horietara iristeko bideak hobetu behar dira eta inguruak egokitu bainurako; Osinetik hasita, adibidez. Herriguneko parkeren baten txikientzat udarako bereziki prestatutako jolasgune hezeak sortzea ere aukera bat izan liteke". Gehitu dute esperientziak erakusten duela herritarren beharrak iden-tifikatzen ez dela beti asmatzen Udaleko erabaki guneeetatik: "Beharrak identifikatzea eta aukera berriak eraikitzea he-rritarroei dagokigu, eta oraingoan aukera ederra daukagu".

EH Bilduren arabera, 2002an aurkeztutako proiektuak "inber-tzio izugarria" ekartzeaz gain, kanpoko igerilekuak apurtzea eta horiek okupatzen zuten lur eremu handi baten kiroldegiaren eraikina egitea zekarren. "2004 eta 2006 urteen artean kiroldegia egitearekin batera kanpoko ige-rilekuak guztiz hipotekatu ziren; 2006ko udan, eta kritika handien artean, kiroldegia inauguratu zuen Victoriano Gallastegiren gobernuak. Baina azken fasea, kanpoko igerilekuak egitearena, definituta baina eraiki gabe utzi zuen EAJko Gobernuak [orduan EAJk eta EAK osatzen zuten Gobernuak]". 2009an, gaur egun

EH Bilduko bozeramaile den Agurne Barruso alkate zela, az-ken fase hori eraiki zen. "Ezin zen putzu edo belardi handiago-rik eraiki, ez zegoen lurrik ho-rretarako. Proiektuan jasota zegoena zen egin zitekeen gauza bakarra eta hori exekutatu ge-nuen", adierazi du Barrusok. Amaitzeko, kritikatu dute kirol-degiaren kostua 10,8 milioi eu-rokoa izen zela eta horietatik bi milioi bideratu zirela kanpoko igerilekura. "Gaur egun, Udala-ren zorra 5,7 milioi eurokoa da; 2007an Udal Gobernuak utzi zuen zorra 13 milioi eurokoa izan zen", gaineratu dute.

"Ordutik bi agintaldi izan dituzte"
EH Bilduk esandakoak erantzuteko prentsaurrekoa egin zuen atzo Bergarako EAJk. Jeltzaleen arabera, 2004ko apirilean Victo-riano Gallastegi alkate zela, ige-rilekuen proiektuaren lehen fasearen proiektu teknikoa onar-tu zuten. "Horrez gain, EAJk EH Bilduri leporatu dio bi agintaldi izan dituztela igerilekuen auziari so-luzioa emateko: "Igerilekua txi-ki geratu zela San Juan egunean bertan geratu zen argi. Ordutik, agintaldi hura eta hurrengoa izan zituzten gaiaren inguruan hausnartu eta irtenbideak bila-tzeko, baina orain arte ez diote gaiari heldu; orain garrantzi-tsuena da bakoitzak bere ekingen erantzukizuna bere gain hartzea eta kanpoko igerilekuei irtenbi-dea bilatzeta".

Santa Marina auzoko jaietan, aste osoko egitarau zabala

Santa Marinako jaiek gaur hasi eta hilaren 21era arte iraungo dute. Ekitaldi potoloenak, baina, aste bukaera honetan izango dira –ikus beheko egitaraua–. Adin eta gustu guztiak asetzeko programa antolatu dute; aipa-tzekoa da, esaterako, Katalunia-ko Sidral Brass Band taldeak hainbat emanaldi eskainiko dituela asteburuan zehar.

Egitaraua

Uztailak 14
16:30 Barraren irekiera.
18:30 Suziriak eta buruhandiak Matxiategin.
19:00 Pintxo-pote girotua Matxiategin.
21:00 2. Gin-Tonic txapelketa.
22:00 Dantzaldia Matxiategin, DJ Angelen eskutik.

Uztailak 15
10:00 Ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol txapelketa. Ondoren, luntxa.
12:30 Pintxo lehiaketa.
13:00 Urdaiazpiko dastaketa, musikarekin.
16:00 Poker txapelketa Kayak tabernan.
16:30 Dardo txapelketa Matxiategi tabernan.
18:00 Bolo, toka eta igel txapelketak San Joxepe erretiratuen elkarteak.
19:00 Epaimahaiaren gin-tonic dastatzea Simon Arrietan.
20:00 Kalejira Sidral Brass Band taldearekin.
22:00 Auzo afaria Fraiskozurin, Sidral Brass Band taldearekin.
23:00 Dantzaldia: Fan&Go.
02:00 Txokolate-jana.

Uztailak 16
12:30 Udal Bandaren kontzertua frontoian.
13:30 Kantaldia Sidral Brass Band taldearekin eta barbakoa denontzako.
18:30 Kukañak Matxiategin.
19:00 Kalejira Sidral Brass Band taldearekin, Iralan.



Intxorta 1937 Kultur Elkarteko eta Udaleko ordezkariak eguaztenean aurkeztu zuten biharko omenaldia. JOKIN BEREZIARTUA

Egaña eta Ernabide, 36ko gerrako historia bizia

Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek omenaldia egingo die bihar, udaletxean (13:00), Loiola Batailoiko gudari Andres Egañari eta Inazio Ernabideri, bizirik dauden bergarar bakarrei; "bihotz-bihotzez" antolatutako "ekitaldi hunkigarria" izango da

Jokin Bereziartua BERGARA

36ko gerran tropa frankisten aurka borrokatu ziren 18. Loiola Batailoiko gudari Andres Egaña eta Inazio Ernabide omenduko dituzte bihar, zapatua, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan (13:00); orduko protagonistak 100 urteren bueltan dabilta gaur egun eta Egaña zein Ernabide dira bizirik geratzen diren bi bergarar bakarrek. Garai hartako historia bizia dira, beraz. Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek antolatuta dute ekitaldia.

Omenaldia hasiko da Loiola Batailoiak gerrako frontean bizitakoak erakusten dituen 13 minutuko bideo-laburpen batekin: "Egañari eta Ernabideri aspaldi jasotako testigantzak erakutsiko ditugu, gerrako frontean bizitzen zenera hurbiltzeko".

"Merezitako aitortza"

Egañari eta Ernabideri egingo dioten omenaldia aprobetxatuko dute gainerako gudariak ere gogoratzeko: "1936ko kolpe mi-

litarren aurkako erresistentzian demokrazia eta askatasuna defendatu zuten 200 gudari eta miliziano bergararrei merezitako aitortza egin nahi diegu", adierazi du Elena Lete alkateak. Errepublikaren aldeko 200 bo-luntario haien artetik, gehienak Loiola eta UHP batailoietan ari-tu ziren, baina baita Kirikiño, Dragones, San Andres, Amaiur, Saseta, Itxarkundia, Amuategi eta Ertzainetan ere.

Faxismoaren gerizpe "luzea"

Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Julia Mongek, aldi berean, gerraosteak utzi zituen "ondorio latzak" ere gogoratu ditu: "1a 300 pertsona atxilotu, heriotza edo 30 urteko espetxe zigorra

BI OMENDUEN TESTIGANTZAK JASOTZEN DITUEN BIDEO LABURPEN BAT IKUSI AHALKO DA

ezarri zieten 24 pertsonari, hainbat emakume alargun geratu ziren, erbesteratuak...". Eta gaineratu du, 81 urte pasatuta, faxismoaren gerizpeak "oso luzea" izaten jarraitzen duela: "Orduko zauriak osatzeko lehenengo pau-soa egia jakitea da, eta horrekin batera justizia egiten hastea, errepazioa eta errepikatu ez dela bermatzeko. Frankismoaren inpunitatearekin bukatu egin behar dugu, denon artean lor-tuko dugu".

Loiolako kapitaina, bergararra
Loiola Batailoia Euzko Guda-rosteke lehen batailoia izan zen. Gernikan osatu zuten gerrak eztanda egin ostean borrokkara joandako EAJko gazte gipuzkoarrek. Bilbo erori zenean Eusko Jaurilaritzari leial jarraitu zion gudarosteetako bat izan zen, gerora, Santofiako errendizioan parte hartu zuena. Bada, Lino Lazkano bergararra zen Loiola Batailoiko kapitaina, Azka-rruntz-Gañekoa baserrikoa.

"Herritarrak gonbidatu gura ditut 'Gurean' aplikazioa deskargatzera"

SABINO AZKARATE EKONOMIA-SUSTAPEN ZINEGOTZIA
'Gurean' aplikazioaren gaineko xehetasunak eman ditu

J.B. BERGARA

Herriko merkatariak bergara-rrekin eta bisitariekin komuni-katzea eta haien intereseko in-formazioa bidaltzea da *Gurean* aplikazioaren helburu nagusia. **Zertarako aplikazioa deskargatu?** Hiru abantaila aipatuko nituzke: klik batekin agendaren zein in-tereseko jardueren gaineko in-formazio eguneratua eskaintzen du, Bergarako merkatarien no-bedadeak eta eskaintzak zuzenean jasotzen dira eta herritarrek eu-rek beste batzuei hemengo on-dare oparoa ezagutarazten lagun dezake. Tokikom-ek Udalari apli-kazioa garatzea proposatu zio-nean, bertako merkataritzaren alde egitea gura zen, baina ha-sieratik interesgarri iruditu zi-tzaigun turismorako erabiltzea; era bateratuan garatu genuen. **Beacon teknologian du oinarria aplikazioak. Zertan datza?**

Beacon-ak baliza txiki batzuk dira. Gaur egun, 50 *beacon* di-tugu herrian zehar estrategiko-ki banatuta. Baliza horiek gertu dituzten mugikorrei seinaleak bidaltzen dizkiete, betiere mu-gikorrek *Gurean* aplikazioa des-kargatuta badute. Adibidez, San Martin plazako edozein puntutan, Errege Mintegiari buruzko in-formazioa ematen duen jakina-razpena jasoko da. Aplikazioan hiru ibilbide daude zehaztuta, eta erabiltzailea hiru horietatik edozein egiten ari denean jak-i-narazpenak jasotzen joango da, gertuko denden ingurukoak edo intereseko tokien ingurukoak.



Azkarate, *Gurean* aplikazioa erakusten. J.B.

Herritarrek ekarpenak egin ditzakete?

Aplikazioak suspertu eta erraz-tu egiten du erabiltzaileek euren esperientziak sare sozialetan partekatuta ahal izatea, guztiek abantailak aprobetxa ditzaten. Gainera, edozein iradokizun edo ekarpen ere egin daiteke, eta ez bakarrik *Gurean* aplikazioari buruz, baita Udalaren intereseko beste edozein gairi buruz ere. **Nola doaz deskargak orain arte?** Proiektu pilotua martxan jarri berri dugu eta goizegi da zenba-kiak emateko. Horregatik, herri-tarrak gonbidatu gura ditut apli-kazioa deskargatzera. QR kodeen bidez, webgunean edo *App Store*-n edo *Google Play*-n zuzenean *Gurean* tekleatuta deskarga daiteke; aplikazioa erabiltzeko, bluetootha eta GPSa aktibatuta izan behar dira. Espero dugu erabilgarria izango dela bergararentzat zein bisitarientzat.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Proiektua lankidetzan garatu da Tokikom-en, Bedelkarren, Uda-laren eta Diputazioaren artean; Diputazioari eskerrak eman nahi dizkiot emandako laguntzagatik.

OHARRAK

'Oparitu zuhaitz bat'

Uztailaren 20an, kultura etxean (20:00), gai hauek jorratuko dira: Deba ibaiaren arazoak, Fiare banku etikoa, kooperatiba energetikoak eta *Oparitu zuhaitz bat* ekimena.

Erretiratuen esker ona

San Josepe eskerrak eman dizkie Miner eta Atxaga upategiei, hainbat jokotarako sariak oparitzeagatik.

Erreferentziazko musika beltza gozagai Espoloian

Berumuga ekimenaren barruan, 1990eko hamarkadan rhythm and blues generoan erreferente izan zen The Allnighters talde gasteiztarrak joko du gaur Espoloian (20:00); 1998an jotzeari utzi ostean 2013an bueltatu ziren agertokietara, "inolako presiorik gabe"

Jokin Bereziartua BERGARA

Musika beltza ardatz duen Be-rumuga ekimenaren barruan, kontzertua eskainiko du The Allnighters taldeak gaur Espo-loian (20:00). *Everything is chan-ging* disko berriarekin etorriko dira, honako formazio honekin: Iñaki Igu Garcia –ahotsa eta armonika–, Iñigo Ortiz de Zara-te –gitarra eta organoa–, Erne-sto Garcia –gitarra–, Zigor Akixo, –bateria– eta Ruper Diez –baxua–. Haizezko instrumentuetan bi musikari berezi arituko dira: RS Faktor taldeko liderra den Ruben Salvador –tronpeteta eta fiskornioa– eta Arrasateko Big Bandako zuzendari Zigor Mar-tinez bergararra –saxoa–.

The Allnighters taldearen so-rrera Gasteizen kokatu behar da, 1988ko uda beroan. Hutsetik abiatu eta gogotik lan eginda, penintsulako erreferentziazko talde bihurtu zen 1990ko hamar-kadan musika beltzari dagokio-nez. Estatuan eta Europako hainbat herrialdetan 300dik gora emanaldi eskaini eta hiru LP zein hainbat single eta bilduma plazaratu zituzten. Taldea 1998an desegin zen, baina 2013ko mar-txoan agertokietara bueltatu ziren plazer hutsez, "inolako presiorik gabe". Eta halaxe igo-ko dira gaur ere Espoloiko ager-



The Allnighters taldea, promoziorako argazki baten. DOSPORDOS

tokira. Musika beltzaren barruan, rhythm and blues hondar gene-roaren erreferentzia garrantzi-tsu bat da The Allnighters; ha-markada oso batez haize zabalean eragin zion genero horren ban-derari, soul, blues, psikodelia eta beste musika molde batzue-kin aberastuta.

Antzerkia, folklore eta zinema

Berumuga ekimenaz harago eta kultura kalera ateratzeko hel-buruarekin, Udaleko Kultura Zerbitzuak askotariko ekintzak antolatu ditu uztailaren zehar.

Guztiak kalean, eta doan. Da-torren astean, esaterako, Trapu Zaharrak taldearen *Etsita!* an-teztlana ikusi ahaliko da hilaren 19an eta egun bat geroago, In-diako Rangasagar taldearen fol-klore jaialdia egongo da. Bi ekitaldiak San Martin plazan izango dira –euria eginez gero, seminarioko karpán–, 19:00etan. Aire libreko zinemari dagokio-nez, hurrengo bi emanaldiak uztailaren 26an izango dira: umeendako *7 ipotxak* 19:00etan eta helduendako *The Great Wall* 22:00etan.

Territorialeko bigarren taldea aterako du eskubalo sailak

Nesken bi talde eta mutilen bost talde izango ditu BKEk hurrengo urtean; lehen taldea Edu Orgazek zuzenduko du

J.B. BERGARA

BKEko eskubalo saila hasita dago 2017-2018 denboraldira be-gira lanean. Nobedadeen artean, Josetxo Muniategik aurreratu duenez, bigarren territorial mai-lan taldea aterako dute: "Ideia horrekin gabilta. Gazte maila-tik jokalarri batzuk ditugu senior mailarako jauzia egin behar dutenak eta salto hori arintzeko aukera ona da bigarren talde bat sortzea". Azken hiru urtee-tan BKEk ez du talderik izan bigarren territorialean.

Hurrengo urtean, "poliki-poliki"

Edu Orgazek jarraituko du lehen taldea zuzentzen, eta Muniategi 2017-2018 denboraldiko hel-burua zein izango den galdetu-ta, "poliki-poliki" joan behar dela erantzun du: "Ea urte erre-gularra egiten dugun, gorabehe-ra handirik barik. Arazoak iza-

ten dugu urtean zehar jarrai-kortasun bat izateko. Eta hori igartzen da emaitzetan".

Hurrengo denboraldian zazpi talde izango ditu BKEko esku-balo sailak. Gizonezkoetan, in-fantil, kadete, gazte eta senior mailetan. Emakumezkoetan bi talde egongo dira, infantil eta kadete mailetan.

Labegaraietaren berritzea

Bestalde, Diputazioak 589.720 euroko laguntza emango dio Udalari Labegaraietako kirol-degia berritzeko: "Guretako al-biste onena litzateke beste ki-roldegi bat egitea. Oso zahartu-ta dago eta mantentze-lanez harago beharrezkoa du zerbait egitea. Ea laguntza horrekin hobekuntza igartzen den eta, halako lanak faseka egin ohi direnez, obra horiek ez duten gure jarduna larregi kaltetzen".

Udako Torneoa SVC eta Birgostas taldeen artean erabakiko da

Ipintzako Udako Torneoko be-teranoetako eta mutilen txapel-ketako finalak gaur jokatu-ko dira –atzo jokatu zen kopako seminarioko karpán–, 19:00etan.

Aire libreko zinemari dagokio-nez, hurrengo bi emanaldiak uztailaren 26an izango dira: umeendako *7 ipotxak* 19:00etan eta helduendako *The Great Wall* 22:00etan.

doren, 21:00 aldera, banatuko dituzte txapelketako sariak. Kategoria guztietako txapeldunei zein txapeldunordeei dagokien garaikurra emateaz gain, joka-lari eta golegile onenari ere sari bana emango diote.

Azken urteetan behera egin du Ipintzako Udako Torneoaren partaidetzak, gero eta talde gu-txiago animatzen dira. Gaur finala jokatu duen Birgostas taldea da horren adibide, iazko Birgerias eta Langostas taldeak batzetik sortutakoa da eta.

Eguneko menua
(astelehenetik barikura)

Menu berezia
(zapatuan eta domekan)

Ostegunetik zaptura, afaritarako ere zabalik!

(Plater konbinatuak, kazuelatxoak...)

Janaria enkarguz ere egiten dugu.



Ibargarai 37 - BERGARA • Tel.: 943 53 89 97

Bergarako Udal Euskaltegiak
EGako eta HABEren C1eko azterketak prestatzeko, C1eko ikastaroa antolatu du irailean.

Iraupena: **Irailaren 4tik 26ra**
Ordutegia: **16:00etatik 19:00etara**
Prezioa: **62 euro**
Izen emateko epea: **uztailaren 20ra arte (08:30/15:00)**

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo **943 76 44 53** telefonora edota euskaltegia@bergara.eus helbide elektronikora.





Aiherrako neska-mutilek eman zieten herriko jaiiei hasiera eguen goizean. MAIDER ARREGI

Jaiak eztanda egin du Aiherrako umeen eskutik

Udalekuetako 185 haurrek eta 17 begiralek ongietorria egin diete Antzuolako festa nagusiei. Aurten ere Aiherrako sei neska-mutiko izan dira udalekuetan. Senidetzea errotzeko iaz abian jarri zuen Udalak gaztetxoek hartu-eman sustatzeko plana

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eguenaz geroztik antzuolarrak festan murgilduta daude. Eta oraindik ere egun asko eta ekin-tza ugari erekin gozatzeko egunak datozkie herritarrei.

Udalekuetan ibili diren 185 haurrek jaiiei hasiera eman zieten atzo; horietako sei Aiherratik etorri dira Antzuolara aste-beterako. "Haurrekin asko dis-

frutatu dugu, harreman polita sortu da gure artean. Aiherrako gaztetxoekin ere konfiantza polita sortu da. Gainera, iaiztik Antzuolan izanda zeuden eta fenomeno ibili gara!", azaldu du Xabier Iparragirre begiraleak.

Bi herrien arteko senidetzea sustatzeko eta indartzeko urrats bat gehiago izan dela azaldu du Amaia Aranak, udalekuetako

dinamizatzaileak: "Herrira etorri, lasai ibili kaleetan barrena, herriko txokoak bisitatu... oso harreman berezia sortu da, batez ere, haurren artean. Eskerrak eman nahi dizkiet euren etxetan hartzen dituzten familiei".

Bota dute txupina

Aurten ere Aizpea Egañak eta Mila Lizarraldekin –Atzegiko ki-

deak– herriko festetako txupina botatzeko ohorea izan dute. "Benetan jaiak estimatzen dituzten pertsonak omendu nahi izan ditugu; jaiak gozatzen dituzten herritarrek dira Aizpea eta Mila. *Saltsera* hutsak direlako; egue-nean jaietako zapia jantzi eta astelehenera arte kentzen ez duten horietakoak dira. Iaz ere, beraiek bota zuten txupina, baina ia oharkabean joan zen, ekin-tza ez genuelako ondo azaldu. Horregatik, aurten errepikatzea erabaki du jai batzordeak. Izan ere, Udal hau atzegizalea ere bada", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Aureskua irakasleei

Eta aurten udalbatzak dantzara atera ditu Antzuolako Herri Eskolako maisu-maistrak. Ondoren, fandangoa eta arin-arina egitera plaza inguruan dauden denak aterarazi dituzte. "Modu horretan, Antzuolako Herri Eskolak eta bertako heziketa-metodologiak herriari egin dion eta egiten dion ekarpena erre-konoizitu nahi dugu. Gainera, orain eskolaren unea kritikot samarra da, hemengo metodologiaren oinarri izan diren irakasleak erretiroa hartzen hasita daudelako, eta erreleboa ez delako behar bezain erraza", argitu du alkateak.

Jaiak, baina, hasi besterik ez da egin eta bihar, esaterako, Mairuaren Alardea ospatuko dute antzuolarrak.

AIHERRAKO ETA ANTZUOLAKO HAURREN ARTEAN HARREMAN OSO BEREZIA SORTZEN DA

Zer moduzko esperientzia izan da?



MAIANA DURRUTY
AIHERTARRA

"Aste polita izan da. Ur-jolas parkean primeran ibili gara eta ikaragarri gustatu zaizkigu bertan egin ditugun jolasak. Orain, dantza eta ekitaldiak egingo ditugu agur esan aurretik eta herriko besta nagusiaz ere gozatzeko dugu pixka bat".



PANPI ECHEVERTZ
AIHERTARRA

"Oso ondo ibili gara. Bizikletan herrian zehar ibiltzea eta ur-jolasak asko gustatu zaizkit. Lagun asko egin ditugu eta pozik goaz etxera berriro bueltan. Iaz ere izan ginen eta oso gustura ibili ginen, primeran moldatu gara guztiok elkarrekin".



Martinon anaiak, Andre eta Panpale, eta Xipri Arbelbide, herriko etxe aurrean. J.I.

Aiherran batera eta bestera, 'Ikustenda'-k ekoiztutako saioan

Herria erakutsiko dute Martinon anaiek eta Xipri Arbelbidek: errota, eliza, aeronautika lantegia...

M.A. ANTZUOLA

Antzuolarekin senidetutako Behe Nafarroako herria ezagutzeko aukera izango da egue-nean, hilak 20, –21:30– Goiena telebistan, *Iparrerat* saioan. Hiru gidari izango ditu Julen Iriondok: Mar-

tinon anaia aihertarrak –Andre, Antzuolarekiko harremanaren sorreran izan zena, eta Panpale– eta Xipri Arbelbide –Aiherrako ondokoa, heletarra–, apaiza, kazetari eta idazle gisa eginda-ko lanagatik ere ezaguna.



Aitzgarbi tabernan pintxo-potean ENEKO AZURMENDI

Harrera bikaina etxeko zaporedun pintxo-poteak

Pikunieta, Irala-Torre, Lapatza, Irumendi, Bidaurre... herriko hamar baserri eta hamar komertziok abiatu dute 'Ernaberritu' proiektua. Helburua da lehen sektorea indartzea eta ezagutzera ematea herrian; bigarrenaz egin dute herriko produktuen pintxo-potea

M.A. ANTZUOLA

Lehen sektorea indarberritzeko helburua daukan *Ernaberritu* proiektuaren baitan, herriko produktuekin egindako pintxo-potea egin dute Antzuolan, bigarrenaz. Dendek, tabernekin eta baserriarrek hartu dute parte ekimenean.

Hala, Pikunieta baserriko gazta, Bidaurreko zuhaitzetatik mahaira ateratako fruituak, Lapatza eta Irala-Torreko barazki sorta, Irumendiko txahal-haragia... baserriarren eta kontsumitzaileen arteko zubia eraikitzen herriko tabernetan Antzuolako produktuek dastatzeko ekimenak arrakasta izan du. "Baserriarrek egiten duten lana azaleratzeko ekimena dela

tan", azaldu du Deba Garaia Landa Garapena Elkarteko teknikari Miren Oianguren.

Baserriarrek ardatz

Lehen sektorea indarberritzeko baserriarrek direla ardatz azpimarratu du Oianguren. "Lehen sektorea indartzeko Antzuolak daukan eragileen beharra dago. Gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa da eta eragile horiek bultzada emateko ezinbestekoak dira. Eragile horien artean tabernak eta dendak daude, besteak beste, eta hortik sortu zen pintxo-potearen ideia", argitu du teknikariak.

Antzuolan zein baserri dauden eta baserriarrek egiten duten lana azaleratzeko ekimena dela

INGURUAREKIKO JARRERA AKTIBOA IZATEAK LEHEN SEKTOREA BULTZATZEN DU

ere badio: "Herriko taberna eta dendak erakuslehoi apartak dira baserriarren lana, produktuak erakusteko. Tabernariak, dendek esfortzua egiten dute baserriarren produktuekin lan egiteko eta baserriar hori ezagutzera emateko. Baina, bestetik, herriarrek balio erantsi hori kontuan eduki behar dute euren eguneroko erosketetan eta denda batera doanean Antzuolakoaren aldeko apustua egitearen kontzientzia izan behar dute. Izan ere, aukeratzeko den produktuak egingo du aurrera. Inguruarekiko jarrera aktiboa izateak lehen sektoreari bultzada eman-godio, hau sustatuz eta indartuz".

Antzuolan, egun, hamar baserri daude aktibo: "Gurekin hileroko elkartzeko dira hamar baserriar. Merkatarien aldetik ere berehala etorri zen baiezkotza, eta beste hamarrekin hasi ginen lanean. Askorendak ezaguna zen ekimena eta menuak egite-rako garaian herriko produktua hobesten zituzten".

Ibon Gezalaga aukeratu berri dute AKEko presidente

Egubakoitzean egin zuen AKE urteko batzar orokorra eta bertan aukeratu zuten Gezalaga presidente

M.B. / M.A. ANTZUOLA

Zuzendaritza batzordean urte-bete egin ostean, Ibon Gezalagak izango du AKEren bidea zuzentzeko ardura. Besteak beste, elkartearen zilarrezko ezteietako ospakizunak antolatu eta kudeatu beharko ditu, 2018an 25 urte beteko ditu-eta Antzuola Kirol Elkartek. "Esperientzia badu batzordeko lanetan eta badaki funtzionamendua; ondo moldatuko da", azaldu dute Gezalagaren batzordekideek.



Ibon Gezalaga. IMANOL SORIANO

Balorazio positiboa

Egubakoitzeko batzar orokorrean, iazko denboraldiaren kirol balantzea eta balantze ekonomikoa izan zituzten aztergai. Kirol ikuspuntuari dagokionez, talde nagusia mailaz igo izana albiste pozgarritzat hartu zuten. Ekonomikoki AKE egonkortuta dagoela azaldu zuten.

Eta etorkizuneko erronken artean dituzte futbol zelaian aldagela berriak egitea, elkartearen estruktura teknikoa sendotzea, entrenatzaileen formazioa eta emakumeen futbola indartzea. Orokorrean, elkartearen balantze positiboa egin zuten.

Erretiratuen bazkaria

120 lagun batu ziren, urtero jaiak hasi aurretik erretiratuek egiten duten bazkaria ospatzeko. Hasierakoak, paella, masailak eta hostopil-tarta izozkiarekin izan zituzten dastatzeko. Behin sabela beteta, dantzaldia eta karaokea izan zituzten.

Maria Teresa Urriategi eta Asensio Laskurain izan dira aurtengo omenduak.



AITOR AGIRIANO

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Berbaz berba Elgeta euskaldunago baterantz

Elgetan Berbetan mintzalagun taldearen azken seihileko txostena egin dute, eta taldearen dinamikaz balorazio "positiboa" egin dute. Ohiko saioak egiteaz gain, hainbat ekimen eta irteera burutu dituzte aurren, eta egitasmo berriak ere sortu dira

Maite Txintxurreta ELGETA

Elgetan Berbetan mintzapraktika egitasmoa osasuntsu eta aktibo dagoela erakusten du 2017ko lehen urte erdia laburtzen duen txostenak: "Ikasturtean zehar 20 pertsona baino gehiago (eta bi urteetan zehar 30 pasa) gerturatu izana herrian egitasmoa martxan egotearen ekarmen positiboaren erakusle da". Aurrera begira parte hartzaile kopurua handitzea dute erronka, besteak beste, eta baita ekimen edo dinamika berriak antolatzen jarraitzea ere.

Lau dira Elgetan Berbetanen jardun duten taldeak: guraso-lagun, txandakako taldea, astelehen iluntzetakoa eta hasiberriena. Maiztasun desberdinekin, baina guztiak ere aktibo egon dira hilabeteotan, eta haien helburuak lortu dituztela jaso dute txostenean, eta zoriondu egin dituzte horregatik.

Hainbat eta hainbat ekimen eta irteera burutu dituzte elgetako mintzalagunek, gehienak Debagoienerako gainontzeko taldeekin batera: Laboratorium museora, Aramaiora, Atxorrotxera mendi irteera, Urdaibaira...

Horrez gain, Elgetako mintzalagunen taldea goi-goian



Elgetako berbalagun taldea Atxorrotxera egindako irteeran. LARRAITZ ZEBERIO

aritu da aurren Topaguneak antolatzen duen Euskararen Ginkanan. Finalera iritsi zen bertan parte hartu zuen seitekotea, eta final hori irabazterik lortu ez zuten arren, esperientzia polita bizi izan zuten. Gainera, horretan jardun duten bitartean herrian presentzia nabarmena izan dute.

'Hitzez Pitz' egitasmoa

Aurtengo apirilean egitasmo berri bat jarri zuten martxan, Elgetako liburutegikoek ekimenez eta bertako Geaxi Ezpeleta liburuzainak bidera-

tuta: *Hitzez Pitz*. Irakurketa klub bat da, eta ipuin laburrekin jarduten dute nagusiki. "Hilabete lehenago hasten gara, eta hiru astean zehar astero testu bana proposatzen dugu, eta baita irakurgai edo material osagarria ere. Whatsapp talde baten bidez dinamizatzen dugu guztia. Azken astea komodina izaten da, irakurtzeko astirik izan ez dutenendako, eta horren ostean irakurritakoaz berba egiteko elkartzen gara", azaldu du Geaxi Ezpeleta liburuzainak.

"Jakitun ginen aurki izango genuela aparejadorearen bigarren auzia zela-eta ordaindu beharreko kopuruaren totala. Epaitegiek Udala hilean 1.600 euro ordaintzera kondenatu zuten ezintasun absolutuagatik, eta ondoren 1.200 euro *baliae-zintasun handia* delakoagatik. Kontua da ez dugula hileror daintzen, kapital oso bat kalkulatzeko Gizarte Segurantzak, eta hori da gure zorra", azaldu dute udal arduradunek.

"Orain artekoak saio atseginak izan dira oso"

GEAXI EZPELETA LIBURUZAINA

Nola sortu zen egitasmoa? Liburutegian euskarazko irakurketa ohitura bultzatzeko asmoz sortu genuen. Forma ematen hastean, pentsatu nuen polita litzatekeela lehenengo saiakera berbalagun taldekoekin egitea. **Ipuin laburrak dira.** Bai. Irakurketa maila taldean parte hartzen dutenei egokitze aldera, batetik, eta bestetik bakoitzaren denbora kontuan hartuta. Hortaz, testu laburrak eta irakurterrazak dira.



LARRAITZ ZEBERIO

Zer moduz orain artekoak?

Oso ondo. 10 lagunek erakutsi zuten interesa, eta 6-7k hartzen dute parte aktiboki. Orain arteko saioak atseginak izan dira, eta balorazio oso positiboa egiten dugu. **Jarraipena izango du?** Printzipioz, bai. Oraingoek segitzeko asmoa dute, eta liburutegitik ere asmoa hori da. Datorren ikasturtean eskaintza herritar guztiei zabaltzea nahi dugu, eta egutegi bat osatzea.

Udalaren ikuspuntua

Datorren ikasturtean Elgetan Berbetan egitasmoa bultzatzen jarraituko du Udalak. "Udalak legeegintzaldia hasteaz bat erabaki zuen Elgetan Berbetan mintzapraktika saioak martxan jartzea, euskararen ezagutza zein erabilera areagotzeko bidean urratsak eman nahi dituzten herritarren eta bide horretan bidelagun izateko prest dauden artean harremanak sortu, euskara hauspotu eta euskararen normalizazioa bultzatzen duen ekintza alaiak delako. Egitasmoak duen dinamika eta erantzuna kontuan hartuta, bultzatzen jarraitzeko apustua egiten dugu", azaldu du Janire Lazkanok.

Teknikari lanposturako deialdia Orain artean Kepa de Vegak bete duen teknikari lanpostuaren deialdia egin dute datorren ikasturterako. 2017an hiru hilabeteko kontratua eskaintzen dute, astean hiru ordukoa, 2018an sei hilabetez luzatzeko aukerarekin. *lanpoltsa@topagunea.eus* helbidera bidal daiteke curriculumak, hilaren 20ra arte.

Gogorarazi dute auzi horretako lehenengo epaiagatik dagoeneko 439.342,45 euro ordaintzen ari dela Elgetako Udala. "Agintaldi honetan hasi gara ordaintzen, eta 87.868,49 euroko bi kuota ordaindu ditugu jadanik, eta aurki ordainduko dugu 2017. urteari dagokiona. Oraingo epai berri honekin, kopuru horri daintzen, kapital oso bat kalkulatzeko Gizarte Segurantzak, eta hori da gure zorra", azaldu dute udal arduradunek.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-14 EGUBAKOITZA



Txema Barrutia historialaria Elgetako artxiboan. ANE VITORIA

Elgetako artxiboaren gaineko bitxikeriak

Maiatzean Elgetako artxiboan aurkitutako dokumentuen berri eman zuten Manolo Cainzosek eta Txema Barrutiak. Orain, Elgetako artxiboen inguruko beste bi datu bitxi azaldu dira: dokumentu baten agerpena eta 1623ko maparen gaineko jatorria

Ane Vitoria ELGETA

Urte asko jardun du lanean Elgetako Kutxan Txema Barrutiak. Erretiratu zenean, Historia ikasketak egin zituen, eta, duela gutxi, Manolo Cainzosekin batera ibili da Elgetako artxiboan dauden dokumentuak txukuntzen. "Lana aurretik egina zegoen. Fernando Muñozek eta Mari Angeles Elkorok aurretik artxiboen gaineko aurkibide antzeko bat egin zuten 70eko hamarkadan, *Archivo Histórico de Elgeta* izena zuena. Euren lanak goraitu nahiko nituzke", aitortu du Barrutiak.

Hala ere, ez dute lan makala egin Muñozek eta Barrutiak. Aste Santu aldera jarri ziren martxan eta dagoeneko dokumentuak, miatu, klasifikatu, fotokopiatu eta datatu dituzte. Baita aipatutako aurkibidera datuak gehitu ere.

Era askotako dokumentuak Mende ezberdinetako dokumentuak dira Elgetako artxiboan

daudenak, eta Cainzosek eta Barrutiak horien edukien arabera klasifikatu dituzte: auziak, kaperatasunak, kontuak, korrespondentzia, buletinak, akordioak, ordenantza, zirkularrak, eta abar.

Hainbat bitxikeria

Papiro itxura duen beste dokumentu bat ere aurkitu dutela ziurtatu du historialariak: "Elgetaren eta Eibarren arteko mugak zehazten dituen dokumentua dela dirudi. Hala ere, dokumentu oso zaharra eta testua antzinako letra tipoarekin dago idatzita. Horregatik, paleografo batek dokumentu hori aztertzea funtsezkoa dela uste dut. Baina horretarako dirua behar da".

PAPIRO ITXURA DUEN BESTE DOKUMENTU BEREZI BAT AURKITU DUTE ELGETAKO ARTXIBATEGIAN

Maiatzean herritarrei erakustaldi txiki bat eskaini zitzaion orain arte topatutako dokumentuekin: Elgetako berrespenak jasotzen dituen liburu bat, 1927ko Angiozarren eta Uberaren desanexioaren gaineko dokumentua, eta 1623ko Elgeta erakusten duen mapa bat. "Mapa hura Valladolideko Kantzilerztan zegoen, garai hartan auziak bertan kudeatzen baitziren. Antza, Ana Juaristik, artxibategietan lan egiten zuen eibartar batek, Valladoliden aurkitu zuen mapa hura. Gertutasunagatik, eta atentzioa eman zionez, berak eskuratu zuen. Geroago, Juaristi Elgetako artxibategian lan egin zuen sei hilabetez eta niri eman zizkidan", azaldu du Mari Angeles Elkorok.

Dokumentuen kontserbazioa

Artxibo horiek guztiak era egokian mantentzeko, kontserbazio lanak funtsezkoa direla uste du Barrutiak; baita horien digitalizazioa ere.

Elgetako 80 urtez gorakoak gaur bilduko dira bazkaltzeko

Bi urtetik behin ospatzen den bazkaria gaur izango da arratsaldeko ordu bietan Ozkarbi elkartearen

A.V. ELGETA

80 urtez gorakoendako bazkaria bi urtetik behin egiten dute Elgetan. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatzen du. Aurren 65 pertsona gonbidatu badituzte ere, azkenean, 40 pertsona izango dira bazkarira joango direnak. Bertan izango den emakume nagusia Arantzeta Aranzeta izango da; 95 urte ditu. Gizonezko helduena, aldiz, Juan Antonio Montiel izango da, 91 urteko gizona, hain zuzen ere. 80 urte gorakoentzako bazkaria bi urtetik behin ospatzen da Elgetan: "Herri gehienetan, estilo honetako ekintzak eramaten dira aurrera eta Elgetan haxe da egiten duguna", esan du Uberak.

Urte askotxo darama Uberak bazkari honen antolakuntza lanetan, hamar bat urte inguru, hain zuzen ere. "Duela ez asko-ra arte, hiru urtetik behin egiten genuen bazkaria; orain, ordea bi urtetik behin antolatzen dugu", azpimarratu du antolatzailleak.

Aurtengo bazkaria

Gaur 13:00etan bilduko dira bazkarira joango direnak mezara

joateko; eta ondoren, ordu bietan, zehazki, Ozkarbi elkartearen egingo dute bazkaria.

Aurtengo menua beste urte batzuetan eskainitakoaren antzerakoa izango dela adierazi du Pedro Mari Uberak: "Aurren eskainiko dugun menuak hasierako platera, bigarrena eta postrea izango ditu. Lehenengo, urdaiazpikoak eta zainzuriak eskainiko dira. Jarraian, arrain zopa, eta, horren ostean, legatz frijitua. Azkenik, eta, postre bezala, tarta zerbitzatuko dugu. Eta, nola ez, ondoren, kafea zein kopatxo bat hartzeko aukera ere izango da".

Antolakuntza lanak

Uberaren esanetan, beraiek dira bazkaria antolatzeaz arduratzen diren bakarrak: "Lan guztia guk egiten dugu. Gainera, funtsezkoa da kantitateak zeintzuk diren jakitea, eta hori ere kontrolpean izaten dugu hasieratik. Izan ere, guk gertatzen dugu bazkarian zerbitzatuko den janari guztia". Hala ere, gaur joango diren gonbidatuentzako bazkaria doakoa izango dela adierazi du erretiratuen elkarteko presidentek.

Aurtengo San Roke jaiak ekintzaz josita izango dira

Domekan bertan ospatuko da San Roke eguna. Hori horrela, zapatu gaueetik domekara bitartean, 00:00etan, hain zuzen ere, su artifizialak jaurtiko dira, eta, jarraian, aurreko urteko argazkiak proiektatuko dira. Domekan, goizeko hamaika eta erdietan meza izango da San Roke ermitan, eta, ondoren, salda eskainiko zaie mezara doazenei. Horren ostean, pintxoak eta edariak eskainiko dira San Roke kalean bertan; eta, 13:00etan, triki-potea izango da. 14:30ean, bazkaria izango da San Roke kalean. Horren ondoren, dantzaldia izango da eta arratsaldeko seietan, Imanol Albusuk harri-jasotzea egingo du.

Atxarrera mendi irteera Kantsatzeke Elkartearen eskutik

Igandean izango da mendi irteera Atxarrera. Mendizaleak goizeko zortzietan bilduko dira plazan lau orduko ibilaldiari ekiteko prest. Izen-ematea udaltxean zein e-mail bitartez egin daiteke; *kantsatzeke@gmail.com* helbidera mezu bat idaztea nahikoa izango da. *Kantsatzeke* Facebookeko orrian ere eman daiteke izena, eta bertan bete beharreko datuak hauek dira: izen-abizenak, telefono zenbakia eta autoa eramateko prestutasuna –bai edo ez azaldu beharko da–. Mendi ibilaldi honetan parte hartzeko baldintza bakarra adinez nagusia izatea da; eta bertan izan nahi duenak hamar euro ordaindu beharko ditu.



Garagargo azokan, Iaz. GOIENA

Zabaldtu ditu ateak XI. Garagardo Azokak

Atzo zabaldtu zituen ateak Aloña Mendi Kirol Elkartek antolatzen duen XI. Garagardo Azokak. Berrikuntza gisa, Kilkeny garagardo irlandarra eskainiko da aurten eta garagardo pitxerrak 4,5 euro balioko du, aurreko urteetan baino 50 zentimo gehiago

Miren Arregi OÑATI

Dagoeneko egutegian egonkortu den hitzordua du asteburuan Aloña Mendi Kirol Elkartek; izan ere, Garagardo Azokaren hamaikagarren edizioa egingo da. Beti bezala, plazan ipini dute herritarrei garagardo eta jateko eskaintza zabala eskainiko dien karpa. Atzo 19:00etan zabaldtu zituen ateak XI. Garagardo Azokak. Gaur ere ordu berean zabalduko da eta bihar eta etzi, eguerditik aurrera egongo da azokaz gozatzeko aukera.

"Hamar bat" garagardo mota

Garagardo eskaintzari dagokionez, honako hau dio Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidente Anton Inzak. "Hamar bat garagardo mota egongo dira bisitariaren eskura". Horien artean daude aurreko urteetan eskaini izan dituztenak: Amstel, Radler, Murphys, Paulaner, Guinness, eta abar. Aurten, berrikuntza gisa, Kilkeny garagardo irlandarra ere egongo da. Garagardo

horiek eskatzeko Aloña Mendi-ko intsignia daraman pitxerra hartu beharko da, 4 euroren truke, eta gero, entregatzerakoan bueltatuko dira euroak. Garagardo pitxer bakoitzak 4,5 euro balioko du –aurreko urteetan baino 50 zentimo gehiago–, baina badira salbuespenak: Radler 3 eurotan salduko da eta Buckler 2 eurotan.

Jatekoa ere, eskura

Jakiei dagokienez, ez da berrikuntzarik egongo. Beti bezala, txerri-ukondoa, oilaskoa eta saltxitxak eskainiko dira. Lehenengo 10,5 euroren truke eta beste biak, 5 eurotan. Postrera-ko bi aukera eskainiko dira: batetik, bomba, eta bestetik, sagar-tarta. Biak ala biak, 2 eurotan.

Sailen arteko elkarlana

Bi helburu ditu azoka honek: batetik, elkarteko sail ezberdinen arteko elkarlana sustatzea eta, bestetik, elkartearen behar eko-

nomikoetarako finantziazio iturri izatea. "Iaz, esaterako, 5.000 euro atera ziren. Ez da asko, gero sail guztien artean banatu behar delako eta bakoitzarendako 500 euro gelditzen delako, baina dagoeneko egutegian egonkortuta dagoen zerbait denez animatzen gara antolatzera", dio Anton Inzak. Gaineratu du diruz nahiko justu ibiltzen direla eta aurten garagardo batzuen prezioak igotzea erabaki dutela. Esan bezala, pitxer bakoitzak 4,5 euro balioko du aurten, Iaz baino 50 zentimo gehiago.

Atzo, saskibaloiz sailarena izan zen garagardo azoka kudeatzearen ardura; gaur, berriz, eskubaloiz sailari egokitu zaio. Bihar, eguerdian, gimnasiakoak eta atletismokoak arituko dira eta arratsaldean karate eta futbol sailetako kideak. Domeka eguerdian txirrindularitza eta pilota sailetakoak egongo dira zerbitzatzen eta desmuntatze lanetan igeriketakoak eta triatlloi taldekoak ibiliko dira.

EGUBAKOITZA 2017-07-14 GOIENA ALDIZKARIA

NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Askatasunzale

Historian zehar eta gaur egun ere, askatasuna da gizakiok gehien estimatzen dugun baloreetako bat. Maite dugu askatasun politiko eta erlijiosoa, askatasun ekonomiko eta soziala, erabakitzeko eta adierazteko askatasuna... Eta gai hauetan lorpenak handiak izan badira ere, oraindik badago zer landua.

Askatasun betearen bilaketak, ordea, beste modu bateko galderak ere sortzen dizkigu. Adibidez: zer askatasun bizi dut? Libre al naiz ni neu izateko? Libre al naiz gizarteak eta ingurukoek txalotzen ez dituzten aukerak egiteko? Libre neure buruarekiko? Libre doakotasunerako? Libre al naiz egiazko maitasuna bizitzeko?...

Kanpotik ezarritako kateek, noski, baina batez ere barruan sortzen zaizkigun korapiloek, asko mugatzen digute, nire ustez, askatasunaren bizipena. Askatasunzale finak bagara, txoriaren hegoak desio baditugu, asmatu beharko genuke orduan korapilo horiei hari-muturra aurkitzen eta irtenbide askatzailea eskaintzen!



Ibarrako aisialdigunean tirolina ipintzen. MIREN ARREGI

Skate eta gazte aisialdigunea osatzeko lanak aurrera doaz

Skategunean patinatze elementu berriak ipiniko dira eta skategunearen goialdeko belardian, tirolina

M.A OÑATI

Joan den astean hasi zituzten, Ibarran, skate eta gazte aisialdigunea osatzeko lanak. Tirolina ipiniko da, lehenik, eta patinatze elementu berriak, ondoren.

Manufacturas Deporticas enpresa ari da tirolina muntatzen. Skategunearen goialdeko belardian kokatuko da, 20 metro luze izango ditu, eta 50 zentimetroko desnibela. Horrez gain, eserlekudun hiru mahai ipiniko dira eta 50 metroko egurrezko itxitura egingo da. Tirolinara iristeko bidexka bat

ere egokituko da. Skate parkeko lanak laster baten hasiko dituzte. Patinatzaileendako elementu gehiago jarriko dira, ia 52 metro luze eta 6-8 metro zabal hartuko duen plataforman. Gainera, skategunea alboko bidegorritik bereizteko babes elementuak ipiniko dira. Lanok Contratas Fer enpresak egingo ditu. Ibarrako aisialdigunea osatzeko lanak *Aurrekontuak arazerixan* prozesuaren ondorio dira; izan ere, orduan egin zuten gaztetxoek skategunea osatu eta tirolina jartzeko proposamena.

Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak

Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...

BERGARA
PNEUMATIKOAK

- Pneumatikoak
- Olio aldaketak
- Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 763627 • 638 26 77 64
bergarapneumatikoak@gmail.com | www.bergarapneumatikoak.com

T. Blanco
AUTO CREW BOSCH

Mekanika
Elektrizitatea
Mota guztietako pneumatikoak

NISSAN Erakusketa eta salmenta:
Amillaga 22, BERGARA • Tel.: 943 76 17 35

KIA

Txapime Autoak

Debagoieneko
KIA ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA
30 urte baino gehiagoko esperientzia
Chapimeren eskutik
ABUZTUAN ZABALIK!!!
San Andres Auzoa, 5 - Arrasate - Tel.: 943794522

Gallastegi
MOTORSPORT

GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA

VAGSPEED

Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58

Mekanika orokorra.
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza.

reprogramazioko
etxeen banatzaile
ofiziala.

GARAJE BERRIA
MULTIMARKA

Eskaintza
handiak Km 0 eta
bigarren eskuko
autoetan!

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak

Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara

fordberria@telefonica.net • www.garajeberria.com • garajeberria@gmail.com

ad Ibabe
G A R A J E A
TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA

Gesalibar auzoa 31
Tel.: 943 79 99 61
Faxa: 943 79 13 90

OÑATI GARAJE A

Marka guztietako autoen konponketak • Aseguru guztiekin lana egiten dugu

Goribar auzoa 9 • Tel.: 943 78 13 50 • garageonati@euskalnet.net



RENAULT
Passion for life

AUTOBERRI S.L.

San Andrés Auzoa, 5 Arrasate
Tel.: 943 71 24 72 • www.autoberri .com
E-maila: autoberri@red.renault.es

Renault Minutua: mantentze-lanak, pneumatikoak, ITV aurrekoa, eta abar.
Mekanika, karrozeria, karrozeria azkarra.



CITROËN
ION AUTOAK

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36

Bergara

Tel.: 943 76 47 49

automovilesion@hotmail.com



MARKIEGI AUTOAK

Mota guztietako autoen eta autokarabaren konponketa lanak egiten ditugu!

Leizeaga, 1 • 943 76 35 09 • BERGARA
markiegiautoak@telefonica.net



AUTOAREN KRISTALDEGIA

INPAKTUEN KONPONKETA

LAMINA SOLAR
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA



Santalaitz, 6-5.
Pab.- BERGARA
ITVaren kalean
Tel.: 943 76 36 09
www.desacristal.com

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Salmenta eta salmenta osteko
zerbitzu osoa

OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA
TAKOLO
AUTOAK

San Andres 10 D • Tlf.: 943 77 30 10

Salmenta

Mekanika

Elektrizitatea

Pneumatikoak



CITROËN
Talleres Chapime, S.C.L

Debagoieneko Kontzesionario Ofiziala

San Andres Auzoa 5 ARRASATE

www.tchapime.citroen.es

e-maila: chapime@chapime.redcitroen.com

Mekanika, karrozeria, pneumatikoak, garbiketari, beiren aldaketa eta tindaketa

ALMACENES LASCAR

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK

a.laskar@laskares • www.laskares
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11



Xabier Gordoa, Salome Campos zeharkaldian. FESTAK.COM



Gordoa, Zumaian. FESTAK.COM

Getaria-Zarautzen maila ona erakustea helburu

Hasi da itsas zeharkaldien denboraldia eta Xabier Gordoa oñatiarra maila ona erakusten ari da, aurten parte hartutako lau zeharkaldietatik bitan igo baita podiumera. Bihar Ondarroan du hitzordua eta datorren astean, Getaria-Zarautzen

Miren Arregi OÑATI

Itsas zeharkaldiak dira Xabier Gordoa (1990) igerilari oñatiarraren pasioetako bat eta uda da horiek egin eta ipinitako helburuak betetzen saiatzeko garaia. Denboraldia hasi da Gordoarendako, dagoeneko lau zeharkaldi egin baititu, eta lautik bitan podiumera igo da, gainera. Hain justu ere, hirugarren sailkatu da Kantabriako *Los 10.000 del Soplaio* proban eta postu hori bera eskuratu du Mutriku-Deba (3.000) zeharkaldian. Lekeition ere egon da. Eta Euskal Herritik kanpo ere bai; Mallorcako elite mailako proban 23. sailkatu da. Bihar du hurrengoa, Ondarroan (1.600 metro), eta datorren domekan, kuttunen duen Getaria-Zarautz zeharkaldia egingo du (2.800 metro). "Helburua da ahal bezain ondoen egitea, baina zaila da jakitea, norbera baino hobeak direnak joaten badira, haien atzetik sartuko naizelako eta joaten ez badira, aurrean ibiltzeko aukera izango dut", dio

Gordoak. Itsasoko baldintzek ere badute horretan eragina; izan ere, "itsaso txarrarekin gaztetxoago direnak ez dira hain ondo moldatzen". Eta erantsi du: "Itsasoa ez da igerilekua, eta orientazioa ere garrantzitsua da. Esperientziak asko balio du halakoetan".

Getaria-Zarautz, garrantzitsua Helburu moduan, zeharkaldi luzeetan ondo ibiltzea ipini zuen Gordoak denboraldi hasieran, eta horiek txukun egitea lortu du oñatiarrak. Bigarren helburua da Getaria-Zarautzen marka ona egitea: "Beste zeharkaldietan 300-400 pertsona ibiltzen gara eta Getaria-Zarautzen 2.800 in-guru izango gara, han izango

"GETARIA-ZARAUTZEN, EUSKAL HERRIKO IGERILARI ONENEGIN AURREAN IBILTZEA POLITA LITZATEKE"

dira Euskal Herriko igerilari onenak, eta aurrean ibiltzea polita litzateke". Iaz bederatzigarren izan zen lasterketan eta denbora oso txukuna egin zuen.

Hasiera ona egitea, gakoa

Lasterketaren gakoez galdetuta, Gordoak dio berak hiru fasetan banatzen dituela zeharkaldiak: "Lehenengo 500 metroak garrantzitsuak izango dira, taldetxoak osatzen diren momentuan aurrean mantentzea garrantzitsua baita eta horretarako esprinta egin behar izaten da. Zarauzko porturaino taldean jarraitzea ere bada gakoa eta errekupe-ratzea, ahal den neurrian, gero beste 500 metroko esprinta datorrelako".

Abuztuan ere zeharkaldiak

Uztailaren 29an Ean (Bizkaia) egingo du zeharkaldia eta 30ean Legution. Lakuan da hori, eta lehenengoz egingo du. Abuztuaren 19an Zumaian izango da, eta 27an Donostian.

EGUBAKOITZA 2017-07-14 GOIENA ALDIZKARIA

Bost proposamen zehatz, hondakin bilketa hobetzeko

Hondakin bilketa sistema hobetzeko bost proposamen zehatz egin dizkio Oñatiko Udalak Mankomunitateari

M.A OÑATI

Bi urteko agintaldiaren gainean herritarrek duten iritzia jakiteko berriki egin duten inkestan, Oñatiko Udalak ondorioztatu du "egungo bilketa sistema herrian ondo onartuta dagoela, nahiz eta sistemak hobekuntzak behar dituela agerikoa den". Hori da inkestaren emaitzak kontuan hartuta atera duten ondorio bat, eta sistema hobetze aldera bost proposamen egin dizkio Debagoieneko Mankomunitateari.

Inkestaren emaitzak

Izan ere, "nahiz eta hondakin bilketa sistemak onarpen maila altua izan –%79,3–, galdetuen %30ek sistemak hobekuntza batzuk behar dituela" azaldu dute. Bestetik, herritarren %21ek sistema aldatzearen aldeko hautua egiten dute.

Emaitzak kontuan hartuta, "behin birziklatze maila altua lortu ostean", batez ere, "intzidentziak murriztea eta herritarrei bilketa erosoa egitea" dira Udal Gobernuak ikusten dituen helburu nagusiak. Intzidentziei erreparatuz gero, apurtuta eta galduta bezala agertu-

riko kubo kopuruak minimotara jaistea da helburua. Hala, joan den uztailaren 5ean Mankomunitatean egindako batzordean, bost proposamen zehatz egin zituen Mikel Biain alkatea: batetik, haizteei aurre egiteko, esekitokietan herdoilgaitzak diren krisketak jartzeta–2.768 krisketa ipintzeko aurrekontua 14.903,57 eurokoa litzateke, BEZa barne–. Alkate Mikel Biainek adierazi du begi onez ikusi dutela Mankomunitateko teknikariek irtenbide hori. Bigarren proposamena ere haizteeekin lotutakoa da, eta, kasu honetan, herriko lau puntutan haizetik babesteko egitura metalikoak jartzeko proposamena da–6.500 euroko aurrekontua izango luke horrek–. Hirugarren proposamena da plastikozko kubo modeloa aldatzea–hain hauskorra ez den batera–. Laugarrena, kartoia eta papera modu komunitarioan kudeatzeko aukera berriz ere zabaltzea. Eta bosgarrena, esekitokietan eta kubotan kodigoaren azken bi zenbakiak letra larritz idatzea, langilearen lana erraztu eta herritarri bere kuboa bereizteko erraztasunak emanaz.

Profesionalek kaligrafiatutako euskarazko poemak erakusgai

'Kaligrafia Arantzazun: idazkera ederraren artea' erakusketa zabalduko da gaur, Gandiaga Topagunean

M.A OÑATI

Proposamen berezia eta bakarra da honako hau; izan ere, profesionalak kaligrafiatutako euskarazko poemak aurrenekoz erakutsiko dira. Ivan Castro, Ewan Clayton, Allan Daastrup, Jota Dominguez, Esther Gordo, Joluvian, Victor Kams, Oriol Miro, Mr. Ze, Josemaria Passalacqua, Joan Quiros, Esperanza Serrano eta Bego Viñuela kaligrafoek Salbatore Mitxelenaren *Arantzazu: euskal-sinismenaren poema* (1949) liburuan jasotako zenbait olerki izkiriatu dituzte.

Kaligrafia-erakusketa hori Arantzazu Letraz Gunea proiektuak 2015ean abian jarritako Kaligrafia Jardunaldien hirugarren ekitaldiko ekintza-programaren baitakoa da. Gaur, egubakoitza, aurkeztuko da erakusketa eta bertan izango dira Allan Daastrup, Oriol Miro eta Bego Viñuela kaligrafoak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Diseinu Grafikoko irakasle Leire Fernandez eta Eduardo Herrera. Gaurtik irailaren 17ra arte egongo da erakusketa ikus-tekko aukera.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-14 EGUBAKOITZA



2014an eguraldiak ez zuen lagundu, eta ziklistek zirkuitu lokaztuari egin behar izan zioten aurre. GOIENA

Zirkuitu berriarekin dator Aramaioko Opena

MENDIKO BIZIKLETA Azken urteotan Barajuengo auzoan egin dute Euskadiko

Txapelketarako baliagarria den lasterketa, baina domekan Ibarra izango da irteera eta helmuga (11:00). Aramaioko bost txirrindulari izango dira irteera puntuan

Xabier Urzelai ARAMAIO

Zirkuitu berriarekin dator Aramaioko mendi bizikleta lasterketaren 10. edizioa –Euskadiko Openeko hamargarren proba da–. Eta, Barajuenen beharrean Ibarra, kalean bertan, hasiko dute proba: "Hainbat lagunen artean adostutako erabakia izan da, azken urteotan Barajuengo lurretan egin du proba, eta aurten kalera jaistea erabaki dugu. Hainbat arrazoi egon dira horretarako. Batetik, orain arte zirkuitua egon den tokian pinuak ateratzen ibili dira, eta ostera ere zirkuitua txukuntzeko lan handia egin behar genuen. Egia esan, zirkuitu berria egiteko egin beharreko lana ere ez da txikia izan, baina Ibarra az-

piegitura gehiago ditugu: "Ziklistendako aldagelak eta dutsak, automobilak aparkatzeko leku gehiago...", adierazi du antolaketak taldeko kide Martin Arriolabengoak.

Zirkuitu berriaren gaineko xehetasunak ere eman ditu: "Bost kilometro eta erdi dituen zirkuitua da, eta denetik du, nahiko osoa da. Ziklistek proba hasi eta aldapa gora egin behar dute, nahiko igoera gogorra da, gainera. Lehenengo kilometro eta erdian 400 metroko desnibela gaindituko dute, eta, ondoren, beherantz egingo dute. Hor tarte teknikoak eta jaitsiera azkarrak tartekatuko dituzte; egia esan, gustura geratu gara zirkuitu berriarekin", dio

"ZIRKUITU BERRIAK DENETIK DU, IGOERAK, ZATI TEKNIKOAK ETA JAITSIERA AZKARRAK"

Arriolabengoak. "Baina, antza, jaitsieran nahiko zaila da jendea aurerratzea, bidetxur asko dagoelako; horrenbestez, aldapa gora egin beharko dira diferentziak".

Ander Bengoa, aurrealdean

Lasterketa etxean izanda, elite mailako sailkapen orokorrean aurrealdean dabilen Ander Bengoak pauso bat eman gurako du aurrera, zaleen animoek lagunduta. Ez da izango, baina, irteera puntuan izango den aramaior bakarra: Mikel Berasaluze (master 30), Iker Beitia (master 30), Julen Olaizola (kadetea) eta Julen Arriolabengoa (kadetea) ere lasterketan izango dira, eta eu-reakin batera ibarreko beste hainbat ziklista ere bai.

Bi minutuko tartearekin

Proba 11:00etan hasiko dute elite eta 23 urtez azpikoek, eta bi minutuko tartearekin joango dira abiatzen gainontzeko kategorietako ziklistak.



Kantoikriteko aurkezpena, aste barruan. GOIENA

Kantoikriten seigarren edizioa Atzeko kalera dator bueltan

TXIRRINDULARITZA Zapatuan ziklistek 15 itzuli eman beharko dizkiote zirkuituari, 24 kilometro egiteko

X.U. OÑATI

Kantoikrit bizikleta lasterketaren seigarren edizioa da bihar-koa (22:00). Ibilbideak 1.600 metro izango dituenek, bira kopurua 15ekoa izango da. Lasterketak 24 kilometro izango ditu. Ibilbideari dagokionez, aurreko urtekoaren antzekoa izango da, baina, Atzeko kaleko obrak amaitu dituztenek –iaz obretan zebiltzan–, bertatik ere pasako dira txirrindulariak.

Lasterketa 22:00etan hasiko dute –ziklistek 20:00etan jaso beharko dituzte dortsalak– eta 21:30erako zirkuitua itxia egon-

go da. Sari banaketa ekitaldia, berriz, 23:00etan izango da.

Bi berrikuntzarekin dator proba

Itzuli-kontagailu digitala jarriko dute bigarren motorrean. Bestetik, lasterketaren gaineko *streaming* bidezko hedapena egingo dute –aurkezpenen zehazteke zeukatzen helbidea, baina egunotan emango dute aditzera–. Modu horretan, helmugako irudiak Interneteko helbide batean eskainiko dituzte. Aste barruan izenemate kopurua ez zen handia, baina asko dira azken orduan animatzen direnak.

Garazi Estebezek urrea eta brontzea Euskal Selektzioarekin

TXIRRINDULARITZA Avilan egin duten Espainiako

Txapelketetan izan da Aretxabaletako ziklista

X.U. ARETXABALETA

Asteburu emankorra izan da Garazi Estebezendako. Euskal Selektzioa ordezkatzuz Espainiako Txapelketan hartu du esku, eta bi domina horiek eskuratu ditu, errepideko lasterketan bata, eta erlojupekoan bestea.

Euskal Selektzioa, lehenengo

Domekan, ziklistek 42 kilometroko lasterketa izan zuten. Hainbat ihesaldi saiakera egon ziren, baina Amondarainek aurrera egin eta bederatzik lagun geratu ziren aurrean –tartean

lau euskaldun–. Hala, Euskal Selektziokoan etengabeko eraso saiakeren ondoren esprinterak iritsi ziren, eta, Estebezek lagunduta –bosgarren–, Lartitegi izan zen azkarrena eta taldeko urrea irabazi zuten euskaldunek.

Brontzea erlojupekoan eskuratu zuten, zapatuan. Euskaldunek 10.45eko denbora egin zuten, eta Gaztela eta Leonen (10.37) eta Madrilén (10.41) atzetik geratu ziren. Bi horiei *trasmoota* egin izana leporatu zieten, baina epaileek ez zuten euren kontrako erabakirik hartu.

"Norbera zein den jakitea da hemen garrantzitsua"

ASIER GARITANO LEGANES TALDEKO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA Herrian egin ditu oporretako azken egunak; eliteko entrenatzaileen itxurakeriatik urrunduta, aurten ere bergarar bat gehiago izan da San Martzialgo jaietan

M. Bikuña / X. Urzelai BERGARA

Asier Garitanok etxean pasa ditu oporraldiko azken egunak, Bergaran. Astelehenean hasi zuen Leganes taldearekin egin-go duen bosgarren denboraldia, eta bigarrena izango da maila gorenean. Iazkoarekin alderatuta, aurten txukunago ekingo diote urteko prestaketa lanari. **Lanera bueltatzeko gogo, ala nagikeria apur batekin?**

Biak, egia esateko. Batetik, oporretan egon ostean beti kostatzten da apur bat martxan jartzea, baina, bestetik, ilusio handia dugu denboraldia hasteko. **Maila gorenean egingo duzuen bigarren urte hau ere ez da erraza izango...**

Ez, ezberdina izango da. Denek esaten dute mailaz igotzerakoan lehenengo urtea oso zaila izaten dela, baina ilusio galanta egoten dela. Bigarren urte hau ezberdina izango da, baina ilusio berberarekin gaude.

Iaz baino jokalaria gehiagorekin hasiko duzue denboraldi-aurrea.

Bai, hor alde nabarmena ikusi dugu. Iaz inork ez zuen guregana etorri gura, zailtasun handiak izan genituen jokalariaik fitxatzeko, eta Gabonetarako egoera hori aldatu egin zen, ikusi zuten proiektu serioa geneukala. Iaz hamar jokalarirekin hasi ginen uztaillean entrenatzen, aurten hamasei jokalaria ditugu. Baina utzitako horrenbeste jokalaria izan beharrean Leganesek patrimonioa handitu behar du, eta komeni da jokalariai jabetzan izatea.

Kirol instalazioetan ere aurrerapauso eman duzue.

Bai, iaz futbol zelai bat baino ez geneukan, eta orain dauka-gunari ez diot Kirol Hiria deituko, baina instalazio txukunagoak ditugu. Garrantzitsua da jokalariaiok batera gosaltzeko leku bat izatea, elkarrekin bazkaltzeko leku bat... Jokalaria gustura egotea garrantzitsua da,



Asier Garitano, Bergaran. GOIENA

"IAZ JOKALARIEK EZ ZUTEN GUREGANA ETORRI GURA; HORI ALDATU EGIN DA, ZORIONEZ"

eta instalazio egokiak izateak laguntzen du horretan. **Zaldua, Cuellar, Raul Garcia... beste lauzpabost fitxatu gura dituzue.** Nik uste dut uztaillean beste jokalariren bat fitxatzeko gai izango garela, eta ondoren, beste klubetan denboraldi-aurrea egin baina taldea utziko duten horiengan jarriko dugu begia. Ea nork betetzen duen guk behar dugun hori. Athleticekin, esaterako, hartu-eman ona dugu, eta ea aurten ere norbait ekar dezakegun. **Iaz gol gutxi egin zituen Leganesek. Horrek aurreko lerroa indartzeko beharra erakusten du?**

Ez dauka zertan. Iazko gure helburua gol gutxi jasotzea zen, askotan hor egoten delako aldea. Ez da horren garrantzitsua norberak zenbat gol egiten dituen, eta bai zenbat gol jasotzen dituzun. Beti jartzen dut adibide

bera: Osasunako Sergio Leonek hamar gol inguru egin ditu aurten, baina Osasunak 80 gol inguru jaso ditu; horrenbestez, egindako gol horiek gutxirako balio izan dute. Guk, berriz, 50 gol jaso ditugu, eta hor dago gakoa. 30 goleko alde horrek eman digu beste urtebetez Lehenengo Mailan jarraitzeko aukera.

Abuztuaren 20tik aurrera hasiko duzue ostera ere borroka. Baina benetako lehia talde gutxi batzuen artean izango duzue.

Bai, talde handiekin alde handia dagoelako. Aurten Bartzelonaren kontra azken minutura arte borrokan egon gara. Sevillan berdintzeko gauza izan ginen, baina 38 jardunalditako txapelketa batean horiekin ez dago zeregirik. Badakigu aurtengo denboraldian ere ze talde ibiliko garen atzealdeko postuetatik ihes egiteko borrokan: mailaz igo diren hiru taldeak hor ibiliko dira, Leganes ere hor izango da, eta beste pare bat talde gehituko nituzke. Egoera horretan batzuk urduri ibiliko dira, eta horretaz baliatuko gara gu. Norbera zein den garbi izatea da hemen garrantzitsuena.

JOAN ZAIGU



Enrique San Nicolas, 2002ko irailaren 21ean egin zioten omenaldian. BERRIGARA

Enrique San Nicolas, Bergarako atletismoaren erreferente

ATLETISMOA Uztailaren 8an zendu zen 1970 eta 1985 urte bitartean herriak izan zuen atleta nabarmenena

X.U. BERGARA

Atleta bergararrek erreferente garbia izan zuten 70eko eta 80ko hamarkadetan, Enrique San Nicolas. Atleta ona izan zen, Espainiako txapelketa irabazi zuen salto hirukoitzean, baina atletismoarekin izandako hartu-emana ez zen arlo pertsonalean egindako kirol lorpenetara mugatu, herrian horrenbeste maitatu zuen kirol jarduera zabaltzen ahalegindu zen, eta, eskura zituen baliabideak oso mugatuak baziren ere, Gipuzkoa mailan Bergara Kirol Elkarte nabarmen-tzeko lan egin zuen.

Urrezko urteak

Hain zuzen, haiek izan ziren Bergarako atletismoaren urrezko urteak, ordukoak dira-eta mahoneroen kirol lorpen handienak. Sasoi hartan irabazi zuen Agustin Loidik disko jaurtiketan Espainiako Txapelketa,

eta beste horrenbeste egin zuen Jose Luis Garmendiak pisu eta disko jaurtiketan. Jose Acedok 100 metroko hesi lasterketan urrezko domina jantzi zuen Espainiako Txapelketan eta Valentín Gantxegik 1.500 metrokoan. Eta eurekin batera, San Nicolasen eskolakoak izan ziren Ismael Arrieta, Rafael Ogueta, Maiztegi, Jose Maria Rubio, Javier Acedo, Iñaki Badiola eta beste hainbat eta hainbat atleta bergarar. Eta, gizonezkoekin batera, gauza bera esan daiteke emakumezkoen gainean ere, Pili Arin buru, beste zenbait atleta entrenatu zituen-eta Enrique San Nicolasek.

Eurekin guztiekin zabaldu zituen atletismoaren gainean zekizkien guztiak, eta Seat 600 gidatzen batera eta bestera eramane zituen atleta horiek, txapelketetan parte hartu zezaten. Goian bego.

FUTBOLA Kuadrillen Arteko Futbol Txapelketa Ibarrran

"Bistan dago ligak amaitu eta gutxira jokalariei futboleant jokatzen hasteko gogoia etortzen zaiela ostera ere, eta urte osoan jokatu ez duteneko uztaillean futboleko botei hautsa kendu gura izaten dietela", adierazi du antolaketa taldeko kide Zangituk. Aste barruan dagoeneko 15 taldek emana zuten biharko txapelketarako

izena. Asmoa zen atzo, egue-na, izen-emate epea ixtea, eta gaur, egubakoitza, txapelketako ordutegiak antolatzea: "Taldea kopuruaren arabera egingo dugu hori. Goizetik hasiko ditugu norgehiagokak, eta finalak arratsalde edo iluntze partean jokatuko ditugu. Eta, informazio hori guztia egubakoitzean [gaur] pasako diegu taldetako ordezkariel". Guztira, 200 lagun inguru batuko dira futbol torneon.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-14 EGUBAKOITZA



Topa taldeko dantzariak. WWW.UMOREAZOKA.ORG

Dantza ikuskizunez disfrutatzeoko aukera

Dantza ukitu berezia du aurtengo Udazabal egitasmoak, eta horren seinale dira gaur arratsaldean eskainiko diren ikuskizunak. Bi talde izango dira gaur, Topa eta Fade Away, eta biek estilo ezberdinak uztartzen dituzte euren ikuskizunetan

Ane Vitoria ARRASATE

Topa taldeak dantza tradizionala eta hip hopa uztartzen ditu. Lau dantzarik osatzen dute taldea; horietako bi Euskal Herriko Kukai Dantza taldeko kideak dira, eta dantza tradizionalen eta garaikidean buru-belarri dabilta. Beste biak Kataluniako Brodas Bros konpainiako kideak dira, hip hop estiloa lantzen duen konpainiakoak, hain zuzen. "Hasieran, jatorri tradizionala eta hip hopa batzea arraroa badirudi ere, leku ezberdinetatik etorritakoak direla ez da igartzen", esan du Kukai dantza taldeko zuzendari Jon Mayak.

Iaz Max sarien galan elkar ezagutu zuten Kukaikoek eta Brodas Brosekoek, eta oso *feeling* ona izan zutela esan du Mayak: "Bi taldeen artean *fletxazoa* izan zen. Elkarrekin zerbait polita sortu genezakeela uste genuen, bi taldeok dantza indartsu, alai eta dinamikoak egiten ditugulako. Gainera, ikuskizuna kanpotik oso modu errazean ikusten

da". Gaur eskainiko duten ikuskizunak ordu erdi iraungo du, eta askotariko publikoarendako dago egina: "Ikuskizunaren *look*-a gaztea da; hau da, dantzariak arropa bakeroak erabiltzen dituzte eta musika elektronikoa gailentzen da. Hala ere, publiko zabalarentzat egina dago", esan du zuzendariak.

Emanaldi mordoxxa

Azken boladan oso lanpetuta dabil Topa taldea. Besteak beste, Zipren, Madrilan, Costa Rican eta Gironan izan dira. Eta Euskal Herrian ere hainbat lekutan izango direla ziurtatu du Mayak, hala nola Elorrión, Erreterian eta Zornotzan.

DANTZA ESTILO EZBERDINAK UZTARTZEN DITUZTE GAUR IZANGO DIREN BI IKUSKIZUNEK

Dantza garaikidea eta urbanoa

Biopiracy proiektuaren bigarren parte da *Fade Away*. Ziomara Hormetxe dantza konpainiaren eskutik dator dantza ikuskizun hori, Toparekin batera gaur arratsaldean izango dena. "Bigarren atal hau etorkizun utopiko baten isla da, non gizatasuna nolabait alde batera uzten den. Sentimenduak eta emozioak erradikalizatzen dira eta robot bilakatzen gara", esan du dantzariak. Horretarako, mugimendu desartikulatuak lantzen dira, eta Hormaetxerekin batera beste bi dantzari izango dira, dantza urbanotik datozenak. "Dantza garaikidea lantzen da, baina urbanoaren pintzeladak ere baditu. Gainera, hiruron artean, koreografikoki joko antzeko bat sortzen dugu", azpimarratu du.

Ikuskizunaren kaleko formatua Arrasaten estreinatuko da, baina barruko ikuskizunarekin Hego Korean izan da taldea eta abuztuan Detroiten izango da, Ameriketako Estatu Batuetan.

Ekonomiaren eta kulturaren arteko uztarketa mintzagai

Xabier Alkorta ekonomistak 30 urteko ibilbidea egin du kutxetan; orain, Eusko Ikaskuntzan dago murgildurik

A.V. ARRASATE

Kulturaren eta ekonomiaren gaineko solasaldia ikusteko aukera izango da datorren egue-nean, uztailaren 20an, 21:00etan, Goiena telebistak eskainiko duen *EKT* (Euskal Kulturgintzaren Transmisioa) saioan. Oraingo honetan, herri honen eraikuntza ekonomiaren ikuspegitik eza-gutza zabala duen Xabier Alkorta da gonbidatua (Donostia, 1949).

Familia xume baten barruan jaioetakoa, aurrezki kutxetan egin du nagusiki bere ibilbide profesionala. Gipuzkoako Kutxa Munizipalean hasi eta Gipuzkoako kutxetan jarraituta, 30 urteko ibilbidea izan du Alkortak. Orain, jubilatuta dago, baina ez dago guztiz erretiratuta; izan ere, Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko ekitaldiak antolatzen ari da.

Eusko Ikaskuntzan murgildurik Eusko Ikaskuntza erakundea funtsezkoa da ekonomistarentzat. "Garrantzitsua da epe luzeko erreferentziak izatea; eta erakundeak horretan dihardu lanean". Datorren urtean, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena izango da, eta, ospatzeko, azaroan Euskal Herriko lurralde ezberdinetan hainbat kongresu izango dira. Azkena Oñatin ospatuko da, bertan egin baitzen lehenengo kongresua duela 100 urte.



Bergarako korua Vatikanon

Joan den astean, Bergarako parrokiako koruak Vatikanoko San Pedro basilikan izan zen mezan abestu zuen; uztailaren 6an, hain zuzen ere. Pablo Colinori elizgizon eta musikariari esker lortu zuen Bergarako koruak lehendabizikoz bertan kantatzea. Irteera horretan "ardura, urduritasuna, konpromisoa..." sentitu zutela dio koruko kide Miren Azkaratek.



2017ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko irabazleak. AITOR AGIRIANO

Euskal kultura ekoizpenei saria

Goiena Komunikazio Taldeak ekoiztutako 'Kulturrizketak' saiok jaso zuen zapatuan Andoaingo Udalak deitutako Rikardo Arregi Kazetaritza Sari nagusia. Iñigo Astiz kazetariari eta Maite Mutuberria ilustratzaileari eman zien epaimahaiak sari berezia



Alex Sardui Gatibu taldeko abeslariaren eta Alaia Martin bertsolariaren irudiak. JULEN RIBAS

Julen Ribasen marrazkiak protagonistentzako opari

Goienako zuzendari Iban Arantzabalek egin zion *Kulturrizketak*-eko protagonisten marrazkiak egiteko enkargua Ribas arrasatearrari. "Unai Iturriagarekin berbetan atera omen zen nire izena; *Xabiroi* komiki aldizkarian kolaboratzen dugu Iturriagak eta biok. Banuen saioaren berri, behin baino gehiagotan telebistari itsatsita geratu izan gara hari begira; hortaz, lanez lepo izan arren, segituan eman nion baiezkkoa. Erretratua baino gehiago, azkar egindako zirriborroak dira: pantaila-irudi bat egin eta akuarela orri on batean marraztu eta akuarelaz koloreztatu nituen gero. Erronkarik handiena antzekotasuna izatea izan zen".

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Aste batzuetan etxe barruan gordetako berria publiko egin zen zapatu eguerdian. "Aurten-go Rikardo Arregi Kazetaritza Sari nagusia Goiena Komunikazio Taldeak ekoiztutako *Kulturrizketak* elkarrizketa solasaldiarentzako da", iragarri zuen Manu Etxezortu aurkezleak Andoaingo Bastero Kulturgunean egin zuten ekitaldian. "Europako edozein telebistak egin lezakeen saio modernoa da. Bizi garen garai bizkorretan pausaldia egiteko aukera ematen du modu atsegin eta entretenigarrian, eta, aldi berean, arinkeriari urrun. Ikus-entzulea behala harrapatzen du elkarrizketak, solasean ari direnak zainahi izan. Bestetik, saiok ez du adin edo sexu bereizketarik egiten, ondo orekatuta dago edozeinek abaro egin dezan bertan. Saioa borobila da, hasieratik amaieraraino", irakurri zuen Patxi Baztarrikak, epaimahaiaren idazkariak.

Goiena telebistako zuzendari Oihane Agirre eta saioko lan-taldea izan ziren Txomin Madina, Monika Montero, Andoni Bodes eta Mikel Ezkerro; Jagoba Domingo falta zen. Agirrek hartu zuen hitza jasotako saria eskertuz: "Kalitatezko edukia eta gertuko kazetaritza; bezeroak jaso gura duela esan digun edukia. Informazioan erreferente egiten gaituena, eta gertuko zein kalitatezko edukien artean kultura edukia dugu maite. Goienaren egitekotzat dugu kultur-mina sortzea". Txomin Madinak hartu zion lekukoa eta Harkaitz Canok *Kulturrizketak* saioko protagonistetako bat idatzitako testua irakurri zuen, saritutako saioa gorai patuz.

Sari ekitaldi gozoa eta arina

Hogei kazetari eta komunikatzailearen lanak aurkeztu dira; guztira, 87 lan, eta ia guztiak sari nagusian lehiatzeko. Epaimahaiaren esanetan, kalitate oneko lanak izan dira. Komunikazio arloko adituak diren Goio Arana, Mondragon Unibertsitateko irakasleak; Maria Gonzalez Gorosarri, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak; Goizalde Landabaso, kazetari eta idazleak; eta Xabier Landabidea, Deustuko Unibertsitateko irakasleak osatu dute edizio honetako epaimahaia, mahaiburu lanak egin dituen

Ainara Rodrigezekin eta idazkaria izan den Patxi Baztarrikarekin batera.

Joxean Bengoetxeak, Amagoia Marinek eta Olatz Pratek osatutako hirukoaren musikarekin hasi zen sari-banaketa ekitaldia. Euskadi Irratiko ahots ezagunetakoak izan zuten ekitaldia aurkezteko ardura eta epaimahaiaren erabakiak ezagutze-eman aurretik kazetaritzaren izanari eta funtzioari buruzko hitzaldia eskaini zuen. Aurkepenak eginda, sarien txanda heldu zen. Bi sari ditu sariketak, baina aurten kazetari gazteen-dakoa hutsik geratu da. "Atal honetara oso lan gutxi aurkeztu dira; ondorioz, epaimahaiak ez du eskura izan 27 urtez azpiko gazteek egiten duten kazetaritza lagin nahikorik tamaina honetako saria emateko", azaldu zuen epaimahaikideen idazkari Patxi Baztarrikak.

Sari nagusia banatu aurretik, epaimahaiak horrela erabakita, sari berezia eman zieten Iñigo Astiz kazetariari eta Maite Mutuberria ilustratzaileari *Kixotenean* erreportaje liburuagatik. Miguel Cervantesen heriotzaren harira Astizek idatzitako eta Mutuberriak irudiz jantzitako erreportaje sorta da proiektuaren oinarria, lehenengo *Berria* egunkarian irakurri zena eta gero Elkar argitaletxeak bilduma forman kaleratu zuena. Epaimahaiaren esanetan, "sorkuntza paregabea da, irakurterraza eta oso goi mailakoa, aldi berean". Saridunek gustura entzun zituzten hitz horiek eta honela adierazi zuen Astizek saria jasotzean: "Ez da normalena izaten lore mordoak entzutea bozgorailutik zure izenaren ondoren; ez dakit duinki hori nola eraman daitekeen, baina egindako esfortzuari aitortza bat da; era berean, erakusten du erreportaje horien beste aldean norbait dagoela". "Sari honek balio berezia ematen dio lanari, jolas moduan hasi zen egitasmoa da. Helburu jakin barik egindako lanek batzuetan sorpresak ematen dituzte", gaineratu zuen Mutuberriak.

EUSKARAZKO KAZETARITZAREN KALITATEA ETA BERRIKUNTZA BULTZATZEKO SARIAK

Protagonistek esandakoak

OIHANE AGIRRE
GOIENA

"Eguneroko gertakarien berri ematea da gure programazioan ardatz, baina bestelako mimoekin egindako horrelako saiok asko maite ditugu".

MARIA GONZALEZ
EPAIMAHAIKIDEA

"XXI. mendeko telebista profesional eta moderno batek izan beharko litzukeen elementuak ditu *Kulturrizketak* saiok. Eredugarria da".

IÑIGO ASTIZ
KAZETARIA

"Egindako esfortzuari aitortza bat da saria; era berean, erakusten du erreportaje horien beste aldean norbait dagoela".

'Ortzadar' eta 'Eguna'

Bi aipamen berezi egin ditu oraingoa epaimahaiak. Batetik, aurten 20 urte bete dituen Noticias taldeko *Ortzadar* gehigarriari. Noticias taldeko Mikel Mujikak hartu eta eskertu zuen oparia. "Kazetaritzaren garai onenetan ez gaudela-eta, horrelako sariak aurrera jarraitzeko indarra ematen dute".

Bigarren aipamen berezia *Eguna* egunkariarendako izan zen; aurten 80 urte bete dira haren sorreratik. Bizkaiko foru diputatu Lorea Bilbaok hartu zuen saria, Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegia delako egunkariaren ale guztiak jasota dituen erakundea. "Kazetaritzak egungo berriak eskaintzen dizkigu, baina, liburutegiek, zoriez egiten duten gordailu lanari esker –katalogatu, gorde, zaindu eta gizarteratu–, beste garai batzuetako berriak eskura jartzen dizkigute eta hori sarri askotan ahaztu egiten da", zioen Bilbaok.

'Puntua'-n eta 'Goiena.eus'-en

Goiena Klubeko bazkideen artean gaur banatu den *Puntua* aldizkariaren zenbakia berezia da, gai bakarra du oinarri 46 orrialdetan: *Kulturrizketak*. Hamar saiotan esandakoak irakurtzeko aukera dago; horrez gainera, protagonistek sariaren berri jakindakoan kontatutakoak ere jasota daude. Aldizkaria jaso nahi izanez gero, deitu 943 25 20 05 telefonora edo idatzi *harpidetza@goiena.eus* helbidera.

Telebistan ikusteko aukeraz gainera, saio guztiak eskuragarri daude *Goiena.eus/kulturrizketak* atarian. Horrez gainera, eguaztenean Goiena telebistan eskaini zen sari-banaketaren ekitaldiari buruzko saio berezia ikusteko aukera ere badago.



Oasingintza

HARKAITZ CANO IDAZLEA

Euskal kultura eta kazetaritza ez daude beren onenean. Ez daude beren onenean gizartearen eragiteko duten ahalmenari dagokionez, ez eta beren lana modu ahalik eta profesionalenean ematen saiatzen diren sortzaile eta kazetariei diegun begiramenari erreparatuta ere. Eta euskal kultura eta kazetaritza beren onenean ez badaude, are okerragoa da agian "kultur kazetaritzaren" egoera.

Rigorea eta hausnarketa boladaz pasata daudela dirudi, aspergarria zaigu betazal baten kliskadan kontsumi ezin daitekeen iritzia, kritika edo polemika. Entrenimenduaren gizartearen bizi gara. Entre-tenituta. Latinezko *inter* horri dagokion *entre* horretan, beraz: bi puntu edo bi uneraren artean esekita. Soilik, bi puntu edo une horiek ez direla puntu jakinak, "puntu ezjakinak" baizik, indeterminatuak. Entrenimendua zentralizatu egin da, eta bitarteko izateari utzi gabe, helburu bihurtu da. Zer diren eta non eta noiz dauden ez dakigun bi puntu horien arteko "inter" mugagabeen bizi gara, honenbestez. Geure eguneroko informazio "kuota" eta kultur "dosia" modu delegatuan administrazio dakigun uzten dugu, otzan eta zintzo, edo, are okerrago dena, axolagabe.

Azkarra eta iragankorra da albistea, asteko liburua, sasoko kantua. Eta ia beti algoritmo urrun baten orakuluak preskribatua. Ez du ematen sobera inporta zaigunik. Eszeptizismoan irabazi duguna, ez dugu malezian irabazi. Ohartuta edo gabe, azpikontratatu egin dugu geure garunaren zati bat. Horregatik pizten du esperantza *Kulturrizketak* bezalako saio baten existentziak berak, sortzaileak euren kezak aletzen entzuteak, pospolo baten iraupena gaingiditzen duen neurriaren patxadan.

Gozamena eta ohorea izan zen niretzat Manu Muniategiandikoetxearekin solasaldia partekatzea. Goiena Komunikazio Taldeak ulertu duela dirudi: beste inork konpetentziarik egin ez diezagukeen arloetan behar dugu sendotu. Geuri, euskaldungo aktiboari beste inori axola ez zaizkigun arloetan. Hor, onenak izan gaitzek. Besteak beste, ez daukagulako konpetentziarik; guri bakarrik interesatzen zaigulako gure ekosistema. Interesatzen al zaigu benetan, ordea? Ala interesatzen zaigula esaten dugu soilik?

Joka dezagun esentzialismorik gabe, baina garena balioetsiz; kanpoan egiten denarekiko iragazkortasunez, baina

homologazioa kanpoan bilatu gabe. Euskal kultura ezagutu, ezagutarazi, prestigiatu, sustatu, eta gainera, ahal baltiz, audientzia lortzea behar luke izan gure telebista publikoaren zeregin nagusia. Tamalez ez da horrela, eta *harrobikoe* etorri behar izan dute dinosauroen gabeziak estaltzera. Euskal kultura ezagutu, ezagutarazi, prestigiatu, sustatu, eta gainera, audientzia lortzea. Hori da hurrenkera, eta ez beste bat. Lehenbizi zeure kultur ekosistema ezagutu, gero ezagutarazi eta sustatu, eta azkenik, publiko ahalik eta zabalea lortu. Ezagutu ezean ez dagoelako maitatzerik, eta gauza iraupena gaingiditzen duen neurriaren patxadan.

Gure arazoa, sarritan aipatzen da eta ados nago horretan, ez da ekoizpena, ikusgarritasuna baizik. Entzungarritasuna. Ez da kultur faktoria huts egiten duena, banaketa eta hedapen sarea baizik. Altaboza. Turismoari diogu, nonbait, fedea. Baina ez atzizki gastronomikorik gabeko kulturari.

Kulturgileak kulturgileekin hizketan jartzea ideia sinplea begitanduko zaio norbaiti agian, baina hori bezalako oasi gozagarrien premia inoiz baino handiagoa delakoan nago. Izatekotan, hobe delako oasi izan, basamortuaren erdiko ispilukeria baino.

Gure zeregina herrigintza zela uste izan dugu luzaro, baina akaso oker geunden: beharbada, oasingintza besterik ez da.

Harkaitz Canok *Kulturrizketak* saioko protagonistetako bat idatzi zuen sari-banaketa ekitaldian Txomin Madina kazetariak irakurri zuen testua

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

GOIENA TELEBISTA,
UZTAILAREN 20AN, EGUENEAN, 21:00ETAN
GONBIDATUA: XABIER ALKORTA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5

1. Ezkonberriak dira
Garazi Guridi eta Xabi Lizarralde uztailaren 8an, zapatuan, ezkondu ziren. Eztei-bidaia ona opa gura izan diete ingurukoek: "Ondo-ondo ibili eztei-bidaian. Patxo handi-handi bat!".

2. Bihar ezkonduko dira
Itsaso Iriarte eta Iñaki Hormaetxe bihar, uztailaren 15ean, ezkonduko dira Elorrioko udaletxean. Zorion mezua bidali gura izan diete lagunek: "Zorionak eta ondo ibili Guatemala aldean, bikote!".

3. Egun handia dute biharkoa
Izaskun Gorosmendi eta Gorka Urrutia oñatiarrek bihar –zapatua– ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zoriontsu izan eta besarkada bat", diote euren familiako eta kuadrillako kideek.

4. Hondarribian dute ezkontza
Oihana Vallina eta Andoni Agirre gaur ezkonduko dira Hondarribian; larunbatean izango dute ospakizuna, Donostian. "Ondo pasatu eta eztei-bidaian disfrutatu! Zoriontsu izan!", diote ingurukoek.

5. Ingurumen irteerekin pozik
Oñatiko ingurumen irteeren antolatzaileak "pozik" dira parte hartzearekin. 11 eta 15 urte bitarteko taldeak eguaztenean harturiko irudia da honako hau. Kortakoagain inguruan ibili ziren.

#DIOTENEZ

ETXEBERRIA, IXTEAR
Oñatiko Etxeberria jatetxeak **uztailaren amaieran** itxiko omen ditu ateak. Esan beharreako da makina bat ospakizunetarako toki izan dela aipaturiko jatetxea; urte askoko **tradizioa baitarama** soinean.
Joan den zapatuan, esaterako, aurtan 40 urte bete dituzten –eta betetzear dituzten– oñatiarrek **bazkaria egin** zuten bertan. Gero, ospakizunarekin jarraitu zuten.

KOLPEA, ENTZIERROAN
Iruñeko sanferminetako entzierroan korrika egiten ziharduen **oñatiar batek** kolpea jaso zuen egunean. Ondo omen dago, hala ere.
Nuñez de Cuvillo etxeko zezenak izan ziren eguneko protagonista. Besteak beste, **bi pertsona adarkatu** zituzten; eta, horiez aparte, beste sei pertsona eraman behar izan zituzten ospitalera, kolpeek eraginda.

ZORTZI URTEREN OSTEAN
Duela zortzi urte desegin zen musika talde batek jardungo omen du aurtengo **Elkartasun Egunean**; Arrasatekoak dira eurak. Esan beharreako da bost partaide dituela aipaturiko taldeak. Atzera begira, **Etxoste Tabernan** jardun zuten azkenekoz. Zehatz esanda, irailaren erdialdean izango da Arrasateko Elkartasun Eguna. **Garai zaharrak** gogora ekartzeko aukera izango da orduan.

BAKARRIZKETAK DOMEKAN
El Club de la Comedia telebista saioko **bi kidek** jardungo dute domekan Arrasateko Santa Marina auzoko jaietan; 19:30erako finkatu dute hirtzordua. Gerturatzen direnen **barre algarak** izango dituzte helburu protagonistek. Agertoki gainera azken ekintza izango da.
Dirudienez, **Enrique Grande** eta **Miguel 925** izango dira bakarrizketa saioa eskainiko duten bi protagonistak.

MIZPIRUALDEN, AUZOLANEAN
Gaur, egubakoitza, amaituko dute Bergarako Mizpirualde egoitzako auzolandegian ibili diren gazteek euren jarduna. Uztailaren hasieratik egon dira bertako **egoiliarrekin**. Zehatz esanda, Euskal Herriko eta Espainiako txoko ezberdinetatik iritsitako gazteak dira.
Dantzaldia egingo omen dute auzolandegiarekin amaitzeko. Agurtzeko eguna dute gaurkoa.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Jare Bergaretxe Arkauz
Uztailaren 19an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handia familia osoaren partetik. Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Aihoa Dorado Hernandez
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Disfrutatu egunaz alaitasun txispa horrekin. Muxu potolo bat, etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Iradi Aramendi Altuna
Uztailaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ederto pasatu zure egunien eta segi holako alaitsu eta sorgintxo izaten. Asko maite zaittugu.



ANTZUOLA
Aiora Legorburu Rodriguez
Uztailaren 18an, 12 urte. Zorionak, Aio!



OÑATI
Emili Olalde Iriondo
Uztailaren 17an, 2 urte. Patxo handi bat denen partetik.



LEINTZ GATZAGA
Garazi Ugarte Zubizarreta
Uztailaren 16an, 10 urte. Zorionak etxeko danen partetik! Ondo-ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
Oier Portalo Gonzalez
Uztailaren 15ean, 8 urte. Geroz eta mutil jatorrago eta zintzoagoa bihurtzen ari zara. Familia guztiak asko-asko maite zaitugu eta zure urtebetetzea ospatzeko elkartuko gara. Musu potolo bat zuretzat. Ah, ta prestatu itzazu belarritxo horiek!



ARRASATE
Izaro Ramos Andres
Uztailaren 15ean, 8 urte. Zorionak, bihotza, etxekoan partetik. Ondo pasatu zure egunean. Izaro, osaba Albertorekin.



OÑATI
Itsaso Ugarte Erostarbe
Uztailaren 15ean, 24 urte. Zorionak, Itsaso! Ondo pasatu eguna eta hobeto ospatu. Patxo potolo bat, familixako danon partetik!



OÑATI
Malen Caro Arriaran Lopez de Lacalle
Uztailaren 14an, 4 urte. Jada 4 urte; zelako azkar pasaiten den denboria! Zorionak, maitia, etxeko danen partetik! Ondo pasatu zure egunian. Muxuak.



BERGARA
Martxel Azkarate Lopez de Lacalle
Uztailaren 14an, 3 urte. Urte askotarako, familiako guzti-guztien partetik!



OÑATI
Maren Luis Gomez
Uztailaren 13an, 3 urte. Zorionak, politt hori! 3 urtetxo jada! Ondo pasatu eguna eta muxu pila bat, etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Ander Eraña Urieta
Uztailaren 13an, 6 urte. Zorionak, Ander! Belarritik sei tirakada eta egun polittia pasatu dezazula! Patxo handi bat, danon partetik.



OÑATI
Xuban Pildain
Uztailaren 12an, urtebete. Zorionak, Xuban! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo handi bat, familia danaren partetik!

ARRASATE
Uxue Nalda Gonzalez
Uztailaren 12an, 5 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu! Ihabar, amatxo eta aitaxo.



ARRASATE
Miren Corbacho Barquero
Uztailaren 11n, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Muxu asko etxekoan partetik. Maite zaitugu, maitia!



OÑATI
Urko Garitano Uzelai
Uztailaren 10ean, 4 urte. Zorionak, politt hori! Ondo-ondo pasatu urtebetetzea eta muxu handi bat, etxekoan partetik. Ikaragarri maitte zaitugu!



ELGETA
Markel Larrañaga Mandaluniz
Uztailaren 10ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Markel! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat, etxekoan partetik.



ANTZUOLA
Ibai Alonso Santacruz
Uztailaren 9an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta segi holan, mutil jatorra. Asko maite zaitugu.



OÑATI
Alix Biain Ugarte
Uztailaren 9an, 6 urte. Zorionak, potxola, zure seigarren urtebetetzian. Ondo pasatu, familixako horrekin! Muxu asko etxekoan partetik. Maite zaitugu, maitia!



ARRASATE
Nahia Ruiz Barquero
Uztailaren 9an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Disfrutatu zure eguna alaitasun txispa horrekin! Muxu asko etxekoan partetik. Maite zaitugu, maitia!



OÑATI
Maiaten Marton Camino
Uztailaren 8an, 3 urte. Zorionak, *guapetona*! Ondo ospatu zure eguna San Ferminetan eta muxu potolo bat, Anartzten, Agerren eta Oxelen partetik!



ARRASATE
Julen Carrasco
Uztailaren 7an, 6 urte. Zorionak, bihotzal! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu. Amatxo, aitaxo eta Maria.



BERGARA
Nahia Medina Soria
Uztailaren 7an, 2 urte. Zorionak! Familiaren partetik, asko maite zaitugu. Egun ona pasatu. Muxu asko.



ARETXABALETA
Markel Alarcia
Uztailaren 11n, 7 urte. Zorionak eta patxo potolo bat, tia Kontxiren eta Izadiren partetik!



OÑATI
Amets eta Aimar Barriola Biain
Uztailaren 6an, 2 urte. Zorionak, txapeldunak! Patxo handi bat famelixa daneren partetik. Ondo ospatu zuen eguna.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

- Internet**
Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
- Posta elektronikoa**
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Ordezkaritzak**
Etor zaitetz Goienaren ordezkaritzaeren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Gobernatzaileen erantzukizuna

2015eko uztailean hartu nuen Gipuzkoako Bide Azpiegituren arduradun izatearen erronka.

Ezustean, baina gogo handiz eta, batez ere, erantzukizunez gure gobernu programa betetzeari ekin nion.

Lehenengo egitekoa Antzuola eta Bergara arteko gaitasun handiko errepidea bukatzeko diagnosia egitea izan zen. 5 kilometroko obra egiteko erabaki asko hartu behar izan nituen, baina lehena, zegoen proiektua errebisatu edo berria egitea. Argi nuen nire aurreko arduradunak amaitu gabe utzi zuen obrak azterketa sakonak eta proiektu idazketa berria eskatzen zituela, eta azterketa geologiko handiak egin eta proiektu sendoa egin genuen, eguna joan eta eguna etorri egiteko horretan indar guztiak jarritz. Bi urte bete ondoren, Antzuola-Bergara obra martxa onean da proiektu berriarekin.

Aurreko legealdian egindako proiektuaren errebisioarekin jarraitu nezakeen, baina birplanteatu egin nuen zeharo, nire erantzukizuna obra ondo egitea eta bukatzea baita, eta ez aurrekoek erabakitako proiektuarekin jarraitzea.

Gobernu lanetan gaudenok hori guztia neurtu eta erabakiak hartu behar ditugu, aitzakiarik jarri gabe.

BUKATZEKO



Bergarako mahai-joko zaleetako batzuk jolasean. MAJOKU ELKARTEA

Mahai-jokoaren bueltako zaletasuna hedatuz

Ohikotasunaren esparrutik aldenduz, gero eta ugariagoak dira mahai-jokoaren bueltan diharduten elkarteak. Bada, horren adierazle da zapatuan Bergaran irekiko duten Majoku elkarteak. Mahai-jokoekiko "pasioa" hedatzea dute helburu bultzatzaileek

Iker Oñate BERGARA

Mahai-jokoaren praktika zabaldu guran, Majoku elkarteak irekiko dute bihar, hilaren 15ean, Zubietako eskola zaharrean; 10:00etan zabalduko dituzte ateak. "Mahai-jokoaren bueltako zaletasuna hedatu gura dugu; horren ezagunak ez diren jokoak ezagutaraziko ditugu horretarako", azaldu du Iker Dominguez ber-

gararrak, elkartearen helburuez mintzo. Ohiko mahai-jokoetatik gainera joan gura dute, beraz.

Bestetik, Dominguezek azaldu duenez, bestelako mugak ere badituzte jo-puntuak: "Gaur-gaurkoz, lagun talde itxietan praktikatzeko dira halakoak. Horri buelta eman gura diogu, jende ezberdinarekin jardun ahal izateko bitartekoak eskainiz".

Izen-ematea, bihar hasita

Bada, aipaturikoak helburu, bihar irekiko dute izen-ematea; elkarteak kide izan gura duen orok eman dezake izena. Hori bai, argitu dutenez, adin txiki-koek tutorearen baimena izango dute beharrezko.

Elkarteak kideak askotariko jokoak izango dituzte eskuragarri. "Era askotako mahai-jokoak

daude; bakoitzak berari hobekien dagokiona aurkitzen du, normalean", argitu du Dominguezek. Besteak beste, *Magic*, *Catan* eta *Carcassonne* jokoak aipatu ditu bergararrak.

Elkartearen funtzionamendua

Beste edozein elkarteren moduan funtzionatuko du Majoku elkarteak; ordutegi eta arautegi zehatz batekin. Horri dagokionez, Dominguezek azaldu duenez, orain horiek adostea dagokie. Bestetik, aipatu beharrekoea da egoitza egunero izango dutela erabilgarri Bergarako mahai-joko zaleek. Beraz, elkartearen funtzionamendua ez da hitzordu berezietara mugatuko.

Horren bidean, gaur-gaurkoz, azken ukituak ematen dihardute egitasmoaren bultzatzaileek. "Azken txanpan gaude murgildurik, txikitatik datorrigun zaletasuna zabaltzeko motibazioaren bultzadarekin. Hiru urte daroatzagu ideiarekin; eta, orain, errealitate bilakatu da, azkenean", azaldu du Dominguezek.

Elkarlana, jo-puntuak

Aipatu beharrekoea da Bergarako ez dela aurtan jaiotako mahai-joko elkarte bakarra; antzuolarrak ere ireki zuten euren egoitza urtarrian. Gauzak horrela, aurrera begira jarriak dira bi herrietako elkarteak, elkarlana helburu. "Jada hasiak gara elkarlanean sakontzen. Hainbat artean, egutegi propioetik aparte, batera bultzaturiko ekintzak antolatu gura ditugu", azaldu du Joseba Goikoetxeak, mahai-joko zale antzuolarrak. Gaineratu duenez, "horrek, mahai-jokoaren bueltako zaletasuna indartuko du, dudarik gabe".



GAURSA
RENT A CAR

Zure ibilgailu-alokairua GASTEIZEN
Gamarrako Atea, 46



618 88 12 42 rentacar@gaursa.com www.gaursa-rentacar.com